

Euskara bere baitan

(psikoaztertuz)



FELIX ZUBIAGA

Euskara
bere baitan
(psikoaztertuz)

FELIX ZUBIAGA

Argitaletxea
Euskara
1984

*Liburu honek Bizkaiko Foru Aldundiko
Kultura Sailaren diru laguntza izan du*

© Felix Zubiaga Legarreta

Azalaren diseinua eta maketazioa: Felix Zubiaga Legarreta
Ekoizpena: Erroteta - www.erroteta.com

ISBN: 84-934323-2-6
Lege Gordailua: SE-2452-2005 EU

Inprimaketa: Publicaciones Digitales, S.A.
Liburu honen bertsio elektronikoa deskargatzeko:
<http://www.todoebook.com/Erroteta/>

Autorearekikoa (para dirigirse al autor)
Teléfono: 94 673 04 86./48340-Amorebieta, Orue (Bizkaia)
edo/o felixzubiaga@padrespasionistas.e.telefonica.net

Euskara bere baitan (psikoaztertuz)

FELIX ZUBIAGA

AURKIBIDEA

SARRERA.....	9
I. GIZA IRUDITERIAREN ESPARRUA.....	11
1.1. Irudia eta irudimena.....	11
1.2. Iruditeriaren soloa.....	12
1.3. Iruditeriaren harrobia.....	13
1.4. Sinboloak hitzaren ordeko.....	16
1.5. Sinboloak otoitz leku.....	20
1.6. Jainko izenak sendian.....	24
1.7. Arketipoak, antxinako ereduak.....	28
1.8. Norbere arketipoak.....	28
1.9. Norbere arketipoen esparrua.....	30
ONDORENA.....	35
II. OROITZAREN ANTOLAPENA.....	36
2.1. Ospakizuna eta oroitza.....	37
2.2. Hitzen arteko loturak eta oroitza.....	38
2.3. Hizkuntz artezia eta oroitza.....	41
2.3.1. Hitz kidetuen egiturak eta oroitza.....	42
2.3.2. Hitz monosilaboen loturak eta oroitza.....	45
2.3.3. Jainkozko hitz aglutinatuen loturak eta oroitza.....	47
2.4.1. Hitzaren lehen gizakundea eta oroitza.....	49
2.4.2. Hitzaren bigarren gizakundea eta oroitza.....	51
2.5. Hitzaren arteziak eta oroitza.....	53
2.5.1. Ka, ahal eta ahalke arketipoa.....	54
2.5.2. Ba, apalgo eta baimen Ba arketipoa.....	55
2.5.3. As, askapen eta eskubide arketipoa.....	57
ONDORENA.....	59
III. HITZAREN HAZKUNDEA ETA OROITZA.....	60
3. Atzizki-aurrizkiak eta hazkundeko gaiak.....	60
3.1. Atzizki-aurrizkien jatorria.....	60

3.1.1. An aurrizki-atzizkiak eta oroitza.....	61
3.1.2. Utu aurrizki-atzizkiak eta oroitza.....	62
3.1.3. Erra aurrizki-atzizkiak eta oroitza.....	64
3.5.4. Ilu aurrizki-atzizkiak eta oroitza.....	65
3.1.5. Ka aurrizki-atzizkiak eta oroitza.....	66
3.1.6. Ba aurrizki-atzizkiak eta oroitza.....	67
3.1.7. As aurrizki-atzizkiak eta oroitza.....	68
ONDORENA.....	69
IV. GRAMATIKA ETA HIZTZEN JOSKERA.....	70
4. Gramatika legeak eta “berezko gramatika”.....	70
4.1. Izenen eta aditzen atzizki-aurrizkiak.....	71
4.1.1. Jainko arketipoaren mendea atzizki.....	72
4.1.2. Giza arketipoak atzizki.....	76
4.2. Hitz-aditzen aurrizkiak.....	78
4.2.1. Jainkozko arketipoak hitz-aditzen aurrizki.....	79
4.2.2. Giza arketipoak hitz-aditzen aurrizki.....	80
4.3.1. NOR-NORI-ZER jokua aditzean.....	82
4.3.2. Aldien jokua aditzean.....	84
4.3.3. Gaitasun ahala eta beharra aditzean.....	85
ONDORENA.....	87
V. ADITZ IZENDUEN JOSKERA.....	87
5.1. Hizkuntza ala pentsamendua da lehenengo?.....	88
5.2. Aditz izenduen joskera.....	89
5.3. Ohiuzkoetatik “gramatikazko orazioetara”.....	90
5.4.1. Aditzizenduen joskera An arketipoz.....	91
5.4.2. Aditzizenduen joskera Utu arketipoz.....	93
5.4.3. Aditzizenduen joskera Erra arketipoz.....	94
5.4.4. Aditzizenduen joskera Ilu arketipoz.....	98
5.4.5. Aditzizenduen joskera Ka arketipoz.....	97
5.4.6. Aditzizenduen joskera Ba arketipoz.....	98
5.4.7. Aditzizenduen joskera As arketipoz.....	99
ONDORENA.....	100

VI. HIZKUNTZA ANALOGIAREN GURPILAN.....	101
6.1. Hizkuntza norbere erazkin.....	101
6.1. An analogien jakinduria.....	102
6.2. Utu analogien jakinduria.....	108
6.3. Ra analogien jakinduria.....	114
6.4. Ilu analogien jakinduria.....	120
6.5. Ka analogien jakinduria.....	123
6.6. Ba analogien jakinduria.....	129
6.7. As analogien jakinduria	135
ONDORENA.....	140
ONDORENAK.....	141
MONOSILABOEN HIZTEGIA.....	142
BIBLIOGRAFIA.....	151

LABURGOAK

1º laburgoa: Oihuzkoak jainko arketipoen arabera.....	19
2º laburgoa: NOR izenordeak arketipoz arketipo analogizatuak.....	23
3º laburgoa: Oihuzkoak zazpi arketipoen arabera.....	29
4º laburgoa: Sentzu hitz-aditen analogia arketipoen arabera	33
5º laburgoa: Adimen hitz-aditzen analogia arketipoen arabera.....	34
6º laburgoa: Mintzo hitz-aditzen analogia arketipoen arabera.....	39
7º laburgoa: Gonbaraketakoan analogia arketipoen arabera.....	44
8º laburgoa: Aurritzien analogia arketipoen arabera.....	63
9º laburgoa: Atzizkien analogia arketipoen arabera.....	65
10º laburgoa: Agintezko adizkera zaharrak.....	85

SIGLA BATZUREN IRAKURKETA

(s) sumeriera, (a) akadiera (et) etiopiera, (ur) urartio, (hu) urrita, (u) ugari-
tiera, (e) egiptiera, (ara) aramaiera, (h) hebraiera, (arb) arabiera, (ber) bere-
ber, (g) gerquera, (l) latina, (f) frantxesa, (al) alemaniera, (i) ingelesa, (it) ita-
lianoa, (ca) catalana, (ga) gailegoa.

SARRERA

Iziartxo entzumen zoliko jaio zan eta aste bete barru begi urdinak ideki zituan eta handik laster amari irrinoak egiten hasi zan, baina “ama”, “aita” esaten ikasi orduko, urte bete joan zan. Gurasoek asko poztu ziran alabatxoaren mingain totela zerbaierako ba zela ohartzean. Handik hara aurrerapen handiak egiten zituan ñekatoak. Amak eskaratzeko atea kisketaz izten zion, kalera urten eta kalteren bat gerta ez zekion umeari. Orduan Iziartxok aulkira igon eta ateleihotik kalera begira egoten zan luzaroan handik zetozkion ahotsak entzun eta irriñoak ikusten. Oinak gotortu zitzaizkionerako, amak plazako erosketak egitera ateraten zuan alabatxoa eta bidean harrigarri zitzaion gauza bakoitzaren aurrean hatzamar-txoa jasorik “ama, zer da hori” galdetzen zion. Zenbat lezio amaren ahotik! Hiru urteraz gero, eskolara joan eta adizkide berriak egin zituan eta hanartean “etxean entzuna kalean esana” bazan, orain kalean entzuna etxean kontatzen zuan. Andereñoak esaten zuanez, Iziartxok euskeran diploma merezi zuan.

Berezkoa al zuan diploma, ala amak etxean erakutzia, kalean entzunaz eta eskolako andereñoaren lezioen ondorea al zan? Bada, orain hizkuntza bere baitan aztertzen duten batzuk, hizketa berezko dohaia dela dinoe, hala genetistak kondu-tisten aurka. Nola berezkoa, baina? Bai, entzumen eta ikusmen bezala, kon-tuizu. Eta hori hala dela frogatzeko, nahiko izaten dutela haurrek amak edo inguruak eman bultzadatxoak, bada oinez ere, dagoka egoten irakatzu eta besoetara aurrera pauzo egitera deituaz ikasten bai-dute. Bai, noski: txaka-txaka egin edo asierako erretolika ezin ulertua ume guztiena duzu, beltzeran ala zurbil izan, baina euska-ra ikastea edo edozein erdera ikastea ez duzu gauza berdina, hiz-kuntza batzuk besteak baino zailagoak omen dira-ta, izan ere. Ala gauza bat al da hitz egiteko dohaia eta beste bat euskera edo erde-ra egitekoa? Antza denez. Eta orduan zertan bereizten da umeen “bua-bua-bua” ahokerako ariketak txakurtxoek “au-au-au” auziaz? Esatea ere! Txakurtxoarena betiko leloa duzu, handik aurrera ez dizu ezer ikasiko, humeek oster...Aizu, txakutxoek ere ba dakizki-

te beste soinu eta alauriak egiten jolasean ari edo esturan aurkitzen direnean. Hori bai! Baina izenak ahozkatzen-eta utsak dira. Ta gainera txakurrak ez daukatzu pentsakizunik. Jakina, adimenik ere ez duelako. Eurena berezkoa da, umeen negar marraka bezela.

Hizkuntza pentsamenduaren aurretiko dohaia omen dela dinoe genetistek konduktisten aurka. Beraz, Iziartxok, “ama” idea idurimen-adimenean, ala “ama” izena izan zuan lehenago ahoan? Edo eta, abotsak al dakar amaren idea, ala amaren lastana sentitzeak, amaren abotsa entzun eta ama bera ikusteak dakar amaren ezau-pidea eta hurren haren izena entzunez ikasi eta ahoz antzezteak? Loritoek ere ba dute hizkera modurik. Berezkoa, ala ikasia? Bai, salbuespen daiteke, baina, izenak mokokatuarren, lorituak ez du idearik ere. Umeak, *ama* esan orduko, ba daki ama nor den.

Dena den, eurek, maisu ikasiek ere ez dira argitzen, batabeste-en kontra eta hirugarren batzuk erdi bide batera erakarri nahi dituzte, bada itxusia ere ba da halako estabaida maisuen artean. Arazoa “arrautza ala oiloa lehenago” galdetzea bezala omen da. Arrautza ala oiloa? Ez al da hobeto “arrautza ala kakaraxa” galdetzea. Oiloak behin ere ez dizu kakaraxarik egingo arrautza erron aurretik. Arrautza da, orduan, zureztat idea edo pentsamendua eta kakaraxa, hizkuntza. Nolabait, elkar ulertzekotan. Iziartxori ere, jaio ostean ezarri zioten izena eta ez aurretiaz.

Euskara bere baitan ulertzeko, Iziartxo bere amarenean edo eskolan ikusten dugu. Iziartxoren irudimen soloa eta gaueko mamen mundua nuntarrak diren azalduko dute psikologistek, haren euskara arrakasta eta zaletasuna psikolinguistek, haren eskolako baliabideak soziolinguistek. Eta euskarak berak edo euskara asmatu zuten gure asabek ez al ziran euren baitan eta izadiko ohial urdinetan bizi izan, egunez eguzki argiz jori eta gaueko izar keinuen ametsez ipuinak konpontzen hasi eta euskarari barne bizitza emateko lain? Edo euskarak ez al du barne genetkarik? Galdetzea ere! Gu eta gure herria zertatik ezagutzen gaituzte, bada? Ez al gara euskaldun, euskara egiten dugulako? Jakina, ba! Hagatik “*Euskara bere baitan*” izena eman diogu ikerketa honi, bada, euskararen baita euskaldunon *arima* bezala eta etxea omen dugu.

I. GIZA IRUDITERIAREN ESPARRUA

1.1. *Irudia eta irudimena*

Irudiak begietatik sartzen dira giza barnera eta irudiok jaso eta gordetzeko ahalmenari irudimena deritzaio. Irudiak jaso, baitaratu eta pilatu egiten ditu eta, denda ornituan bezala, bakoitza bere mailan taxutu, oroimenari bidea erraztu, ospatu edo aipatu behar direneko, eta onenean, hitzaren argibide eta lekuko izan daitezten. Azaleko sentzuak bezala, irudimena, biziagoa edo motelagoa, berezko ahalmena dugu, bizitzako gogoangarriak, albumik esku-tuenean bezala, irudikizun gorde ahal izateko.

Gure sentzunek elkarren lehian ikusten, ikutzen edo entzuten dute, usnoaz usnatzen, susmoaz susmatzen, antzekizunaz antzematen, begiez begitantzen, eriaz eristen, etab. izadiak aukeran ezarten dizkigun gaiak, izadia den liburu ideki, irakurgai eta gozagarriaz. Hala bereizten ditugu begietan ikusgarri ala itxusi diren, jastamen usnamenean gozo edo minkaitz, entzumenean zoli ala zurumurru eta ikuimenean leun ala lakar. Behingoan antzematen dugu zein zaigun ederren eta egokien eta ohartuen gaineko ustea osatzen dugu. Halatan, sentzunez jaso zehaztasunak zentzun bereziko egiten ditugu, *setzun/zentzun* elkarren ondoreko baidira, eta irudietatik jaso irudikizunez barnean sortzen den idea biribiltzen eta pentsakizuna janzen laguntzen digute. Hagatik sentzunetik adigarrira esan ohi dugu: “iruditzen zait”, “antzeman diot”, “susmo dut”, etab. (Ikus 4°,5°,6°, laburgoetan) Zeren edo noren hotsez edo izenaz antzeztuko ditugu ahoz aipakeran? Ahozkerak berak ematen dizkigun baliabideen arteziaz, noski.

Iziartxo egoki moldatzen da etxean amarekin, eskolan andereinorekin eta bere ideko umeekin, baina Juanita etorkin berriak burua ezkor mogitzen dio, Juanitak ez dakialako oraindio euskararik eta Iziartxo berak ere ez erderarik eta *zu/tú* nortasun eta *arkatza/lápiz* otsak eta gaiak aldatu beharrak jolas parragarria iruditzen zaio. Edozelan ere amaren hizkera baino gehiagorik bada hortik, baina amarena eskolan aintzat hartzeak segurtasuna ematen dio.

1.2. Irudia eta iruditeria

Buruko garauak irudikizunez jori omen ditugu, irudiak garaute-giko azalean kokatzen omen dira, soloari erantzi haziak bezala, bada materiatic jaso antzekizunak iraunean gorde ahal izateko, gai bereko kabia behar dute euskarri eta hala idoroten buru mui-nean. Kaskoa gazterik dugunean, irudikizunen kabi azkarra da, eta garautegia zurruntzean, bakandu egiten zaio kabigarria.

Irudimenean gordetzen ditugun irudikizun multsoari irudite-ria edo *imaginario* deitzen diote psikoazterleek eta psikologuisti-kan ere garrantzi handia ematen zaio. Zer den *iruditeria*? Nor bakoitzak edo gizarteak bere inguruarekiko loturak egiteko eta sinboloez azaltzeko erabili ohi dituen ikusmeneko edo gogame-neko irudi multsoa. Izakerak berak, edo nonbait izakiak duen bizitzaren pustagarriak bultzatzen omen du hatara gizakia eta hala azaltzen du bizibideko oponioak ipoinenez kontatzean erabili ohi dituen irudien egituretan, *opinio/ipoin* bai-dator hizkunez.

Irudion edukina asmatzeko hermeneutika berezia erabili izan dute exegetek, irudi bakoitzak zentzu izkutua bai-luen, edo errebelazioen bat. Egunotako gizarte kulturaren, berriz, kontraesan handia sortzen ari ei da: ikus-entzumeneko teknologia berriek gizarte irudi-gosea inutzen ari diren une berean giza zientziek ohi bezalako irudi kalte azaltzen bai-dera, arrazoi bideko argigarrietatik landa, irudite-giaren poetikak egia bideko ikerketan ezertariko indarrik ezpailuen. Adibidez, pasarelako modak soin ederrez liluratzen gaitu eta moda bateko eskulturak, ostera, burdin totxoaz metafisikara-edo gonbidatzen, hanarteko gizatasuna kinkan jartzen digutela. Gaurko gizarte lehengoa baino iruditegiz aberatzagoa da eta irudion sorguak, erlijioa ezeze, literatura eta ikus-entzungarrien medioak dira, hagatik giza zientziaren eragileek aintzat harzen dute euren azterbidetan giza iruditeria, irudia pentsamenduaren inude eta gizakiak bere inguruarekin loturak egiteko erabili ohi dituen baliabidea dena jakinik.

Iziartxori ere, etxetik kalera, kaletik eskolara, ipuinez ipuin eta oharrez ohar, irudimena askatu egin zaio eta, orain berriz, irudi animatuekin, eskaratz txokoa ere plaza bihurtzen zaio, maiz adizkidetxoekiko jolasak aztu egiten dituela. Gero denetaz euskaraz

mintzo ohi da, baina batzuetan amarekiko kontaktatilu ordua denean, erdal hitzak ere nastatzen dizkio eta ama harritu xamar gelditzen da, ea ona litzaken umeari harako hitzak zer esan nahi duen galdetzea ala ezentzuna egitea.

1.3. Iruditeriaren harrobia

Izadia bera da nonbait giza iruditeriaren esparrua eta Bachelard siquiattrak *uin, su, aire, loi* kosmologia zaharraren lau agerkariotan jartzen du irudien harrobia. Sikiatrarentzat izadian agertzen diren lau elementu baino ez dira, baina antxinako gizakiarentzat lau jainko egile ere ba ziran: *Inu^(ur), Utu^(s), Erra^(e), Ilu^(e)*, alegia. Beraz euskara mito azertuaren jakinduriatzko hizkunean *Inu/uin, Utu/su, Erra/aire, Ilu/loi* datoz, halako elementuak, halako gurasoak baitlituen euskarri, eta elkarren ide direnak elkarrengandiko idearen sorleku. Umea ikustean haren ama otutzen zaigunean bezala, edo “Norena zara zu?” hari galdetzean “Amana” entzungo baigenuen.

Halatan *uin* agerkaria zer den galdetu aurretik, *Inu* nor den jakitekoz, mitologiari galdetu behar diogu aurretiz. *Inu* “zeru” esan nahi bai-du urartieraz, Mesopotamia buruko Urartu herrian¹. *Inu* “zeru” antxinako jakindurian goiko *uinen* bilgunea bai-zan, itxaso beheko uinen aska den bezala, eta hagatik *Inu* zerutik *inotzen* dira *uin, inatazi, intz, intziarrak*, etab. eta haiekin batera sortu bizia. *Inu*, Sumerren *Anu* da, jainko eta gizakien aita eta *Antu^(s)*, haren emaztea. Harrez gero, euskalduenek ere *Inu/in* hizkunea ondo uler dezake, geroagoko esakeretan ere, “*Jainkoak in, gizakiak ekin*” ikasi eta gogoratzen bai-dugu. Bestalde, irudimenaren altxorra haztatzeko ez da berdin *uin* sorkaria bakan aztertzea edo *Inu* jainkoa zeruaren altsotiko emaitz bezala hartzea, zeren *uina Inuk ina* bada, egoki zan *uin* deitzea, Iziartxo ere Iziar amaren ize-netik harako bezala. Bestalde, aldi bateko *uin* “ur meta”, “urtza”, “olatu” esateko erabilia izan da, eta ez iturrian, potzuan edo eskuartean edateko edo garbitzeko darabilgun “ur xorta”.

Utu deitzen da sumerieraz “iduzki” haren ondore den eguzkia,

kosmologia zaharreko elementuen izenak grekoa baino zaharra-goak bai-dira, eta eratorriz, *Utu*>*su* datorrela jakitea, berriz, euskararen zuhurtzia da eta euskaldun askoren oroitzia “Iduzki Sainduaganako” jainera. Ikustea baino ez dago Iziartxoneko ate gainean dagoen iduzkilorea, aitik bere urtebetetzean, hain zuzen, menditik ekarri ziona eta berak maiz aulkira igon eta eskutxuaz musua bidaltzen diona. *Eguzkilore* edo *iduzkilore* deritzaio eguzki antza duelako, eta hagatik menditar lore hori eguzkiaren sinboloa delako. Ez dago edergarri utsez Iziartxoneko ataburuan, eguzkia ere zeruko Jaun onak bidalitako ongilea eta etxe-zaindaria bai-da. Iziartxo-baitako ateburuko iduzkilorean, beraz, sinboloa, mitoa, ohitura, ustea, bihozkeria, otoia eta teologia osoa dago, eleizako aldare osteko iruditerian bezala. Lorea ikusiaz batera, Iziartxo aitik menditik ekarri zioneko une pozkorraz oroitzen den bezala, gure asabek *Utu/su*, *otu/otoi*, *done/duin*, *otoi>otian* eskari eta balore kordatu zituzten ezkolabidez burutik ezpainetara, Jainkoaz oroitzean, haren iduria otumenaren eduko eta otoileku egiten zutela. (Ikus 1^o laburgoan lehen otoi edo ohiuzkoak)

Iziartxo ere gauero loak hartzen duenean, amaren altsoa zeru izarratua iruditzen zaio, bera izar txiki bat, “gure Iziartxo” deitzen bai-diot, eta anaiatxoa, berriz, izar txikiena eta aitaren irribarea, berriz, eguerdiko eguzki leinurua.

Orobat *aire* elementua ez da zientziak mekanika utsaz azter dezaken zera. Ba leiteke hizkuntzaren zientzilariek *airea* aztertzean, jainko *Erraz* ezarduratzea, baina hori mitozaleen eta mitojaleen arteko eztabaida da. Gizakia den misterio izkutua azaltzen laguntzen diguten bide guztiak onak badira egia zaleetzat, euskararen sorgua nontarra den azaltzen dizkiguten bideak ere onak behar lukete izan euskalzale den hizkuntzalarientzat. *Ra* deitzen zaio egitieraz eta “iruzki”, haren ondorengo Horus>Orzi ilobari, amak *ortzu/orzu* esanez, ortzi biran bidaltzen duena. Hagatik *iduzki* eta *iruski* ere *Utu* eta *Erra* jainko familiako nabaritzen ditu euskarak, goitar *oru orube* egiten duenean bezala. Halatan konturatzen gara euskara asmatu zuten gure asabentzat erabat argiak eta jakinduriatzko dotrina zirela *Erra/aire*, *Erra/erre*,



Egitiar mitograma honetan *Nut(e)* “zeru”, *inude* ezeze, sumerieraz *Antu* deritzaion ama handi, *antua* dakusgu. *Nut* amak egunero erditu eta orzten du *Ra* seme iruzkia. *Erra* beheko uretatik goiko uretara ugaroan doa. Maat jakinduria eta Toth idazkaria lagun dituela, aztore burua eta buruan eguzki aroa ta haren gainean ureus sugeñoa daramazki Aphopis erresugearen (Ikus 17 or) amarruen salatari. Arratzean Horus biloiak, eskuak zabalik, laguntzen eta gidatzen du. Azpian etzanik dager *Geb* “lurra”, *ki* sumerieraz, eta erdian laino gainean, *Shu* airea dago, hutsa betetzen. Kosmogonia zaharreko hiru elementu soilik agertzen dira: *Inu/uin*, *Utu/su*, *Erra/aire*. Laugarrena, akadiar kulturako *Ilu/loi* nortasuna geroago lotuko zan Sumer eta Egiptoko kultura mundura.

Erra/erein, *Erra/erran*, etab. hizkuneak.

Kosmologia zaharreko jainko egileetan azkena *Ilu/loi* dator, *lue*, *lur*, *lodo* ere aipatzen duguna, baina hitzik zaharrena monosilaboa denez, kosmologiaren hastapeneko lau elementuak bakoitza bere gurasoren umeko, monosilaboz izentatuez gero, errazago ulertzen ditugu, jainko izenak izadiaren egile ezeze, hizkuntzaren edu eta arketipo berezi direlakoa, euskaldunen umea Iziartxo ere *ama*, *aita* aho beteko hitzen ariketaz askatu zituan bere ezpainak mintso argira. *Ilu/loi* egiturari dagokionetan, beraz, hona *Ilu/ahal*, *Ilu/el*, *Ilu/hil* hizkuneak antxinatik euskaldunaren ikasgai mokau eginak.


Irudien lau harrobiak gizakiak sentzuez ohar ditzaken mundu osoa da eta eredu eta sinboloen gainetik ikusten ez diren guztiak antzemateko agerkari bakoitzaren ditzirei jarraitzea baino ez du eta “irudi” hitza bera, hitzetik aditzera, “ba dirudi”, “iruditzen zait” bihurtzen zaio, ipuina edestean, ots, oponioa ematean. Hitz egin behar duen bakoitzean so egitea baino ez du eta hizkuntzaren goitar ereduak ditu begien aurrean adierazgarrien makulu, zeru magalak izarrak bezala, irudi-idea orokorrez babesten baiditu idea kumeak. Horrela, ez zaizkio aztuko bere ideak, ez ahienatuko goiko eruedetan ondo kordatu eta oratu dituen pentsakizunak, idea orokorren orrazian ondo hartu eta taxututa bai-ditu.

Bachelard sikiatrak lau elementuok giza iruditeria ezbaikorren lau iltzeak direla dino eta, hareago, adierazbide materiala inutzen duten lau hormonak. “Ba naiz, beraz laukoitz naiz”² azpimarratzen du, giza iruditeriaren sikoazterketa giza garaunetaraino daramala. Literatura munduan aritua den meriku batentzak argibide bikaina da, egiazki, baina euskara bere baitan ezagutzea falta zitzaion, gizakia barneragotik ezagutu eta literatura linguistikaraino edatu ahal izateko, (ez bai dago literaturarik hizkuntzarik gabe) eta ea iruditeriak ahozkatze orduan irudi-sinboloen soinurik azaltzen dutenez jakiteko.

1.4. Sinboloak hitzaren ordeko

Usteak, pentsakizunak hitzaren aurretiko zimikoak dira gizakia-aren baitan eta, euskal jakinduriak dinonez, “birritan pentsau eta behin esan” edo “pentzau gabe esaten duenak pentsatzen ez duena esaten du”. Hala ere, psikolinguistek maizetan gurdia idi buztarriaren aurretik jartzera lerratzen dira.

Norbere bulkoa ahozkeraren soinu eman ahal izateko, begiak ohar ditzazken eskuketa sinuak baino zerbait artetsuago behar zuan: esalearen ahotik entzulearen belarrirako mezua gerta zedin. Mezulariaren espainak mugitu eta hitza ahozkatzean, mezu har-tzailearen begi belarrietan dago komunikagarria eta entzumena



Kosmologia zaharreko ordenadore honek lagundu zion gizakiari, hizkuntza asmatu eta arauak zazpi ariko sarean sartzen, analogigai/analogizatu erataro bulkoak burutuz. Arketipoak: *An*^(s) “zeru makoa”, *Utu*^(s)/*Ra*^(e) “eguzkia”, *Ilu*^(w), “*loi*” edo lizunetan dizdiratzen duen jainkoen *litz*, biziaren seinale dena. Erdian lurra=*ki*^(s), *Ka* giza kaiaren ordezkari, eta *Ba ibai* antzetik barneratu *baita* edo *psikea* eta *As* bizi arnasak ordezkatzeko duen erritoko *santu izate zehatza*.

Hizkuntzaren arketipoak: zapi ahotz eta zazpi seinu

aN:	N,n,M,m,mn,Ñ,ñ.....	hona, uno
uTu:	T,t,tt,th,D,dd,dh,tx,tz,ts,z,Y,y.....	dui, dos
Ra:	R,r,rr,rh,.....	hiru, tres
iLu:	L,l,Il,ll,.....	lau, cuatro
Ba:	B,b,V,v,P,p,ph,F,f,H,h.....	bost, five
Ka:	K,k,Q,q,C,c,kh,kh,Ch,ch,X,x.....	eks, xei
As:	Sh,sh,Z,z,zz,X,x,tx,tx,tz,tz,J,j,y.....	septe, zazpi

Hizkuntzaren zazpi zorguak, zazpi konsonante eta familia bereko alofonoak dira. Antxinako idazkerak hagatik kontsonante hutsez idazten zuten. Konsonante bakoitzak bere letera seinua ere arketipoaren soinetik jasoten du: *An* zeru-mendien egia *MN* dira jeroglifikoetan, *Utu* o kurutzatua da feniziar alfabetan, *Ra* o ardatzduna geroglifikoetan, *Ilu* aginte makila eratan *l* dager, *Ka* eskuak gora adi lurrean exeritako gizakia *w* da geroglifikoetan eta *Ba*, **b** ausaz batela uretan eta *as*, **s** ausaz giza zintzurra. Jainko arketipoak lehenen eta giza arketipoak hurren.

jabetzen da ikusmenaren gainetik, ez dago erraturik, ahozkatu diran soinu bakoitzak bere ereduak duelako lekukotzat. Itxuak ere entzun dezake mezua edo ostetik edo urrutian dagoenak abotsaren deiadarra, ahozkatu soinu-seinuetan bai-doa mezua. Seinuoï sinbolo deritzaie eta, Neolitozko gizakiaren asmakisun dira.

Neolitosko artegileak Paleolitoskoak baino soilago marrazten du aberea edo gizakia. Paleolitosko artegileak irudiaren benetasunaz nahi zuan abereaz jabetzea, Neolitoskoak, ostera, nahikotzat du aberearen edo gizakiaren eskema, antzaren benetasunari barik adierazkizunari ematen diola garrantzia, ikusten dena baino hareago begiratzten du erakusten duena. Sinbolo zale egin zan. Sinboloa bat eta ugari bai-da, ide eta ideka, ideki eta itxi, garden eta ilun, ikusgarri eta ikusten ez dena, beti ere poetika gaia, adierazgarritan adimenaren heziketa egiten duena, soinik gabeko idea ere oratu ahal dezakena. Neolitosko marraskilariak “eguzkia” adierazteko nahiko zuan aro bat marraztea edo *Utu* idazteko, aro gurutzatua marraztea, feniziar alfabetak bezala, *Utu* iduzkia joanez doan ardatzdun kurpila bailitzan edo, *Erra* erdian ardatz zuloa duen erroda, egitiar jeroglifikoetan agertzen den bezala. Idazlariak ere Neolitosko marraskigileen eskema jarraitzem du. *Inu/An* “zerua” antzetzten orduan arte berera joko du, zeru egia mendiekin edo piramideekin egiten duen gora-beherazko marra NM hizkien zirkunzarkuna izango bai-da eta sinbolo zehatzik ez duen *Ilu* jainkoari, ostera, *Ilu/ahal* ahaldunaren makila *l* egotzi zien seinutzat.

Gure asabek ere euskara hizkuntza asmakeran hots ahozkatuak zehazteko bakan ebaiten zituzten, lehenengo ariketetan monosilaboka egiten zituztela, marrazkileak trazo soiletan bezala, hizlariak hotsetan *hotz/hitz* aurrezkiea egiten zuela, *hotz* bakoitzaz hitza osatuz. Hagatik monosilaboz, ots, kontsonante bakarreko ahozkaduraz, deitzen die begiz ikusten dituzten lehen agerpenei: *Inu, Utu, Erra, Ilu* eta monosilaboz antzetzten eta bereizten haiekandik datozen lehen elementuak: *uin, su, aire, loi* eta gainerako analogiak. Horrela sinboloa bera da hitzaren sorgune ta harrobia eta ahozko hizkuntza asmatzen ari den adimenaren ariketa jokua, handik zehaztasunak egiteko, soin gabeko unibertzal

1^a laburgoa: OIHUZKOAK JAINKO ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	RA	ILU
ene/enei	otoi	ara/ario	(h)el, ely
ena	ut/ux/ate	ra/rau	iole/olé
inoo	et/eit/atx/aiz	aro/urra	(h)il
ainü	aida/ixo/iso	aira/aire	ola, alo
oïno	ujui/jo/oxte	arraio	ala
año	txut/zut/ostera	arre/eurt	ale/ela
aan	otian/utinam	arren	elas
ainintz	uxala/ojalá	arrano	alajina

Ohar: Euskal alorrekoak dira denak, banaka bat izan ezik, denak monosilabokak barrenekoak izan ezik, *arraio* eta *arrano* Erraren sorkariak aipatzen dituzte

abstrastoez barik, agerkari orokorrez serbitzatzten delarik.

Antxinako kosmologia euskararen oroitzarekin bat dator, giza iruditeriak begien aurrean irudi eredu behar duela jakiteko eta hain ugaritasuna ondo biltzeko orrazia eta josteko orratza. Euskara bat dator hizkuntzak monosilabismo garaian eta eratan sortu zirelako eritziarekin. Sikiatrek giza barnean barrundatua eta hizkuntzalariak ustez dinoena euskarak bete egiten du, baina euskara batsuren eta besteen eritsietatik ate doa, behin-behineko lau elementuei izen monosilaboa ezarri eta haietan hizkuntzaren lehen eredu edo arketipoak aukeratuz. Paleolitosko gizakia marrazkiaren biribilaz aberea oratzeko lain bazen, erritoaren arian dagerren hitzaren magiak ere *esan/izan* arteziaz lortu ahal izango zuan ahoz esaten zuena itxura baten egiztatu ahal izatea.

Iziartxok ere aho beteko soinuaz estrainatu zituan bere ezpainak gurasoen poz eta harridurarako “ama”, “aita” ahozkatzean eta nahiz bere baitan ez izan *An* “zeru”, edo *Utu* “eguzki” eredu goitarren berri, antzinakoen jakinduriatik, *An/ama, Utu/aita* eredu egokia, hagatik beretzak *ama/Ama, aita/Aita*, bere beteko izen propioak dira eta amets pozkorak izaten ditu amaren altzoko zabala sentitzen dueno eta eguerdioro aitak agur ozenaz “Iziartxo” deitu eta irripartsu besoetan gora jasotzen duenero.

1.5. Sinboloak otoitz-leku

Sinboloak jainko izenak zirenez, jainko izenok etxean *Ama* eta *Aita* izenak bezela, erabiliak izan ziran antxinako asaba jainkozale haien espainetan, gizakiagan beti gelditzen bai-da umekoa eta hareago jakinduria zahar edo umetzaroko kulturari. Jainkoari zerura edo bere santutegira begira egin deiak dira lehen otoiak. Zeru egia mendiaren hurbil ikusi nahi du otoilariak eta, ahal dueno, jainkoarekin topo egitera mendira igon. *An/Anu/Inuren* mendiak alduenak izango zira, hagatik *Ainamendi*, *Ainomendi* edo *Inumendi* deitu eta euskarak harrigarri gorde ahal izan ditu euren izenak, *Inkoren* santutegi eta otoi leku izan direlako.

Kosmologia zaharreko lau elementuen izenak oinarri onak dira, baina teologia zaharreko dei otoiak oparago azaltzen digute giza barna: *Inu/enei*, *Utu/otoi*, *Erra/ara*, *Ilu/il* adibidezko andanean. (Ikus ereduak 1° laburgoan) Hareago, kosmologiak *uin*, *su*, *aire*, *loi* materia hutsa diren gaiak adierazten dizkigunarren, Sumerren eta Egipton haien egileak jainko eta nor agurgarri ziran eta giza tankeran antzesten zituzten, gurasoen antzeko, hain zuzen, eta umeen inziniak entzuteko adi eta abegikor. Ez zuten gurtzen materia, materia zurrunka ez bai-du bihotzik, ezpaere materiazko elementu ikusgarri haien ostean izkututzen zen jainko familia bizia.

Sinboloen garaian, eta uriko erlijioa errito apainaz ornitu aurretik, sortu ziran sinbolozale gizaki beraren bultzadaz oihuzko lehen deiak. *Inu* jainko zaleak, arriduran *inoo!* edo *enei!* esaten zuan/du, ezintasunean, *ene!*, *enei!*, *ainü!*, *ainintz*; arriskuan *aan!*, pozaldian *añó!*, baikortasunean, *ena!*, etab. Euretariako batzuren edukina eskabideko aienea da, *enei* “erruki nitaz” edo norbere buruari egin opa, *ainü* “baneunka”, *ena* “benetan dinot”, *aan* “zer izango?”, *ainintz* “balinba”, etab. *Ino* edo *aiene* guztiok *Anu/Inu* dute *onu unibertsal* eta gainerakoak haren *nini* dira. *Inu* zeru-magalaren antza duen *ama* da (Ikus 15 or.) eta hari *ino* egitea *Inu heinera* edo *Inu mimatuz mintzatzea* da.

Oihusko batzuk baserriko emakumeen ahotan ohiturazko esakerak bezala irauin ahal izan dute gaurdaino, beste batzuk itzain eta mandazaien ahotan, ez agian hainbeste kaleko mintzairan, eta

idazlariak ezaintzat dituzte edo ostaz ezagutzen euskara baitako bihotz pilpirok, gramatikariak ere ez bai-dakite ziur monosilabook oihuak ala agintezkoak diren forma hoietariko batzuk, esaldi luzeagoei ere “oraciones gramaticales” deitzea ere ekidin bai-zuten.

Ohartzekoa da, hala ere, Iziartxok ama astigetugandik gurari-txoa lortu nahi eta ezin duenean, *Ama* izenari egiten dizkion eregu eta soinu jokuak. Soilik *Ama* deituz amak jaramonik egiten ez diola, ohartzen denean, Iziartxok soinu berezia ezarten dio *Ama* izenari: *Ama*, *Áma*, *Ámaá*, edo eta *Amátxu*, *Ámatxu*, *Ama-txúu*, etab. Ba daki, halako ereguz amak goiz edo berandu, jara egingo diona. Deigun, bada, Iziartxoren unibertsoa, edo zerua, ama dela eta Iziartxo bera, amaren umea. Halatsu ziharduan giza jainkozalea ere bere Jainkoarekiko harremanetan.

Utu jainkoa zaindariari *huita* egin nahi zionak *otoi!* oihukatzen zion/dio, *otian*, *uxala!* buruari zerbait opatzean, *jo*, *ujui!* pozetan, *ut*, *ostera!* astoratzean, *et*, *tia*, *ate!* aurkatzean, *atx*, *txut*, *zut!* ots egingo saminean, *aida!* idia oldartzeko, *ux!* uxu-oiloak uxatzeko (Ikus idia eta usoa *Utu* jainkoaren lagun 25 or.), *iso!* samaria geldiarazteko, *ixo*, *isi!* jendea isilazoteko. *Huita*, *oihu*, *oju*, *ots* guztiok *Utu iduzkia* dute *itu* bakartzat, *Utuk otatik*, *ide totalarena jotzen* bai-du, gainerakoak haren *eduko atalak* direla.

Utu ez da *total* abstratoa, *aitzitik* bai denen begiek *so* baten *jo* dezaketen *itu* eta *edua*³. *Uturi huita* egitea *otoitz* egitea da beraz, eta *Uturi hotz* egitea *hitz* egitea, *ots*, *Uturen edura hitz* egitea. Norbaitek *otu* orduko, han bai-zan *otoia*, *otu/otoi* dator hagatik hizkunez, elkarrenak eta erabat berezi bai-dira, zentzu eta mintsaditzak bezala. (Ikus 4°,5°,6°, laburgoetan) *Uturen* santutegiak eguzkiaren sartu-urteneko mendi-ateak ziran eta mendion izenak *Otoiomendi*, *Otamendi*, *Otxomendi*, *Itxumendi*, *Sumendi*, *Zumendi*, *Ozamendi*, *Auzmendi*, etab. dira. Eta eguzkia haren pareko zenean, goizeko edo arratzeko *otumen* eta *otoien* ordua zan.

3 Sumerreko eskola *Uturen* edupe zegoen, hagatik *eduba* deitzen zioten eta *itauna/itun* hizkunerara *doitu* eta *dulabre* egiten zituen *dotore* eskolatuak. (E. BERGMANN & “Sumeri”, Enciclopedia Cattolica, o. c., p. 1503)

Inu eta *Utu* Sumerreko arketipo biokin gure asaben euskara osatzen joan, zerua eta haren iguru giratzen duen eguzkia zutela hitz ariketen arbeltzat. “*Eguzkia nora, zapiak hara*” edo eta, “idea nondik, haren soinutik” josten zituztela⁴. Geroago, inguru haretako beste herrien aintzin ereduak ere bere mintsora lotu zituzten.

Eguzkia Egipton *Ra*⁽⁶⁾ zenez, hitz bikoitzak, maiz idea bera errepikatua bildu zuten sinbolo beraren soinu sinonimoan, batez ere mugitze eta ekintza adizkeretan. *Utuk* egunero *edatu, sortu, itxartu, atzarri, itoitu, atera, idegi, ixiotu, tolau, etorri, itzuli, jo, jun, joan, otsi, atotsi, atatu, sartu, zulatu, zuntzi, zipertu, dzangatu, ito/itto, ostu, ostendu, utzi, itxi, itzali, iduli, itxungi*, etab. ariketa egiten bazuan, *Erra*, ez zan hare gutxiago izango, *arre, urt, urten, ortu*⁽⁶⁾, *erten, arintu, arraunatu, arribatu, erdu, ire*⁽⁶⁾, *ruo*⁽⁶⁾, *roo*⁽⁶⁾, *rolar, arretu, areatu, harrotu, erori, ertu, ortzi, ertzi, hartu, arrakalatu, irauldu, erio, eriotu, arrobatu, harrapatu, iraungi* nabaritzen bai-zan gure asaben begitantxinoan, euskarak egizatzen duen bezala.

Errari erregu egiten zionak eregin ere egin behar zion haren eredutik *ersu*⁽⁶⁾ “erresa” errezu eratzeko: *ara!*, *Erraz* harrigarrituz; *arren!*, haren errukia aurkituz; *ra, rau!*, abidan aurreratuz, *aire!*, aurkakoaren erdeinuz; *arranoa, arraioa!*, eragozpenak ertzatuz, *aira, arre!*, zamariak arreatzeko, *urra!*, oiloei deitzeko, etab. *Erra* zelarik *eredu orokor* eta enparaduak haren *haur*. Galdetzekoa da, zer dela-ta etxeko abereei jainkoen erduz hitz egiten zitzairen. Abereak, berez, jainko sorkari izanez, eta gizakiak berekotuz gero ere, ohiturazko hotsa hobeki uler zezakelakotan, agian, gizakien hizkuntza oraindino gizatasunez jantzi gabe zelako. Adibidez, Iziartxoren amak *urra*, barik *kurra* deitzen die oiloei eta forma batetik bestera gizaldi askoren aldea dago, azalduko dugunez.

Errak ere bere santutegiak zeuzkan *Aramendi, Armendia*,

4 Sumer eta Egiptoko apaizek izendegi zerrendak egiten zituzten enziklopedia antzera orduko jakintzei buruz, tokizenak, landaretza, gramatika, etab. Sumerren K.a. 2600 baino haragoko ohituraz egiten zituzten hiztegiok. Halako zerrenda batek *An/Anum* berdinketaz hasten da eta 1970 izen ditu jainko bakoitzaren sendiko izenei eta haien kalitatei buruz, etab. (LIMET, H. “PANTEÓN (religiones mesopotámicas)”, DR. o.c., p. 1357)

2° laburgoa: NOR IZENORDEAK ARKETIPOZ ARKETIPO ANALOGIZATUAK

AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AS
en/ni/no	tu/tou	er/ar	auli/lui	ego/eketa	ber/ba	txeje
mi/me	tto/txo	eurak	le/la/eli	gu/kau	beste	txeia/che
nor/inor	ti/zu	ura	ille/él	qui/quién	bat	zein
eni/mihi	tui/tibi	ari	lo/los	cui/cuyo	vobis	sibi/si
nos/noster	ode/zoin	ori	allelon	gure/ekeien	vos/vester	sfeis/sfon
nemo	deus	urlia	alter	ekeinos	hic/hoc	se/ses
neure	su/zure	euren	illius	kori/que	berendia	ése/éste
mengano	zutano	urlain	alako/algo	ako/cosa	afulano	sandia
nada	uts/todo	rien	ulain	quaedam	pan	zer
aina	autos/tal	eren	alguien	aquel	bera	zerbait

Ohar: euskara, latina, grekoa, alemana eta erromanikarrak altxor beretik uztiatzen dira.

Erremendi, Urrimendi, Orromendi, Orimendi, etab. eta, izenen *orro/orho* edo *orazione* oreka eta ordua emateko mendiak ziran.

Hona, dui, hiru, lau izan zitezken hasiera bateko lau zenbakiak eta *Ilu*, hatan ere, laugarrena, jainko nausien artean. Lehenengo biak Sumer eta bere inguruko herrietakoak, hirugarrena, Egipto eta bere kutsukoena, eta azkena, Ugaritu, Fenizia buruko ugarora eman urikoa. Ugarituk biziki dramatizatu zuan alde batetik mortuak behartzen zuan agortea eta bestetik itxasoak ostutzen zizkion marinelen indarra⁵. Alde batetik *Ilu* ahala *ala, iole, ole!* alabatzen zuten asabek, *ela, ale!* alaitzen ziran orduan, *alajina, alajainkoa!* lagungarriak sokan jartzen zituzten larrialdian, eta *hel, elas!* elekatzen zioten ahuldadean eta *hill!*, ezineko hilduran. *Iluk* itxas ondo edo erreka ondoan zituana bere santutegiak. Hala *Uliamendi, Olamendi, Lumentza, Montoliu*, etab. Euskara gizaki bakoitzaren baitako kinken lekuko da eta bere “memoria” herri askoren hotsak joritzen dute, beraz, euskara berez idekia da.

Iziartxok ez du aztutzen amona betiko joan zenekoa. Amonaren goxoak erakargarria egiten zuten Iziartxoren oroitzan eta “non da amona?”--Jainkoak eraman du zerura? --Ez al da etorriko gehiago? --Ez, laztana, hil egin da-eta”. Eta amona eramateko edo hiltzeko inor izan den Jainko hori badaezpadakoa egin zi-

tzaion une batez. Eta Sumerretik hona muker-susmo ber-berak itxurgatzen zuan arpegi bako jainko hau, ustez *alatz*en duen jainkoa *alakatzea* edo *alabatzea* maiz lan nekeza egiten zitzaie⁶.

1.6. Jainko izenak sendian

Seme-alabei gurasoen izen-abizenak ezartea bidezko ohitura da, bakoitzaren *izen/zein* zeintasuna adierazten bai-dator hizkunearen jakinduria. Sumerreko ustetan gizakiak Anu jainkoaren unetik sortuak ziran⁷. Hagatik dator, izan ere, *Anu/un* hizkunez eta giza sendia jainko sendiaren jarraipentzat hartzea eta seme-alabak izatea jainkoen dohaintzat zuten Sumerreko jakindurian: “Emaztea hartzea gizonen ardura da, baina seme-alabak izatea jainkoari dagokio”⁸.

Lehenengo eta behin argitu behar da *Eni/ni* naizela eta *Utu/zu>yi>hi*, haizela, emaztea, *no*, senarra, *to*. Era berean, argi dago *Erra/era/ura* dela eta erdaldunentzat *Ilu/El, él. Inuren ninia ni* izatea erroko bidea da, eta berdin *en, eni, neu, mei, mi, me, meu, moi, noi*, etab., hizkuntza bakoitzak oroitzen duen umetzaroa, erromanikoek ere NOREN/NORI kasoetan oroitzen dutena. Lacan sikologista harritu ere egiten da *je⁶⁷* pertsona nortasunez nahiko zehaztu dagolarik ere, nongo “inconsciente” ilunetik-edo atera zezaketen frantxesek *moi* horren *nitasuna* galdetzean.


Iziartxo ere amaren altzoan dagoeno, amaren magaleko burua eginik, ekuru dago, “zurea enia, enia zurea”, baina beste norbait da eskolako laguntxoaren artean, andereñoak bereizten duenean, eta batez ere, margozko bere arkatzen jabetasuna zaintzean “neurea da” astoratzean. (Ikus izenordekoen andana 2° laburgoan)

Era berean, *ni/hon* hurrengo nortasuna, *to/dui* da, *Utu/to>tto>txo, zu>su, zeu, soi, sí, yi>hi* bai-dator bigarren pertsona adierazten: zeruaren hurrengo, alegia, haren inguru dantzatzen den eguzkia. Eta, hain zuzen, *Anu* zeruak bidaltzen du *Utu* iduzkia, mundua

6 LIMET, H. “Demoniología (religión sumeria y acadia)”, DR., o.c., p. 416-7

7 *Anu-ren une=muineko, hain handia bai-da haren indarra*” esaten da Enkiduz. (*Gilgamesh*, I,III, 4ss, ANET,72-79,83,90-92-97, 514-515).

8 *Provervios de la colección sumeria I*, 160, DB, n° 26.



An sendia: (ezkerretik eskumara) *An*, jainko *handi*, *Enki* eta *Utu*, bidalduek, *Inana*, alaba eta *Enlil*, ordezkaria. *An-ek Enki, ud* gozoen antolatzailea, bidaltzen du lurrera, honi sorbaldatik erreka bi darizkio, Eufrates eta Tigris, amorrainsuak. *Utu=iduzkia* mendi *tartetik ateratzen* da, *atxak itaika zulatzen* dituela; haren berotan *Inana*, maite jainkosak frutaki mordoa soldutzen du. *Enlil<An+Ilu*, mako eta gezidun, gizakien *adu-erabagile* da. *Uturen adore* eta *joria uduri* duen *udu.ha⁶⁵* “*idia*” eta *uzu⁶⁵* *utsean uzi* den usoa, edo *uden* gaineko Jainko espirituaren *iduria* rabinoen eskolan. Cf. *usu/uso* Biblian ere agertzen den iduri ezaguna (Mt 4,16). *Leoia Enlilen* lagun da, atzizki daraman *Ilu* arketipoak berekotzen duela. (Seilu baten *iduria* (2.300 K.a), *Historia de las civilizaciones*, Vol.I, Larousse, 1996, p. 54)

barranda dezan (Ikus 25 or.) Izenordetan, beraz, *no Anu* antzeko eta *to Utu* eduko direnez gero, ez da harritzeko umetzaroko kulturen amak eskutik zeuzkala etxeko giltzak, aita joan etorrian zebilen artean, amatasunean zetzalako ama-agintzea.

Hizkuntza ahozkatuaren antolapena sumeriarrek hasi zuten gero, parterik onena hartu zuten euren jainkoentzat eta hirugarren nortasuna kamitar-sematar kulturen arteko jainko sortzaileen arteko eztabaidan gelditzen zelarik. Euskarak hurragotik jarraitzen du *Erra* eredia, *Ilu* leinua baino. (Ikus 2° laburgoan)

Amak eta aitak ere seme-alabak izan zituzten eta *An/Inu* jainkoaren omenez, *une, nini, aina, anai, neba, amona*, etab. deitu zituzten eta *Utu* jainkoaren deduz, *oto, ato, atso, aiton, osaba, izeko, izeba*, etab. eta familiar ezagunak ugaritzen joan ziran. *Errarren* ohorez, *haur, arreba, errain, erren*, eta *Iluren* lorian,

alaba, loba, iloba, lioba. Jainkoen bigarren belaunaldirako bezala, izen monosilaboak amaitzean, jainko eskondu biren arteko arketipoak konpontzen ziran, *aiton, errain*, adibidez, edo jainko eta gizakiaren arteko nastea onartzen, *osaba, alaba*, bezala. Ohar *neba, osaba, arreba, alaba* zerrendan, lau jainkoen ereduak aurrizki, *-ba* gizatasun gisara lotu eta aglutinatuak.

Eredu bakarreko izenetik eredu bikoitzera gizaldi askoren unea dago, jainkoen gizaldiak iraunkorrek ematen zirelarik. Lehenengo seme-alaben izenak izen arruntak egin ziran eta orduan bakoitzarentzat izen bereziak asmatu zituzten bide beretik: *Ania, Naia, Ane, Naina, Inanna, Munia, Unai, Ennio, Eneko, Enigo*, etab. *Anu/Inu* antzeko direnetik, *Oto, Otia, Otxoa, Aide, Toda, Odon, Dona, Andu*, etab. *Utu* eduko direnez, *Aroa, Oriá, Aira, Ortzi, Ursua, Urrika, Erika*, etab. *Erra/Horus* ereduakoei eta *Olaia, Iliá, Lía, Laila, Leda, Laiene, Lino*, etab, *Ilu* leinukoak direneri.

1.7. Arketipoak, antxinako ereduak

“Arketipo” deitu antxinako ereduak ezagunak ziran gnostikoen artean. Platonek goitar mundukotzak zituan eta zenbat eta abstratago eman, hainbat eta benetazkotzat ematen zituan, giza irudimenean kabirik zeuskaten ideak, osterá, hutzalago. Baina zentzuen bidez lan egiten duen giza adimenak nongo zurubitik jo zezaken idea goitarron erreinura? Beharrezkoak ziran sinbolo ordezkariak eta eurenkandik sortu eta taxutu iruditeria. Honetan psikologistak bat datoz, baina ez hainbestean arketipo hoién izantasuna zehaztean. Eskolastikoen ustez, arketipoak mundua sortu zuten idea behinenak ziran. Baina zer dira arketipoak?

Psikologistetan Jung autoreak garrantzi handia ematen die arketipoei, baina giza baitako ostein, subkonszientean eta talde kordegabetuaren lezan ikusten ditu, gau ilunaren kide eta ez, Goetek bezela, gau iluna argitzen duten zuzidun ama-ideak antzo. Gizaki baita *arima* eta *alimu* da erabat, Jungen gardiz, bata amaren itzaleko eta bestea aitaren eguerdiko bailiran. Arima da nonbait bakoitzaren nor osteko arketipoen kabia eta talde ohargabetuaren irudipen orokorren oroitzaren jabedun.

Arketipoak giza ahalmenak gorputz eta arima mugitzeko gei omen dira, aipatu autorearen ustez. Arketipoak taldean ernaitzen direnean, arriskutsu gerta omen ditezke, haien funtzezko argia galdurik, itxurakerian lerra daitezkelako. Hagatik beharrezkotzat dauka giza burubideen sorgu diren indarrok sinboloen eta mitoen arian aztertzea, jainkotasunaren eta gizatasunaren arteko ezkontza asmoen gidaz. Jakinduria zaharraren arabera ere, “alperrikoa baيدا errekan soina bustitzea, urak nondik datozen galdetu barik”. Horra, bada, mitoaztertzea psikoaztertzea ere ba den, eta beraz, gau iluneko mamuekin-edo topo egiteko bidurrez, euskara mitoaztertu nahi ez duena, ez da *euskara bere baitan* aztertzeke gei. Galdetu beztela, hizkuntzalariei, bai eta psikolinguistika zaleei, zergaitik ez diren hizkuntza bera mitoaztertzeke, gainerako giza diziplinek bide horretatik dagoneko mozkin ederrak jaso dituztelarik.

Jung psikologistak era bitako arketipoak bereizten ditu: “norbere arketipoak” eta “Bestearen arketipoak” edo berdin dena, “giza arketipoak” eta “jainkozko arketipoak”. Norbere arketipoak bere osotasunean ere Bestearen traszendentzian egokitu nai luke, arketipo bezala, jainkozko arketipoak zihurtatzen diolako osotasuna. Jainkozko sutan omen dago gizakiaren gorputz eta arima, Jainkoa bere ostea edo itzala bezala izaki, “sokratua” deritso eta giza arketipoak bere maite-grina eta indarkeria jainkozko arketipoaren mendean jartzen duenean bilatzen omen du berarizko ardatza. Orduan lortzen omen du nortasun zehatzaren jabe izatea, norbere banantasun eta bateratasun indarrak ekiditzen dituenen, “konberzioa lakoá” gertatzen bai bai omen da beregan, “psikogenesia, antropogenesiaren barnean”, Jungen arabera.

Gizakia “mito bizia” dela dino Jung sikologistak eta bakoitzak barne mitoa idoroten ez dueno ezin ditzakela uler gainerako gizatasun mitoak: norberetasuna norberaren mintzoz esaneko berba bereziaz egiztatzen bai-da. “Mito bizia” deritso halakoari, antxinako hitza, gizakiari helburu berezia adierazten dion hitza eta egia, giza arketipoak jainkozko arketipoan lortzen bai-du bere beteá.

Euskara ere antxinako hitza den aldetik mito bizia da, eta harego, antxinako mito eta sinboloekin topo egin eta elkar ulerten dakenez gero. Hare gehiago, “euskara mito bizia”¹⁰ da, gure talde kordegabearen oroitzak berbizten laguntzen digulago. Psikolinguistek eta soziolinguistek pentsakisuna hala hizkuntza zein den lehenago eztabaidan jardungo dute ostera ere. Genetistek berezko zerean jartzen dute mitso ahalmena, gizakia bere oldez hitz berria asmatzeko gei ezpailitzan eta giza “baita” *psikhe* mekanika utsa baino ez asko gehiago.

1.8. Norbere arketipoak

Euskararen ereduak mitoaztertzean, kosmologia zaharreko hastapenekin topo egin genuen. Euskara bide, hastapenok, zer diren ezeze, nor ziren azaltzean, jainko sinboloak eta antxinako hizkuntzaren arketipoak zirela konturatu ginen. Bachelard sikiatrank materiazko elementuok gizakiagan duten eragina aitortzen du, hastapeneko elementuok giza iruditeria inutzen eta, lau iltzez bezela, gure buru zolan josten bai-dute. Baina nahiko al ziran lau iltze eginkizun eskerga horretan?

Jung psikologistak pauso handiak ematen ditu sinboloen eta arketipoen bidetik eta giza nortasunari begira, bere nitasunean, arketipoekiko tirabira, burruka eta konponketa susmatzen duenean. Jung autorearen terminologiari jarraiki, zer azaldu diezakigu euskararen egiturak edo “euskara mito biziak”, hau da, ze parte dauka gizakiak jainko idearen sorkuntzan? Zerua al da, edo lurra? Sua ala airea? Kosmologia zaharraren hastapenak asmatu zituztenek, antropologia zaharraren hastapenak ere asma zitzaizketen eta euskara mitoaztertuak oroimena argituko digu, euskarak izadi orokorraren arloak eta aldiak jainko arketipoez izendatzen bai-ditu eta haietan gizakiei dagozkien parte xedatuak, giza arketipoez.

Nondik sor zitzaizkien gizakiak norbere arketipoak, kosmologia zaharreko gaietan partekide izatetik ezpada? Bera ere *kai* bai-da eta *kaizua* du soinean, gogoaren *kabia* bailitzan eta gogoia erakus

10 “Euskara, mito bizia” F. Zubiaga, *ELEIKER* ikerketako titulo bat da.

3° laburgoa: OIHUZKOAK ZAZPI ARKETIPOEN ARABERA

AÑ	UTU	RA	ILU	KA	BA	AS
ene/en	otoi	ara/ario	el/ely	ka/quia	ba/bua	asa/ajai
enei	ut/ux/tira	ra/rau	olé/ióle	ako/eko	bea/vae ⁽¹⁾	jau/zaust
iñó	txut/ixo	arrano	(h)il	gelgora	ave/afa	jas/txen
oino	eteit/atx	arraio	ola/alló	gero/coño	but	chao/txek
año	uju/ujui	rayos	ala(h)	agur	eup/vah	xapi/zape
ainü	otian,utinam	aro/urra	elas/alto	kaixo	hip ⁽⁶⁾	txist
aan	zut/aida/tus	arre/aira	ale/ela	kontu	vaya	esti/este
amen	úxala/ostera	arren	alajina	agian	balinba	ezbe

Ohar: Oihuzko deiotan euskara, hebraiera, latina eta erromanikar hizkuntzak dagertz

teko *gai* denetik. Egipton *Geb* da “lurra” eta Sumerren *ki*, parte-ki datorrena, hain zuzen. Egipton *ka* zeritzaion *ba* giza bizigarriaren *kabia* den gorputzari¹¹ eta giza irudiei, beraz, *Ka* sinboloa aurkezten zuan jainko arketipoen batzarrean bere *Kai gaitasunen* ordezkari, eta *uin* inotsiaren *ibaia* sainenetan barne bizi zuenez gero, *Ba* sinboloak ordezkatzeko zuan bere *baitasuna*, eta bere biriak, *airearen* parterle, *asa asperatzen* zutenek, *As* sinboloaz ordezkatu zuan, errietoaren arian lortu *santutasun* adierazgarri, jainkoen batzarre heinerako eskakizuna bai-zuan. Gizatasun sinboloaz hizkuntza arketipoak osotasuna egiten zuten: lau zeruko, hiru lurreko, zazpigo: zenbaki biribila haraz gero. Jainko arketipoak eta giza arketipoak zeruko eta lurreko gauzez mintzatzeko prestatzen ziran, gizakia ere bere arketipoen bitartez mitoetako nor burutzen bai-zan.

11 *Ka*, *Ba* y *Akh* dira Egipton giza konplexuaren baloreak ordezkatzeko dituzten arketipoak. *Ka* hiltzan, *Ba* kabe, *kabi* gabe, non koka ezinik, alderrai dabil. *Akh* hastapenak aintzaren duin egiten ditu zenduak. (J. Lévêque, *Sabidurías del Antiguo Egipto*, o.c., p. 11) *Ki*⁽⁶⁾ “lur, *egi* “zeru-lurren arteko”. *Ba* arketipoa euskarak oroitzen duen ohiuzkoa da “ene *ba*/ene *bada*” esakeretan eta zentzu berean egitiar literaturak: “oh *ba* mio” (*El Diálogo desesperado con su ba*, 17, DB. n° 26) *Ba psykhe*⁽⁹⁾ da “baita, barne” adierazten. *Ats/As* hastapena, aitaderak *atsa* ematen bai-zion besoetakoari izena ezartean eta, beraz, errietoaren eraginetik datorren jainko bizigarria da, “santutasun xit zehatza”, *zi*⁽⁶⁾ Sumerren, santutasun arrunta *kù-g* zen bezala (RIES, J., “SAGRADO”-2. La expresión de lo sagrado en el mundo sumero-babilónico”, DR., o. c., p. 1577-1578)

Jainko arketipoetatik giza arketipoetara, izadizale kulturaren alditik gizatiar kultura dagoen aldia dago, beste era batera esanda, kultura zaharretik kulturara barriarakoa eta hizkuntzari dago-kion terminologian, sinbolotik mitora dagoen aldia, edo bardin dena, monosilabismotik aglutinatura dagoena, eta psikologia esparrua aipatuz, umetzarotik adinera doan aldea.

Iziartxo ere lehen amaren gonetan zan, baina, jaunartzeko jantzi zuria estrainatu duenetik, soinekoan nabaritzen du bere nortasuna. Berak ere beretzako bakarrik nahiko zuan aitak, eguerdian etxeratzen zenean, lehen egiten zion harrera, orain, ostera, lehengo laztanak eta apapak Aitor nebatxorentzat ziran. Non da, bada, itzalik ez zeukan hako “izar distizaria”? Iziartxo nortasuna bereizten doa etxean eta jaunartzeko laguntxoan artean. Dagoneko bera “neska handia” da eta mototxaren petik argi berriak izekitzen zaizkio.

1.9. Norbere arketipoen esparrua

Euskaldunak norbere konplexuan, *Ka kai>gaitasun* arketipoa idoro aurretik, *soin* ta *muin* bereizten zituan azal-barneak beragan, nahiz eta hitzon fisikotasuna, jainko arketipoez esanda, aberediganainono edatu sumatu. Orain, ostera, bereziago dakus nortasuna bere *kai* eta *ba* denaren *kabian*, soilik bere baitako ez dela aitortzen duenarren, “*ez bai-gara geure baitan, beste Haren baitan baizik*”. Bere *Ka*, jainkoen orura jasorik, haien kide *gortzen* da *Ka+oru>ekur*^(s) “mendi santutegian”: horra *Ekurmendi>Egurmendi*, *Koromendi*, *Goramendi*, etab. izen lekuko. Gizakiak nortasunez berezi eta jainkoen santutegian parte hartzera eta norbere *kaizua gora igotera* lehiatu da, *ekur/gora* bai-dator hizkunez, hango *gorkuan guruak/agureak* hurragotik *gurtzen* bai-du *hurko* Jainkoa. Bere kideko Jainko tokia asmatu duenez gero, aldia ere *Eki>Ekain* izendatu du, *Ekinamendi* santutegian.

Gorkuan bezala, hitzaren arteziaz jainkozko arketipo guztiek in ezkontzen da, lurraren goi-behak tokizenetan zehazten dituela: *An/kana>gana*, *haina/gaina*, *goi+ena>guena>kina>kin*, *gaindizten* da, *ota>kota*, *goiti>gotxi*, *goititzen*, *ara>kara>gara*, *garai>gari* *garatzen* eta *ili/ola>gailu*, *kale*, *gaila*, *colle>col* *gailentzen*:

horra *Kanamendi*, *Katamendi*, *Karamendi*, *Kalamendi*, edo *Akomendi/Egomendi*, etab. lekuko. Bide beretik jainkozko hitzei bere *kisako* arketipoa jartzen die aurrizki, ideak bere neurrira zehaztuz: *une/gune*, *aro/kairou*^(g)=*garai*, *oru/koru>goru*, *ile/kilo*, *loria/gloria*, *ume/kume*, *ona/kona*, *aintu/gaintu*, *ide/kide*, *itu/kitu*, *ari/ugari*, *anoi/geinhü*, *iza/giza*, *in/egin*, *ortzi/egortzi*, etab.

Bere nortasuna *agertzen* du izenordetan: *gu*, *ego*^(l), *eketa*, *ekein*^(g), etab. *egituretan*. (Ikus 2° laburgoan) Izen propioetan atzizki: *Eneko>Inigo*, artizki: *Nagore* edo aurrizki: *Koro*, *Akaintz*, *Ugutx*, *Graxina*, etab. *Giza korpitza*, *gihar* eta *gizen Ka gidako* izenez bere-*ganatzen* du: *uko*, *gara*, *kasku*, *gerri*, *gizen*, *gantza*, *kokotz*, *gibel*, *giltzurin*, etab. *Ka gida kisako* otoi *gedarrrik* ez dago, baina bai *gertu kideen* arteko *kaixo-agurrak*. (Ikus 3° laburgoan)

Ka arketipoaz ordezkatzeko du gizakiak *giza ganora* eta honez baliatuz, azaltzen *gogoa*, “arpegia arimaren ispilu” bai-da, eta Menfisko egitiar teologoek gisako barne *gorkuan akordatzen* du adimenaren *kortea*, *kardia*^(g)/*gardi* “bihotza/eritzi” bai-dator. Moda honen arabera, menditar hako santutegia¹² *ekur>korde* analogizatu zuan “sentzun, ezaguera, adimen” *gortetzat*¹³, nahiz ta barne taupaden zozkoari izenez “bihotz” deitu. *Ibaia* ibarraren *bizigarri* eta murmurio den bezala, hala zainetako odola eta *bihotzaren* taupada norbere baitan. Murmurio hori, “*bihotzean bero*, *abotzean gero*” eta, *bihotza/abotza* bai-dator hizkunez eta “*abotzean igarri bihotzean zer duen egari*” euskaldunen jakindurian.

Ba arketipoak, behetik edo *ibaiko* barkan ibiliz, barrendu du *bizitza bidea*, *ibaiaren* berdina, *ibai/bee>via* datorrela, eta *ibai* bidearen osteran, uinen itxasoan, *ibai/epai*¹⁴ hizkunez eta *epai/epe*.

12 “Bakoitza bizi bideetatik zuzendu (...) eta haren bihotza bere kaperan sartuazoteko” (*La enseñanza de Amenemope*, I,5, DB, n° 1o) CF: Bihotza gizakiaren tenplo barnean dagoen jainkoa bezala. (Bertako oharra)

13 “Eta gerta bezala, bihotza eta mihina nausitu ziran soin atal bakoi-tzean, jainko eta gizakien gorputz eta aboan bera (Ptah) dagoela irakatziaz”. (*Teología menfita de la Creación*, 53-55, ANET, 4-5)

14 Sua eta ura jainkoen zigorrrak izan ziran antxinakoentzat. Sumerreko mitoak uin eta su ugoldea gogoratzen zuan. Hagatik epaitzen du:>

Bat bidazti da, *unea/abaune* bihurtu zaio, eta *usa/pausa* hizkera gizatuan. Hasiera baten atzizki aglutinatu zan: An/Nabu^(bal), Utu/Su.ap^(s) “*sube kosmikoa*”, *aina/neba*, *oto/osaba*, *aita/izeba*, *Ilu/loba*, *Ala/alaba* eta geroago aurrizki: An/*van*^(al) “*Anen seme*”, Utu/*Apsu*^(a)=*butzu*>*putzu* “*Uturen seme*”, *Ra/bar*^(ara), *Girra*, *Farau*^(h) “*Erraren seme*” eta *Ilu/biloi* “*Iluren seme*”, *El/Beel* “*jaun*”. Jainkoen beste sorkariak ere ezagunak dira *Otxin/potxin*, *Adu/patu*, *Adar/padar*, *Ur/Ubur*^(s)=*Iburni*, etab. Handik izen arruntetara dator: *ara/bara*>*bahar*^(ar)=*ibar*, *ano/vinu*^(o), *anoi/penu*>*fenu*^(o), *ala/bala*, *aratz/baratz*, *aro/abaro*, *orue/borea*, *erdu/verter*, *atalas/plateia*^(g)>*plaza*, *uts/putz*, *urt/port*, *oste/post*^(o), *ostiu/posta/puesto*, *uri/burü*>*buru*, *ili/vila*, *ildu/bildu*, *iza/bizi*, etab.

Bere santutegiak: *Bamendi*, *Ibamendi*, *Beramendi*, *Belamendi*, *Basamendi*, etab. dira, bere jainkoak *Beel*, *Aberri*, etab.

Bere nortasuna *bat*, *batzu*, *bera*, *banek* izenlagunetan adierazten du eta *bi*, *bost*, *bederatzi* zenbakietan (Ikus 2° laburgoan). Giza soinak *Ba* bezako *berbak berritzen* ditu: *abo*, *bihotz*, *biri*, *bare*, *begi*, *belarri*, *buru*, *bizar*, etab. eta berdin *barro* adierazten duten *barrauke*, *barrío*, *barruti*, edo *buztinazko barreño*, *pitxar*, *baso*, *bonbil*, *bota*, *abortza*, *pertza*, etab. (Ikus sentzu, pentsamendu eta mintzo aditzak 4°,5°,6° laburgoetan)

As *xedeak* aurrizkiz, erritozko *santutasuna* gehitzen die lehengo hitzei: *ekua*^(s)/*esku*, *ekur*^(s)/*eskuri*=*seguru*>*zigur*, *ekuritu/zikuratu*^{(s)15} “*etxe goratu*” edo *Esagila*^(a) “*etxe gaila*” eta *Sakara*^(e) “*etxagara*” zeritzaien. *Zikuratera* joian Babiloneko *sentorala*, *santutegiko* *inda/send*a edo “*Vía sacra*”. *Santutegiko* *erritoak*, *eztituaz* *bezala*, *santu izate zehatzaz txertatzen* zituan fede berrian *hasiak*, *Inko*>*Xainko* edo *Enki*>*Xekina*^(ara) *Jainkoaren* ikono aurrean *exeri*

>“Norbaitek inor salatuz (...) jainko-ibaiaren ordera badarama eta ibai-jainko ordelariak errugabe epaitzen ba du, behartu zuenak urrezko hiru siklo ordainduko ditu”. (*Las Leyes de Ur-Nammu*, 13, DB, n° 15) Cf: *ordele*>*ordalia*.

15 LIMEI, H., “ZIGGURAT (religióna sumeria y acadia)”, DR, o.c., p.1856-1857. Cf: *ekua*^(s) “*etxe*”, *ekua+etxe*>*egoitz*, *etxe+ekua*>*esku*. *Ziggurat* edo *Zikkuratu*^(s)/*eskuratu* dator hizkunez, horixe bai-zan *Zikurat* tenploaren asmoa: *ekur mendi santutegiko jainkoa eskuratu mendi antzera jaso uriko etxe goratuan*.

4° laburgoa: SENTZU HITZ-ADITZEN ANALOGIA ARKETIPOEN ARABERA						
AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AS
<i>antz/antzi</i>	<i>so'sor</i>	<i>eri</i>	<i>lotsa</i>	<i>ikui/ikutu</i>	<i>abo</i>	<i>atz/atsa</i>
<i>min/miün</i>	<i>otz'iduri</i>	<i>aieru</i>	<i>ilusión</i>	<i>kusi/ikusi-</i>	<i>abotz</i>	<i>jasta</i>
<i>mixain</i>	<i>adi'audio+</i>	<i>eroiu</i>		<i>koiu/coger</i>	<i>voce+</i>	<i>txetu</i>
<i>mizto</i>	<i>othustan</i>	<i>orao+</i>	<i>olfato</i>	<i>agertu</i>	<i>voz</i>	<i>zentzu</i>
<i>mun' musu</i>	<i>otear</i>	<i>irri</i>	<i>labio</i>	<i>egi</i>	<i>begi</i>	<i>sensu+</i>
<i>entzun</i>	<i>otos'itxu</i>	<i>rinosa+</i>	<i>lengua</i>	<i>catar</i>	<i>boca</i>	<i>sentzun</i>
<i>mutur</i>	<i>odore</i>	<i>atures+</i>	<i>lambano+</i>	<i>captar</i>	<i>beatu</i>	<i>sentir</i>
<i>muzin</i>	<i>tentu</i>	<i>risa</i>		<i>gusto</i>	<i>begitu</i>	<i>saborear</i>
<i>ñaka</i>	<i>dendu</i>	<i>reír</i>	<i>oler</i>	<i>gozatu</i>	<i>begiratu</i>	<i>sapire+</i>
<i>mueca</i>	<i>tiento</i>	<i>eregu</i>	<i>oliscar</i>	<i>gustar</i>	<i>visu+</i>	<i>ezpain</i>
<i>nabari</i>	<i>dendatu</i>	<i>irudi</i>	<i>leer</i>	<i>gola</i>	<i>videre+</i>	<i>estarrri</i>
<i>notar</i>	<i>tentar</i>	<i>orru</i>		<i>gur'gor</i>	<i>ver</i>	<i>sama</i>
<i>nozitu</i>	<i>tocar</i>	<i>orroí</i>		<i>glotta+</i>	<i>vigilare+</i>	<i>sema+</i>
<i>mirar</i>	<i>sudur'sordo</i>	<i>urruma</i>		<i>glotis</i>	<i>vista</i>	<i>esku'skia+</i>
<i>mirigin</i>	<i>usna'usmo</i>	<i>irrintzi</i>		<i>gortu</i>	<i>belarri</i>	<i>eskukatu</i>
<i>nasu+'nariz</i>	<i>susmo</i>	<i>eriaka</i>		<i>gesto</i>	<i>pulsar</i>	<i>escuchar</i>
<i>imitar'mimo</i>	<i>usain</i>	<i>irarri</i>		<i>keinu</i>	<i>apa</i>	<i>aztatu</i>
<i>imintzio</i>	<i>zunda</i>	<i>remedar</i>		<i>giño</i>	<i>beso</i>	<i>santzu</i>
<i>manosear</i>	<i>somatu</i>			<i>geno+</i>		<i>señalar</i>
<i>enkein</i>	<i>destatu</i>			<i>garatz</i>		<i>seinu</i>
<i>annuere+</i>	<i>idatzi</i>					<i>signu+</i>

Ohar: Latin eta grekar hitzak +, eta Antxinako Sortalde Hurbilekoak * seinua daroe

edo *xaiki*, *eskuartzeko eskubidez*. Horri *esan* zioten *hizkuntza askotan izpiritu*¹⁶ *berriko iza(n)=esse*^(l), *zi-d*^(s) “*santu izate zehatz*”, *as* “*bizi arnase*” edo *behin-behineko esia*.

Esi-tik>*exe/etxe*, *esitu*>*exido/sitio*, eta *eza/etza/etzaleku*, *etzela*, *etxadi*, *zelaru*, *sala*, *sabai/sapai*, *escalera*, *eskantzu*, *eskaratz*, *eskepe*, *izkina*=*skena*^(g), *esola*, *txabola*, *eskola*¹⁷, *sjole*^(g)=*schola*^(l), *zatiak* edo *egiturak* dauzka *aldamenean*. *Etxekoak etxe*, *etxakona/ezaguna esaten* *hasi ziran* eta *sendi* *berrikoei sein*, *seme*, *señá*, *sene*^(l), *xaun*, *señor*. *Etxekoen izen bereziak*: *Xena*, *Xesu*^(ga), *Jesus*, *Sara*, *Jairo*, etab. eta *txe*, *txeia*, *je*^(l), *se*, *ese*, etab. *izenlagun etxekoiak bezala*.

As arketipoak *izadi jainkoak* *etxekotu egiten* ditu eta *haien eredu*-ko *izen zaharrak xedatzen*: *Anu/Xaun*>*jaun*, *Eni/jein*, *An/Shan*^(u),

16 As+*beratu*>*asperatu* eta *as+biritu*>*spiritu*^(l) *parekide* dira. Analogiaz *esan ohi da landare* edo *mahatzaren uragatik espiritua* duela.

17 *Esku+ola*, *eskura dagoena*, *abereentzat zena gero analogiaz umeentzat*

5° laburgoa: ADIMEN HITZ-ADITZEN ANALOGIA ARKETIPOEN ARAUZ						
AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AS
an*/onua	otu/aitu	aieri	lotu	ikasi/kasa	epe/byn*	etsi/xede
ena/nous+	eita/ide	eritxi	lokatu	egia/gnoo+	bena	shama*
annuere+	idea/adi	eratxi	ligar	igarri	aburu	sen/seny
anze/antze	iduritu	aiesi+	olde	capere+	buru	jakin/scire+
antzeaman	eido+/sumo	reor+	oldoztu	gogo/gardi	barru	espen
antzi/emgy*	susmo/uste	oro/oar	ulertu	korde/auerdo	bulko	asmo
ames/ametz	juzo/juicio	urdu,	olvidar	kordetu	barrundatu	asmatu
numen+	üdüri/duda	iruditu	logos+	akordatu	barruntar	xabetu
mentu	aitortu	erratu	logizomai+	acordarse	parecer	sapere+
mente	dokeo+	oratu	listo	ogartu	begitandu	saber
nabaitu	dubito+	arte	lelo	ikertu	benaz,	ezagutu
analogizo+	tekuru/zio	argi	lerdo	gomutau	ber'vera+	aztertu
meno/ineo+	docto	oratione+	loka	gogartu	verdud	sinestu
memini+	solvo/zoli	arte	loco	gabzu*	verificar	aztu
memoratu	zogi/zuhur	argi	ilusio	geshtu*	burutapen	sabio
enterar	zorga	arrazio	elger	gezur	pensamiento	jakitun
necio/nece+	sotil'tonto	rason*	ligero	cabal,	bacilar	azkar
inozo	tuntun	raro		gurbil	pelele	sagaz
inanne+	zuntzun	ergel			burdo	

Ohar: Latin eta grekar hitzak +, eta Antxinako Sortalde Hurbilekoak * seinua daroe

Inu/Jeinu, aina/señá, Utu/Shedu^(s)>Xesu^(ga), Erra>zahar, ara/txarra>jara, aroi/saroi, atz/zehatz, harri/ezarri/jarri, arru/zerro, aurri/jaurri, barru/esparru, ele/sail, ala/sala, eli/zeli, Antu/santu, anotu/sanotu, aran/saran, arpe/sarabe, Inko/Xainko, Ande/Sanda, inda/sendá, enda/jende, inutu/jeinutu, biritu/espiritu, hainbat/zeinbat, eritsi/jauretsi, etab. Eta berdin giza arketipodun jainkoak doe santu bihurtu zituan: *Ekain/eskain, Gar/eskar*, erritoko hitzetan agertzen direnez, ekur santutegia *eskuria/securu^(o)>segura* eta *sacro* egiten den bezala. Etxakotu edo etxeko jainkoei eskeini santutegiak dira *Sandamendi, Jainkomendi, Eskanamendi, Eskinamendi, Eskaramendi, Eskarmendi, Eskuriamendi, Ezkurramendi, Sagarmendi, Sacromonte*, etab.

Etxeak berak zaindu-abereak edo *txertatu*-barazki-landare-tza bere *seinaleaz sailkatzen*, eta *esleitasun* kalitateaz *seinالاتzen* ditu. Jakinduria arloak ere bere *xedeko zentzu*, adimen eta esan aditzak aurreratzen dituela. (Ikus 4°,5°,6° laburgoetan)

ONDORENA

Umeak, ume daino, amaren altzoa du nahiko atsedean, orokortasuna zer den antzemateko eta aitaren besoetako indarra, ahalguztidunaren antza begien aurrean izateko. Adindu daiteneko, apurka apurka ulertuko du, ama eta aita bestelako ama eta aitaren ordezkari direla. Era berean, aurtzaroko kulturaren gizaki jainkozaleak jainko burua egiten du, bere nortasuna haren izenarekin ordezkatzean. Sortzailearen besoetan dago seguru, eta dei egiten dio zer jana haren eskutik izango duelakoan eta, haren esaneko, hasiko da noizbait lurra lantzen: Jainkoari eskatuz eta erabat baratza landuz.

Gizakiak bere lanaren frutua ikustean, bere eskuen indarrean ezeze, asmoen artezian ustea hartzen doa: bere eskuz landutako aleak eta barazkiak, izadiak berez ematen dituenak baino hobeak direla konturatzean eta berak txertatuak, gozoagoak. Azkenik jainkoen jakinduriaz zerutik urgazia izan dela konturatzen da eta sorkuntzaren jarraipenean gurasokide aukeratua izan dela.

Psikoanalistek gizakiaren ezagupide sakonerako, aurtzaro, gazte-zaro eta zahartzaroan emandako pausoak atzera ibili eta bakoitza bere giroan aztertzen dute, non erraturik dagoen begiratu eta utsu-neak bete eta emendatu ahal izateko. Hareago psikologistek gizakiaren barrena aztertzeokotan, ez diote iguinik egiten sinbolo eta mitoei, ez mitoaztertzeari, bai osterá, onuragarri ematen, euren arazoa zuzen psikoanalizatu ahal izateko. Azterketa honetan gure barne iruditeriaren harrobiak idoro dituzte eta nor bakoitza nola iristen den adinera, eta norbere eta Bestearen arketipo ereduen arteko tirabiran, nor bakoitz izatera heltzen diren, unean uneko berba den mito biziá egizatzen dituztela aurrera pausoak.

Psikolinguistek, ordea, gaur politikan eta soziologian burutzen dira, hizkuntzalarien lana genetikari egotzirik edo fonetikaren musikaz liluratzen direla, baina *hizkuntza bere baitan* zer den asmatzen ez dutela. Haren benetako genesisia zertan den antzemateko "hizkuntza mito biziá" ere ezagutu beharko lukete, gizakiak egundo sortu duen arterik bikainena idoro ahal izateko.

II. OROITZAREN ANTOLAPENA

Euskarak bezalako, ahoz-ahozko edozein hizkuntzak oroitzapenaren arazoa izan du hasieratik, gizaldietan denboraren igadurari aurre egin eta giza gomutako mugak aldien eta tokien gaindi ekidinez, hutsik gabe hasierako egitasmoari jarraitu ahal izateko. Ahalegin honetan euskaldunak memoteknia berezia antolatu behar izan zuan hizkuntzaren inguru, euskararen arteziak eurak direla oroitzapenaren bide. Ahoz-ahozko esakunak onartuz eta erritoko ospakizun, dantza, otoitz, kantu, joku, eta lehiaketan parte hartuz, barneratu ahal izan zuan asaben mezua soinetik muinera.

Iziatxok ere, adibidez, ikastolan “Lenengotxu hori” abestuala, ikasi zuan eskuko hatzamarrak kontatzen, eta leloa sukalderraino ekarri zuaneko, ama ere poztu egin zan, astutzat zeukan hako umetako abestia alabatxoaren ahotiak berriro entzutean. “Hau ere bada, alabaren eskutik akorda bedarra hartu behar izatea!”

Ahozko hizkuntzan esatariak buruz ikasitako testuez eskolazten du entzulegoa. Oraintsu arteko katekesia ahoz-ahoz erakutsi eta ikasitako testuez egin izan da. Testoon oroitzaren errazteko adigarri diren errepikak, hizkuneak, esakerak eta esenpluak erabili izan dira, erakasleak bihotzetik abotzera eman mezua, ikasleak abotzetik bihotzera onartzen zuela. Liturgizunek ere ahozko estiloa jarraitzen dute otoitzak ozen irakurtean eta, batez ere, buruz ematen diren hitzaldi eta azalpenetan entzuketik zentzuera joaz.

Ahozko estiloak erakusle-ikasleak soin eta muin elkar lotzen ditu oroitzaren sustriak indartzeko ahalegin berean, imintsioen gorpuzkera bera edo kantuen soinua idea goitarrak ulertzeko sinboloen lekuko direla. “Ondo berba egin du” ebasten du herriak, nahiz “zer esan du” nekezago erabagiten duen. Hizkuneak, esakerak, abesgaiak noiznahi errepidatzen dira. Hizkuntzaren antropologiazko lege honetaz, antzerkian bezala, bizitza arruntetik urrutiko dagozan uneak biziara eta bizitzako egiak ulertarazten dira¹.

1 HOUIS M., “Atropología del lenguaje”, DR. o. c., p. 98-99

2.1. Ospakizuna eta oroitzaren

Ospatzea oroitzaren da. Euskaldungoak urtean zehar egin izan dituen ospakizunei esker, gorde ahal izan du antxinakoen ohituraren eta siniskeren berri edo zurrumurrua. Inotea, adibidez, urteroko egiten den ospakizuna da. *Inote* izenari jarraiki, argi dakusgu *Ino+te* “Inuren garaia” dela eta honetan *euskara bere baitan* dugu hermeneutika aparta. Ospakizun eta izen honeri esker, jakin ahal izan dugu urartiarren eta euskaldunen Jainko zaharra berbera izan dena eta, halatan, gure ospakizunetako ohitura Sumerretik hasi eta Mesopotamiako beste herri haien senidea dena. Gure oroitzaren parte haiekandikoarekin topo egitean, gehitu egiten da ziurtasuna. Horreraz gainera, ba dakigu *An^(s)/Eni^(hu)/Inu^(ur)/Anum^(a)* “zeru” jainkoa hizkuntzaren arketipoetarikoa dena ere. Babiloniarrek ere urtero ospatzen zuten *Anum.zaru* “Anu-ren azaro”² zeritson ospakizuna eta euskaldunak *Ononzaro* deitu izan dioguna Jaiotza aldiko Gabon ospakizunari. Gure oroitzaren Sortalde haretakoekin zerikusia duen jakiteko, arketipo diren beste jainkoez galdetuz, egitura bereko andana bilatzen dugu: *Utu/Jote* “aurrera joteko martxa”, *Erra/Ereite* “erein ordu” eta *Arte* hatarako behar zen “*artezi* abagunea” eta familia bereko *Horus/Orite* “*orho*=otoi egiteko ordua” eta, azkenik, *Ilu/Olde* “ekintzarako bultzada aldia”. Aldia adierazteko arketipo bikoitzari jarraiki, *-te/-aro* euskarak beste andana oroitzen du: *Ononzaro*, *Subilaro*, *Oronzaro*, *Olentzaro*. *Aro* “aldia” esan nahi du eta *zaro* “hazia ereite ordua”. Erljio baloreak aldatu ditugunarren, *Ononzaro* edo *Olentzaro* ospatzen da eta *Inotea* urteroko ohitura dugu, nahiz noiztik eta zertarako den ez guztiz oroitu.

Hasierako aldiekin zerikusia zuten Sumerren ereite aldian *akiti^(s)* jaien ospakizunak. Mesopotamian Urteberriko lehen hamaika egunak *akitu^(a)* jaialdiak ospatzen ziran, hamaika egunok urteko hileen zoriaz zerikusia zutelako. Euskal Herrian *zota-*

2 *Anum.zaru* “Anuren sorkuntza”, *zaru^(a)* “sortu”-tik (LARA PEINADO, F. “*Poema babilónico de la Creación (Enuma elish) Introducción*”, o.c., p. 34) Cf: *zaro* “hazi, ereite aldia”, *azaro* “azi ernamin”, *Azaro* “erein aldia”.

3 LIMET, H. “AKITU (religión asiriobabilónica)” DR, o.c., p. 42-43

legunak < *totalegunak* deitu izan zaie egunoi urte guztiko eurien banaketa agintzen bai-zuten eta euskarak ere *urite* > *urte* “euri aldia” *Urte* izenaz hizkide egiten du. Babiloniako ohikunetariko bat Esagila tenplotik auzoko ekur santutegira *akitu* jaietako egin mendiketa zan eta nonbait menditar jainko zaharrak uritar jainko berriekin bateratze asmoa zuan *akiti*^(s) jaietako ibilketak. Euskal Herrian Urteberrez egin mediketak eskabide beraren arrasto dira nonbait eta *akiti*, *akitika* eta *akitu* hitzak hako aha-legendaren lekukotzat gordetzen ditu euskara mito biziak.

Ospakizun guztiok urtearen biran eguzkiaren kalendrera osatzen dute, jainkoek otoitzei eta gainerako ohikunei abegi ona eginik, herriarekiko agintzarien lehengo itunbena berriztu zezaten. Kristautasunak ez zituan gaitzetsi ohiturok eta halakoetan “legea bete dugu” esaten dute herkidetik, bizi itxaropena zati baterako eskuratu duenaren patxareaz. Antxinakoen erritua erdizka gordetzen duenaren, talde oroitza osatzen duten esperientziak dira.

2.2. Hitzzen arteko loturak eta oroitza

Edozein hizkuntzako hizlari batek hitz egiteko hiztegi berezia erabili ohi du eta oraingo psikolinguistek aintzat dute “adimeneko hiztegia” deitu hitz pila hori batek nolatan barrendu eta antolatzen duen jakitea. Bada, etorri oneko hizlaria izan nahi duenak, golpean hizketan hasteko, ondo gorde eta zehatz taxutu izan beharko ditu oroitzapen almairuan. Psikolinguistek almairu horren artezia ulertu nahiko lukete, baina ez dute zehatz antzematen. Hitzak bata besteengandik sortuak direla dinoe maisu batzuk, erro ugaridunetatik bezala, edukindun arketipo ala lokarri huts diren aipatu orduko.

Ar/har monosilaboak, adibidez, ba ditu euskaran bederatzi esangura: aberedian bi, barne analogiazko “barne arra” adierazten beste bi, azaleko analogiaz “ortzetako pipia” bat, landaretzan, bat, adierazteko izenlagun, beste bat, eta aditzaren zehaztu bako forma. Baina, era berean, *-ar* soinu berak atzizki, “leinua” adierazten du eta adizkeretan gertatu hurrean dena seinalatzen, bere esparrua gramatikaraino zabaltzen duela. *Ar* hori *logogenoa* dela

6° laburgoa: MINTSO HITZ-ADITZEN ANALOGIA ARKETIPOEN ARABERA						
AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AS
<i>aien, ino,</i>	<i>otoi'ots</i>	<i>erran'rogo+</i>	<i>ela'ele</i>	<i>kexa</i>	<i>berba</i>	<i>esan</i>
<i>oinon'onua</i>	<i>oska'ujui</i>	<i>erasi'erasa</i>	<i>auli'ulu</i>	<i>quejarse</i>	<i>berbatu</i>	<i>azaldu</i>
<i>unmos +</i>	<i>itun'itune</i>	<i>eresi'ersu*</i>	<i>lelo'laleo+</i>	<i>galde</i>	<i>balbucir</i>	<i>seger</i>
<i>inka'antzi</i>	<i>itundu</i>	<i>arenga</i>	<i>elaire'oles</i>	<i>uka'ukatu</i>	<i>abestu</i>	<i>silenciar</i>
<i>narrar</i>	<i>(h)itz'(h)eita</i>	<i>erregu</i>	<i>elegin</i>	<i>gezur</i>	<i>avisar</i>	<i>sesto</i>
<i>nuntio+</i>	<i>aitatu</i>	<i>eragon</i>	<i>elekatu</i>	<i>criticar</i>	<i>psare+</i>	<i>sermone+</i>
<i>mezu'onetsi</i>	<i>autor'aitor</i>	<i>erosta</i>	<i>elastatu</i>	<i>contar</i>	<i>vocear</i>	<i>saludar</i>
<i>mito'mintzo</i>	<i>autu'deitu</i>	<i>eritxi</i>	<i>lakatu</i>	<i>clamar</i>	<i>baieztu</i>	<i>chanter</i>
<i>muxin</i>	<i>dico+</i>	<i>errezu</i>	<i>letreiaitu</i>	<i>garraxi,</i>	<i>afirmar</i>	<i>santzo</i>
<i>negar</i>	<i>deithatu</i>	<i>orar'rezar</i>	<i>loxingatu</i>	<i>grito</i>	<i>palabra</i>	<i>iskiritu</i>
<i>masiatu</i>	<i>iskirio</i>	<i>errieta</i>	<i>loquere+</i>	<i>keruptto+</i>	<i>parabole+</i>	<i>scribere +</i>
<i>murrika</i>	<i>destain</i>	<i>reyerta,</i>	<i>laudare+</i>	<i>kantatu</i>	<i>ahapaldi</i>	<i>senton</i>
<i>emet*</i>	<i>docere+</i>	<i>arramaka,</i>	<i>lohar'lekaio</i>	<i>cantar</i>	<i>verso</i>	<i>centón</i>
<i>eneatu</i>	<i>edatsi</i>	<i>irargi</i>	<i>elogiar</i>	<i>gazitgatu</i>	<i>verdad,</i>	<i>esakun</i>
<i>mentar</i>	<i>tacere+</i>	<i>irakurri</i>	<i>alamen</i>	<i>glota+</i>	<i>ipoin'ipuin</i>	<i>sentencia</i>
<i>moneo +</i>	<i>daba*</i>	<i>iruzkindu</i>	<i>aldia</i>	<i>glosar</i>	<i>poesia</i>	<i>historia</i>
<i>mormorio</i>	<i>doctrina</i>	<i>ordeinatu</i>	<i>lamento</i>	<i>grafo+</i>	<i>falar'</i>	
<i>noticia</i>	<i>doctrina</i>	<i>ordeinatu</i>	<i>lamento</i>	<i>grafo+</i>	<i>falar'</i>	
<i>nombrar</i>	<i>atsotiz</i>	<i>refrán</i>	<i>aldarri</i>	<i>gravar</i>	<i>hablar</i>	

Ohar: Latin eta grekar hitzak +, eta Antxinako Sortalde Hurbilekoak * seinua daroe

esango genuke Morton autorearekin, seinu askoren ordezkari delako, “erro askoduna” ere esan ohi da. Baina zer dela-eta da *ar* erro askodun hitz edo *logogenoa*? Mitoazterketak bakarrik emango liguke erantzun zehatza. *Ra/Erra* “iruzki” jainko nortasunaren ekin-tzak eta jokera jakitea dugu, izadiaren sorkuntzan eta gidaritzan ze maila duen, alegia, gero hizkuntzan ere erro askorun sustarra ezeze, hitzaren arketipo izatera heldu ahal izateko. *Ar* adibidez aipatu duguna euskararen monosilabo bakoitzaz esan genezake.

Lexicón mental deituko “adimen hiztegi” batzuk “burunahiko” *autónomo* direla dinoe beste batzuk Foster autorearekin, haieki-ko harremana sentzuen bidez egiten delako, ezagupideko beste arien laguntza gabe. Norberek hitz multso hoiek aurrelari bat omen dute, eurok direla unean uneko hitza idoroten lagundu eta bere hiztegi saila babesten dutenak. Foster autoreak ez ditu arketipoak aipatzen, baina hizkuntzaren arketipo bakoitza *autonomoa* dela esango luken, maisuaren arbelak bezala, sentzunen itura dei egin eta gai guztietako jakingarrietan nora bidaldu eta

zein hitz aukeratu adierazten digutelako: horreixek bai-dira hizkuntzaren arketipoak. Horrela *Utu/ota*, *Utu/itu*, *Utu/doi* da, *Utu/edu*, *Utu/ide*, *Utu/aita*, *Utu/jo*, *Utu/itoitu*, etab., “Utu” edu autonomoa bai-da eta, iduzkiak argi errainuak bezala, beretik ekintza, eta jakintza ereduak danera analogizatzen bai-ditu. (Ikus sentzun, adimen eta mintso hitz-aditzak 4°, 5°, 6° laburgoetan)

Beste autore batzuk hiztegi mota ezberdinak sarekatzeko *redes semánticas* aipatzen dituzte, hitzak elkarren artean duten lotura oroitzarekin zerikusia dutela azaltzerakoan. “Hiztegi sareok” hitz multsoaz oroitzen laguntzen omen digute, hatarako euren arteko loturak egoki gordetzen dituztela, ze motatakoak diren azalduz, edukinez hizkide direnetz, bata bestearen partekide, ondore, loturadun, loturagabe, arteko, kontrako, etab.

Horrela, adibidez, *ide/idea* sare bereko hitzak dira jatorriz eta, edukin ezberdineko izanarren, ba dute logikazko loturarik elkarren artean. *Edu/eredu* edukinez berdinak dira, baina ez sare berekoak, beretsukoak baizik, bata monosilaboa eta beste arketipoz aglutinatua direlarik. Orobat, *ama/amatu* sare beretsukoak dira eta formaz bata bestearen eratorri eta edukinez *amatu=maite* bata bestearen ondore. Halaber, *amatu/amatxu* elkarren eratorri dira formaz eta edukinez, ezberdin izanarren, elkarren psikologika dute barne lokarri.

“Adimeneko soloa” edo *mapa mental* ere aipatzen dute beste autore batzuk. Hoientzat ez dio axola hitza nongo espazioan bilatzen den jakiteak, hitzen arteko loturak baino: ea soinukide diren eta edukinkide, horrela ezagutzen bai-da hiztegia. *Utu/doi* soinukide dira, adibidez, ideaz elkarren ondoreko, mitologiak azaltzen duenez, batak bestearen kalitatea iragarten bai-du. Arketipoetan soinukidetasuna kontsonante bereko izatetik dator, bokalak soilik haren esparrua zabaltzen edo estutzen bai-dute: *An/ama*, *Utu/ota* zabalago, *ama/ime*, *Utu/itxu*, estuago, adibidez.

Soinukide izateak erraturik sor baleza, gida orokorra kontuan ez hartzetik edo begien ituan ez izatetik datorke. Iziartxok ere amaren antza du arpegikera, nahiz eta ez hainbeste azalaren leunean. Hagatik dira ama *Iziar* eta alaba *Iziartxo*, antzeko eta berezi.

2.3. Hizkuntz artezia eta oroitzua

Gaurko psikohizkuntzalariek hitz multsoaren jabetzeaz, antolatzaz eta oroitzeaz arduratzen dira, hitzaren prozezua ulertu nahirik. Hitza barnetik mingainera *otz/hitz* ulertu zutenek ere ardura bera zuten, bai *kardia/gardi* uste izan eta bai *bihotza/abotza* orapildu zutenek. Hitza ahozkatu, baina nola gogoratu esan beharreko hitza eta behin esandakoa hurrengoan ahazturik, okerrekoa ez esateko? Izadiko eta gizadiko lekukoei, ots, arketipoei, deitu behar zitzairen bakoitzean, akordatu ahal izateko. Beraz, *korde/gorde* zuten hizkune eta aholku, gogoangarrien gordailu bihotza eginik. Eta barne iruditeria gordetzeko irudien lekura jo, *den guztiak izena duelako*, izena duen guztiak izana duen bezala. Izadia bera zan harrobi; izadiaren iraunkortasuna eman behar zitzairen hitzen ereduai: arketipoen gidak azarri, bakar eta ugari izan zitezten. Eta hiztegiaren handiz sarea apurtu eta barnekoa zakabanatu ez zedin, soinuz eta edukinez elkarki zirenak, hizkide bezala elkartu behar ziran ahozko mezua emakeran eta elkarren aurkakoak, aurkako bezala. Honela dakus Jousse autorearen pedagogiak: hitza sinboloagandiko keinua eta imusinoa da, esakeraren hizkunea, ahozkerak esatariaren eta entzulearen gorputza esnatzen ditu era batera, berba ahozkatze bakoitzean, hori bai-da behin behinezko antropologia artezia⁴.

Antxinako kulturen jakinduria aztertzen duten exegetek ere hitz parekideen edo ezparekideen asmo bereko egiturak ikusten dituzte, bata besteen berezko eskakizun bailiran⁵. Horrela *emqy^(a)/imaku* “jakitun/zoriontsu” *xabe/sabio*, *arkhe^(a)/argi* “errege/argi”, *necio/nece^(a)* “ergel/gaizto”, *inozo/inoxiu^(a)* “erbal/errugabe”, etab. Euskarak hasierako monosilaboetara jotea baino ez du hizkuneen egitura zaharra garbiago egiztatzeko. Horrela, *Inu/in* “jainko/egin”, *Anu/onu*, “jainko/aholku”, *Utu/doi*, “jainko/zuzen”, *Erra/errai*, “jainkoa/sorle”, *Ilu/hil*, “jainkoa/heriotze”, etab. Geroago ere jakindu-

4 VIDAL, J., “Mito C, 1)” D.R., o. c., p. 1209.

5 “En la literatura de sentencias es caso típico la equiparación “sabio/justo” y “necio/malvado”, que confiere una relación intrínseca a lo ético y sapiencial”. (MORLA, V., *Libros sapienciales y otros escritos*, o. c., p. 38

riazko hitzak hizkune hoietan bai-dute sorburu: “*Jainkoak in, gizakiak ekin*”, “*Batek badaki, Jainkoak daki*”, etab., hizkune soinuakideak punttudun esakunetara datozela. Puntuak adikera zorrozten dute eta oroimena sendotzen, hizkune parekideen soinuak bezala, edo doinuak bertso osoa. Psikohizkuntzalariek asaben teknika hau aintzat hartu behar lukete, aurretikoen asmoen eta arteziaz baliatzen bai-gara gaur ere hitz egiten dugunok.

Euskararen egiturei jarraiki, euskararen lehen ariketak begiratu-tuko ditugu, hizkuneok bai-dira hizkuntzan arketipoen lehen distirak eta analogiak eta gure asaben lehen jakituriazko lezioak, eta arketipoak jainko diren heinean, euren arduretako lehen otoitzak eta siniskuntzako lehen sinboloak dira. Euskararen hurbileko leku-kotasuna mesopotamiar eta egipziar mitoen telogiak bahiezten du.

2.3.1. Hitz kidetuen egiturak eta oroitzak

Hitzen loturak sortu baino lehen, hitzkide monosilaboak elkartzeak egiten zuan “hizkune” *fórmula*. Hizkune hoietariko zerrenda bat ematen dugu adibidez, arketipoz arketipo, edukina eta ahotza jarraituz. Hitzon edukina errazago ulertu ahal izateko, begitu liburuaren azkenean doan monosilaboen hiztegi berezia.

An/ama, ama/ume, ume/umo, aina/nahia, Anu/unai, Anu/anoi, Inu/in, Inu/uin, Anu/onu, Anu/un⁴, An/ena, Inu/ino, Eni/aie, Eni/ni, ni/niu, Eni/ení, Anu/no, no/ono, etab.

Utu/itoi, Utu/edu, ide/idea, Utu/otsi, Utu/aitso, Utu/atso, Utu/aita, Utu/oto, Utu/to/tu>su, to/otzo, Utu/doi⁵, Utu/edoi, hodei/odi, otzi/otz, su/izio, hots/hitz, ate/hatx/haitz, autu/hauta, auzo/auzi, auzi/auzu, Utu/so, Utu/udo, Utu/idi, Utu/uso,

4 Gizakia *Anu* jainkoaren *une/muineko* nortzat daukate Sumerren hagatik *Anu/on* ere (*Gilgamesh*, I,III, 4ss, ANET, 72-79, 83, 90-92-97, 514-515) Era berean *Anu/onu* jainkoen bileran (*El Diluvio*, 144, ANET, 42-44) *Inote-an*, bestalde, *inude* eta *unaiek* urteko *anoa* eta *eñea* eskatzen dute.

5 *Utu* bere bide eta ekintzetan *doitasunaren edu* da (*Himno a Shamas*, 58-60; 97-109, DB n^o26. Cf. *Shamas*^(a)=*Utu*^(s). *Uturen* maskotak *idi, uso* (ikus or.25) eta *udo, otso*, etab., analogiak ulertzeko *Utu, osten* denetik *itoitu* arte, lurreko *toilu>zuloetatik* zehar ustez zebilena jakin behar da.

Utu/otso, Utu/oso, hautzi/otzi, etab. Hizkune gehienok arketipoa-gandik zuzen analogizatuak dira, baina batzuk, *su/izio, hots/hitz* adibidez, analogia beraren zeharkako dizdirak dira.

Erra/arre, Horu/oru/aro, irre/irri, orei/ore, orro/orho, orro/haur, oru/uri, ur/uri, Erra/erro, Erra/errai⁶, Erra/erre, Erra/erru, arru/harro, Erra/aire, aro/haro, ero/erio, eroi/erio, etab.

Ilu/lo, Ilu/ole, Ilu/loi, Ilu/olo, Ilu/olio, Ilu/ola, Ala/ahal, Ala/lai, alai/lehi, elai/alai, Ala/ala, Ilu/ul, ul/ahul, Ilu/hil⁷, etab.

Giza arketipoak autonomia laburragoa dute analogiagintzan eta euren arazoa bederen jainko arketipoei laguntzea eta jainko-zko hitza gizatasunez janzea da. Halare, egoki da euretari-ko bakoitzak monosilaborako ze gaitasuna duen jakitea. Eurotan ikusiko dugu argien norbereko jainkotuen eta Beste jainkoen arteko maila zertan den, norbere eta Bestearen arteko tirabira.

Ohargarriak dira gizatasunaren kaizua adierazten duen *Ka* arketipotik egiten dituen hizkuneak: *Ka/kai, kai/gai, kai/gei, gei/gehi, Eki/ekhi, egi/egia, kia/ke, hego/igo, gu/goi, eko/uko, uko/uku*, etab. *Eki* izenak jainkoen nortasuna lortzen du edo zero-lurren arteko *egi* marrik beherako “eguzkia” dela ematen du, *Ekain* duela garaipen unetzat. *Ka ganora* goitarra da, *gailendu* nahi luke, eta *gailen/galen* gelditzen da kontraesanetan.

Giza baita *Ba* arketipoak ordezkutzen du eta hizkuneotan era-kusten du bere filosofia: *Ba/bai, ibai/behe, Ba/ipo, ibai/ibi, beha/vía, ibai/epai⁶, Ba/epe, epe/ep!*, *abia/abao, abao/opa*, etab.

6 Egiptoko jakindurian *Erraren haragitiko haurrak* aipatzen dira (*Instrucción del rey Mericarê*, 130-135, DB. n^o 10) Egiptoko salbamen teologian *Erraren erra* eta *ira, haurrak arramantzaren errudun* jotean. (*Rescate de la Humanidad de la Destrucción*, ANET, 10-11)

7 Sumertarren artean *Ilu*^(u), semitarren jainkoa, badaezpadako jainko edo deabrua zan, *Enlil* familiako egin arte. Hala ere, *Enlilenak* dira giza aduak. (LIMET, H., “*DEMONIOLOGÍA* (rel. sumeria y acadia)”, Ibi., p.416-7)

6 *Ba/vía+ate>bide* datorrela ulertzeko, ohar *Abbay=Nilo* Egiptoko *bide* egina eta *Ibarrate>Eufrate* “jainko-ibai” badaezpadako auzietan epailari. (*Las Leyes de Ur-Nammu*, 13, DB, n^o 15)

7 laburgoa: GONBARAKETZEKOEN ANALOGIA ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AS
ain/-en/-ino	duin	aren	lain	gino	bein/bai	zein/asina
ansí	zoin	arean	aulan	cuán/qué	bezala	zelan/selon
antzo	edu/uti	urrean	lez	gisa/guisa	veluti	jas/yes/ez
onan	idem/adin	orrela	olan	kide/equale	bardin	sic/así/sí
nola	oso/total	oro/era	hala/hola	cual	bezain	sano
muy/anitz	txit/sumo	real	alaen	como	baizen	sane
inobre/inaurre	sobera	are	alyim	gehiago	presque	ya/según
ainbat	tanto/tal	aria	alako	igual	parecido	zenbait
máxime	dia/thusto	eurrez	lar	guzti	vix/pene	aski/asko
nahiko	doi, soil	erruz	alaso	gutxi	harto/bien	aseki/assed
minus	ttantta	ralo	labur	ka/quia	poxi/poco	eskaz
noski	utique	real	alegia	eiki	vere, bai	certe
ante	tint/edo	ordea	aliter	contra	bestela	semeios
nahiz	todavía	or	alor	agian	baina/pero	siquiera
modo	talante	raso	ley	criterio	baremo	sentido
norma	edu/tipo	eredu/orden	laia	clase	forma	especie/sail

Ohar: sailean analogia bereko izen, izenlagun, aditz lagun eta zenbait lokarri batzen dira

Ba ibaiaren bidetik doa eta handik dakus zein *pustagarria* zaión bizi *bidea/vita*⁷>*vida* eta *epeari baikor* erantzun behar diona.

Gizakiak goitar arnasa du As arketipoa eta berriz hasteko abaguna ematen dio, hizkuneak lekuko: *as/has*, *as/hasi*, *hasi/hazi*, *azi/hazi*, *haize/aise*, *si/hezi*, *esi/etsi*, *xee/sei*, *esi/etxe*, *etxe/etsai*, etab. Haizeaz ontzia aise doan bezala, goi arnasaz bizi berri eskeintza dago *Esagila etxe gailako* jainkoarekiko erritoen *eskeintza* eta *eskariak* dakarten *eskarra/sagara*>*sacra* agintzen bai-dute.

Giza arketipoen hizkuneotan gizakiaren mitologia beheinena agertzen zaigu: *Ka* gaitasunaren gaineriaz, gainartu, gailendu eta galdu egiten da, *Ba* baitan abaldu eta behartu egiten da eta *As* zerutiko eskuaz, santutasun izakera berria *asperatzen* du, ots, antxinakoen jakinduriaren arabera, gizakiak bere konplexutik datorkion barne eztabaidaren eskarmendua duela. Horrela baidakuse, Mesopotamiako mitoek eta handiko gnostikoen eskolak gizakiaren ogen, apalگو eta salbamen historia harrigarrian⁷.

7 *Enuma elhis*, IV, 81-82 poeman *Kingu*, giza jainkotua, Anu jainkoren pareko izan irrikagatik zigortua dager. Mesopotamiako gnostikoen jakinduriaren ara->

2.3.2. Hitz monosilaboen loturak eta oroitzua

Hitz parekideak lotura soil batez elkartzen hasi ziran. Aurrerakoan “un *eta* on”, “elai *eta* alai” hizkideak lotu egingo ziran, *eta* dela, haraz gero, hitzen arteko lehen lotura: *eta*>*et*⁸. Lotura hau *eta*>*da* dator “An *da* ama”, “joanda bertan” esan ohi den bezala. Baina *da* funtzezko baiezpenera ere ba da, haraz gero: “An ama *da*”, “elaia alai *da*”. Bide beretik *eta*>*et*>*ez*>*est*>*es* dator latinean, lokarri soila aditz lokarria egiten dela. Fonetismo honek izena eta izana mugitzen ditu, toponimiako eratorrietan ere egiztatzten denez⁸. Honela, bada, *Anu/on* izatetik “Anu *eta* on/Deus *et* bonus⁹” dator, “Anu ona *da*/Deus *est* bonus”, “Utu *eta* doi/Sol *et* justus”, “Utu doia *da*/Sol *est* justus”, “ide *eta* idea/idem *et* idea”, “ide idea *da* “idem idea *est*”. Fonetika aldaketak edukinaren aldaketa adierazten dute “Anu *da* on/Deus *est* bonus⁹”. Eztalakoan hitzen azaleko lokarria aditzaren izantasan lokarri bihurtzen da, bertatik jaioten direla *iza(n)*, *esse/ser* izantasan aditzen hirugarren pertsona.

Izantasuna ukatzeko *et!*>*-etz*>*ez* bihurtzen da euskaran: “erroa *ez* errua”, “arrua *ez* da harroa”, etab. Izantasuna ez baita jartzen edo hataz galdetzen denean: *ete/ote*, *al* erantzgarriak ditu aditzak: “Ilu ahala *oteda?*”, Erra arra *eteda?*”, “Utu *al* da doia?”, etab.

Hitzen arteko kidetasuna gonbaratzez ere egiten da: An *heina da/ama aita aina da*”, “Utu su *edu da*/Sol *uti ignis est*¹⁰”, “Erra arau ere ba *da*/Ra *est et* ordo” (Ikus gonbaraketen analogiak 3^o laburgoan) Barne hartzea da bestetariko lotura: Erra *ere* errai *da*”,

>bera, jainko aina izan nahiak Sofia=“jakinduriagandik” hiru adar datoz: bere *kai* “materiaren” irrika, bere *psykhe* “baitako” damua, eta bere espirituagandiko salbamen *asa*. Euren ustetan *kai* “materia” *ogendun* da, baina *psykhe*, “baitaren” *penak* salbabidera daroa *espirituagan*. Gnostikoen antxinako jakinduriaren maisu helduak ziran. (SEVRIN., “VALENTINISMO”, DR, o.c., p. 1803. Cf. Ikusi dugunez, *Ka*, *kai* materia, *Ba*, *psykhe* baita y *As* “asperatu>spiritu” datorrena giza konplexua ordezkatzen duten hizkuntzako arketipoak dira, Antxinako Sortalde Hurbilean erakutzi izan zenez eta euskarak bere baitan aitortzen digunez.

8 Toponimia izan da hizkuntzan fonetismoen aurrelari. Handik gainerako kontsonanteen ozendurak, zigorketak eta ziztuketak: Ibarreta>Ibarreda, Ibarza>Ibarz>Barcia. Eta hizkuntz arruntean: joan *eta* etorri> joan *da* etorri/et nunc *et* semper>ed nun *eds* semper>ez nun *es* semper.

bietan aukerakoak berdindu egiten ditu kideak “*nai ama, nai aiña*”, “*alai ala ilun*”, “*arre ala ori*”, “*ide ala idea*”, etab. Bietan batekoak, bat aukeratzen du *edo* berezi egiten ditu: “*anu edo aña/anonna aut agnu*”¹⁰, “*han edo hemen*”, “*arre edo iso*”, “*urru edo urri*”, “*ibai ala ibi*”, etab. Azkenik ez-onartzeak kide bikoitza bazter dezake: “*ez hau, ez hori*”, “*ez eta hura ere*”. Lokarri edo banatzaile guztiok hizkuntzaren lehen aldikoak dira, monosilaboak eta denak jainkozko arketipoetatik zuzenean analogizatuak.

Hitz kideen lokarria jakinduriaren bidea denez, ikustea baino ez dugu giza arketipoekin egiten dituzten konponketak. Ka arketipoari dagokionez, hona “*kai gai da*”, “*Ka kaia da*”, “*Ekia egia da*”, “*kai gei al da?*”, “*gu ere gei*”, “*gu goi eta hera behe*”, “*Ka eta uka*”, “*kai eta kia, gai ala gai?*”, “*kia ez da gei*”, “*kia gai ote-da*”, “*kia ez da gai*”, “*egia ala agia*”, “*agia ez da egia*”, etab.

“*Ba bia da*”, “*Ba behe da*”¹⁰, “*bai ala ez?*”, “*Ba ibai ote-da?*”, “*Ba ipoa da*”, “*Ba baia ete-da?*”, “*Ba bao da*”, “*Ba eta apeio*”, “*Ba bea al da?*”, “*Ba epe bea da*”, “*epea ipoia da*”, “*Ba habia ete da?*”, “*Ba eta apeu*”, “*ep!*, *ibaia epaia ete da?*”, “*Ba ez da apoa*”, etab.

“*As edo asa*”, “*asa ez da haizea*”, “*asa iza da*”, “*haize eta aise*”, “*eixa aise doa*”, “*seia xea da*”, “*exea eta seia*”, “*hasi eta hazi*”, “*esi eta hezi*”, “*seia hezi da*”, “*hazi ala hezi*”, “*esi etsia da*”, “*hezi edo etsi*”, “*hazia xea eta ezea da*”, *xai eta ase*”, etab.

Giza arketipoen arteko lehen ariketak soiltasunean asaben jakinduriatzko antropologia iragarten digute, baina euren asmoa jainko arketipoekin elkarrizketatzea zan eta, hareago, itunben bereziaz jainkoekin ezkontzea, sinboloen iruditerira teologiara jasorik, mitoetako ametsak erritoaren *esan eta egin* artezian bidera ahal izateko. Asmo-amets horretan hitza bera egin zuten itunbenaren lekuko, hizkuntza umetzarotik heltzarora garatuz, burutzen zela.

10 *Ka* hiltean *Ba* bere kabitik beheratu gelditzen da, noiz berriz itzuliko epeari bea. Hagatik giza burudun txoria antzo irudikatzen da ohiko *Ka* taxuaren edo momiarengatik inguru (ikus 125 or.), bera bai-da berbizteko asmo duen *ave* Benu>Fénix.

2.3.3. Jainkozko hitz aglutinatuen loturak oroitzan

Sumerren jainko familiakoen izenak dira hitz aglutinatuen eredu. Honela, An+Utu>*Antu*^(s) “Anen emazte”, An+ain>*Nin*^(s) “An aina=Andre”, *Nin+tu* “An aina+tu>haintu=Anen Andre”, *Nin+ Nanna*^(s) “Andre Nana”, An+-ena>*Nanna* “Anen alaba”. Egipton *Nut* edo *Maat* da Erra jainkoaren ama eta Tebasen *Mut*, Amon-Ra jainkoaren andrea, eta egitura bereko aglutinatuak dira. An+Ilu>*Enlil* “Anen ahala”, ots, Anen ordezkari. *Enlil* izenean kultura bitako hizkuntza arketipoak elkartzen dira. *Ninlil*, “Enlilen andre”.

Neosumeriarren garaian (3.000 K.a.) *Mara* jainkosa zan Eufra tres goi-hegalean, eskumako marran *Mari* uriko zaindari. Uri ospe-tsua zan bai kulturari eta bai salerosketari. *Mari* izen arrunta Egipton eta jakinduria zaharreko jainkosa Euskal Herrian. Sumeria eta Egiptoko jainkozko arketipoak *An+Ra>Mari* biltzen ditu beragan. *Martu*, ostera, mortutik harako jainkoa da eta Ur urian ezkondu zena, beraz, *maritu*^(l)>*maritxu* “senar” edo “*Mari jainkosari ezkontzan emana*”. *Martu* hortuarien zaindari eta landaretzaren ongile zan. Euskaldunek ere *Martxo* ileko zaindari ezagutzen dute.

Atum^(e) “Orokortasun” jainkoa Egipton eta *Aton*^(e) “eguzki aroa” Tebasen, *Antu*^(s) arketipoen itzuliketaz. *Hator*, Erraren alaba, *Utu+Ra>Hator* arketipo bikoitza eta *Horus<Ortu*^(l)>*Orzu* “erditua”, “*Hator jainkosaren semea*” bai zan *Ortzi* “zeru” jainkoa.

Jainko izenotan ohartzekoak dira *-na, -tu*, atzizkiak, batak no-rentasuna, hala *Nana*, eta besteak sagarapena, hala *Antu* adierazten dutela, haraz gero: *naditu*^(s) “An jainkoari oparitua”, *amatu* “amatasunaz sagaratu den emakumea”¹¹, *naitu* “maitez agindua edo hitzemana”. Jainkozko arketipoekin hasten dira lehen aglutinatuen hizkuneak euskaran eta lehen gramatikazko atzizkiak. Hala *Antu/antu, antu/ancho, antu/andi, antzu/antzi, anze/anzi, antz/antze, ansi/ansia, natu/nato, nasa/naza, amatu/amatxu,*

11 *Ama.ù.utu.an.ki*^(s) “amak erditu zeru-lur” hasten da Eridu (4.000 K.a.) uriko sorkuntza mitoa. LIMET, H., “COSMOGONIA (sumero-acadia), DR, c.,p. 343-344. Cf: Euskal jakinduriatzko esakera batek dinonez, “*zerua eta lurra aspertuak omen zeuden eta orduan itxasoa egin zuten*”.

*Maat/maite, Nut/notha, Mut/musu, Mut/motto*⁸, *Mara/marra*⁹, *marra/mar, Mari/amari*¹⁰, *amarre/amarru, narea/naro*, etab.

Zeruak jainko jainkosez beteala, hiztegia analogiaren aritik zuzen edo zehar zabaltzen zioan mitoen kondairan: *Antu/antzoz* ereduaren orpotik, *antzu/antzi* ereduaren bidetik. Sinboloak ere artez ematen diren irudiak dira, mitoek zeharka ere irudimena antutzen dute eta batak eta besteak oroitzaren sareak sendotzen eta lotzen dituzte arketipoz arketipo.

Beste hainbeste esan behar *Utu* arketipoaren familiaz: *Utu+An>Aton, Aton/done, doien/duin, tona/dona, itun/izun, donadu/dundu, Hator seme* “Aitor seme”, *Utu+Ra>Adar* “Trumoi jainkoa”, *Adur* “sorte”, *atari/atara, toro/soro, toro/zoro, Hator/adore, Hator/azore*¹⁰, *atoratu/azoratu, iturri/ixuri, uturri/turru, itera/zehar*, etab. *Utu+Ilu>tolo/solo, tuldu/soldu, tolau/tolere*¹¹ “pila-tu/jaso”, *tolamen/dólmen, tollo>zulo, silo/zilo, iduli/itzuli*, etab.

Erra+An: errain/erren, arren/erran, erain/erne, arin/orain, etab., *Erra+Utu>Arthe*, Ainamendi mend-arte-ko jainkoa, edukin askodun izena euskal hiztegian eta gramatikan “at-arte, bitarte, artezi, eroapen”, etab., *aretze>arce, artazi/ardatz, ardaitu/arder; Hortu*¹⁰/*ordu, Orzi/ortzi, urte/orde*¹¹, *ordai/orde, ordain/orden, ordek/orden* “harzak/harzan”, *urte/urtza, uritu/urtu*, etab.

Ilu+Anu>Iluno/Luna, Iluno/ilum “Ainamendiko jainkoa”, *ilun/olim*¹⁰ “ilun/antxina”, *Elhohim*^(h)/*alyim*^(w) “jainkoen jainko/garaile”, *alyim/alaen* “garaile/ahaldunen”, *alaen>alen*, etab. *Ilu+Utu: uldu/ahuldu, heldu/hildu, Al+Utu>altu>aldu*, etab.

Jainko familia guztietan du euskarak senideen bat eta, beraz, bi-

8 Emakume ezkonduak *motoa* jartzen zuten buruan seinaleztat.

9 *Mari* eta *Maat* jakinduriaren jainkosen zeregina zuten eta bere mendekoei harreman arauak ezarri zizkien, *marra* igarotzea *marro* egitea zan.

10 *Hator* jainkosak leoi burua jartzen du Ra aitaren ohorea aldeztarren. *Hator* jainkosak seme bi *sortu* zituan: *Horus*, esaneko seme jatorra, eta *Set, seta* gaiztokoa. *Hator* “Horus semearen *etxe*” da, goizean *azor* antzean ahienatu zaion semea *atoratzen* du iluntzean. (Ikus 112 or.) Haraz gero, euskarak “Aitor seme/alaba” eta *set* egin esakerak bereak ditu eta *tortu/sortu* hizkunea.

11 Urte Barriz sorrak ordeaz kitatzen ziran eta urteko urak soskatzen.

garren eskuko analogiazko iturriren bat. Ohartzekoa *An* eta *Utu* atzizkituak *-ain/-en, -tu/-du*, gonbaratze edo aditz eratara taxutu hitzak direla: *duin, ordain, alen* eta *antu, hildu, ordu, altu*, etab.

2.4.1. Hitzaren lehen gizakundea eta oroitzza

Norbere arketipoak jainkozkoen lotzean, halako deduz, giza arketipoak atzizki jartzen ziran hasiera baten. Honela, *En.ki*^(s) “An lurrean=Anen zatiki”, *Nin-Ursag*^(s) emaztearen senar Sumerreko paradisuari, *Ensag* ere deitua, *Ensag* ur gozoen eta *Ursag* ur gazien ordezkari ziran. *Nin.Ursag* emazteak *Enki urgazten* zuan, emaztea senarraren *urgazle* asmoa (Has 2,18) ere agertzen bai-da. *Inko* “Inu seme” eta *eikon*^(g)=*ikono* jainko irudia tenplo barrenean. Belaun-*inko* gurtzen zan, ots, belauniko eta *Inko/inka, Inko/aínco* hizkune egiten duela gogoratzen dugu, *anunna*^(s)/*anunnaku*^(a) eta *anunnaki*^(a) “ainanino/ainaninoko”, *ume/umeko* eta *umeki* bezala, *nesu*^(s)/*negusi* “errege” batean *-ko/-go* ondorengo eta bestean *-ki* zatiki kasuena egiten dutela. Orobat “*Nabu*^(bal)/*nabi*^(h)” “Anu mendeko/igarle”, *Anu/ainubi, Anu/nube*⁽¹⁾, *novu*⁽¹⁾ eta *An/naba*¹², eta *neba, amabi, Inu/nive*⁽¹⁾>*nieve*, *en*^(s)/*ensi*^(s) “apaiz neusi/uriko nagusi”, etab.

Izen gizatuen nortasuna jainkoen mendeko edo maila bat behe-ragoko direla adierazten du. Izen aldatzeak analogia berari jarraituz zehazten, zabaltzen edo aldatzen du edukina. Jarraiko exenpluetan jainko maila gizatasun mailaren ondoan agertzen da, bata bestearen ondare, zatiki edo *-ka/-ga* atzizkiez aurkakoa adierazten dutela, hala *aina/naka, nai/neke*, etab. Euskarazko adibideen ondoan inguruko beste hizkuntza batzuren exenpluak ere ba doaz, hizkuntzen asmo eta egitura bide beretik hasi edo osatuak direla adieraztearren.

Apaiak, herriaren eta jainkoen hararteko zirenez, oihuzko otoiak argitzeko gramatika legeak azaldu zituzten antxinatik, geroago idatzira emondako oltxoetan Sumerren agertu direnez. Erregela hoiez esan otoitzak izango ziran erritoan erabilten zirenak, *esan/izan* asaben hizkuntza edo oraintsuagoko “esan, abadeak mezan” esakunera, halako arteziaz jainkoei eskatua lor zezaketenak. Orduko apaizek ez zekiten “gramatika generativa” delakoaren berri eta hagatik ohiuzko otoitzen bide beretik, euren jainkoen eredutik bultzatu zituzten gramatikagaiak, haien izenei eregu eginik.

Ustekizun bitxia da “gramatika generativa” hori, baina ez da gutxiago, bai sinistagarriago, hako sumerieraren gramatika lege gehienak euskarak gaur bertan jarraitzea eta zientzilari zehatzek entzun eta ikus dezakenez. Gizakiak arterako duen gaitasuna ezagutuz gero, edozein hizkuntzalarik amoreman beharko luke ahozkatu hizkuntza ere gizakiak berak sorturiko artea dela, naturaren berezko dohaiak baino harego, gizakiak naturaz dituen ahalmenen artezia eta halatan eman frutua aintzat hartuaz.

Amari urruma edo negar egitea umearen berezko sena da eta gosea asetzeko behar duen amaren bularra bilatu eta xurgatzea. Besterik da gizaki helduak amak ezin asetu goseak euren ustetako jainkoei oihuzko errepikatuetan, umeak “ama” ereguka bezala, edo otoitz eratuagoetan eskatzea eta eskatua lortzea.

4.1. Izenen eta aditzen atzizki-aurrizkiak

Hitzaren sorrera, hizkuneen oreka eta hitz soilen arteko lokarri soilak azaldu ditugu, hitz aglutinatuen arketipo konposagaien eta hitz konposatuaren arteko aurrezku-atzezkuetan atzizkien eta aurritzien sorrera eta gaia ere ikusi dugu. Baliabideon eraginez hitza osatzen eta pertsonen arteko eskuartzean bezala, beste hitzekin harremanetan ikusiko ditugu arketipoz arketipo; hitza eta aditza aurritzien bidez bermatzen eta edukinez zabaltzen. Gramatikak argitzen du ondoen, monosilabismotik zaulitasunera hizkuntzak daroan garrantzia. Berak esango digu gramatikako erregelak ez direla uneko inprobisazioak, ez eta genetikaren odoletik datozkigun berezko jokerrak, gizakiak bere kabuz eta askatasun osoz Neolitos garaian asmatu eta erabagiak baino. Horrela Gramatika bera da bere jatorriaren argibide eta hizkuntzalariek horretan hizkuntzaren jaiotza oroitzen duen hizkuntza zaharrenaren lekukotasuna ulertzea dute.

4.1.1. Jainko arketipoaren mendea atzizki

Sumerren dager *An* jainkoaren mendea, han NORENTASUN egitura *Nanna*^(s) “Anena” (Anen alaba), *anunna*^(s) “ainanino” (Anun sorkari angeruak) norentasuna adierazten erabilten bai-dira. Hala euskarak *-n*, *-en*, *-ain* formak erabili ditu: *aman/amaen* > *amain*, naiz orain *amaren/amen* bereizten dituen bakar/anitzak. Hurbileko anitza *-on* egiten du: *umeon*, *gizonon*, grekoak *-on* eta latinak *-um* bezala.

Gehientasun atzizkia ostera gonbaraketen ondoreko da: “*ain* done/doneen=*endone/donien*, *alyim*^(u) “*alaen*>*alen*”, adibidez, batean NOREN kasua egiten duela, bestean gonbaraketa, atzizki bion arketipoa *An* bera dela. Hitz askok *-en* geheingoa dute sorburu, hala *ots*>*ozen*, *giza*>*gizen*, *ante*>*antena*, *orde*>*ordain*>*orden*, *moro*>*morena*, *morro*>*morrena*, etab.

NORENTASUN formatik datoz jatorria adierazteko *-no/a*, *-no/-nau*, *-n* atzizkiak: *castellano*, *catalán*, *girstino*, *kristinau*, etab. eta *-ense*, *-dun* konposatuak: *onuvense*, *euskaldun*, etab.

NON/NOIZ unean egitura ere *An* arketipoaz josten da, berak *han*, *zeruan* eta *hemen* *lurrean*, *mendi santuan*, *aldien hasieran* bizia *sortzean*. Bere seinua *-an/-n* da: “*sortaldean*, *argia urra-*

tzean” eta bere unetik gizakia sortzean. Aditz askoren egitura *-n* burutzen da egontasun, mugimendu edo ekitzan: *egon*, *joan*, *ekin*, *ihardun*, etab., harako *Inu/in* gogoratzen dutela.

Mendiak ere *An* jainkoaren mendea gogorazten digute *-men/mende*, *-mendi/-mentu*⁽¹⁾, *mendu-*, *-miento* “ahala, ekintza, handiera, materia” adierazten duten atzikiak: *ikusmen*, *ekimen*, *agmen*⁽²⁾, *volumen*⁽³⁾, *ondamendi*, *fundamentu*⁽⁴⁾, *salbamendu*, *mercimiento*, etab. Giza arketipoekin ere biltzen da adizkeretan *-pen*, *-kizun*, ekintza zehatzaren adierazgarri: *erospen*, *irakaspen*, *egikizun*, *esankizun*, etab. *Anu/un* hizkuneak *-on* atzizkiak nortasuna dino: *gizon*, *varón*, eta analogiaz, berriz, erromanikoetan handigarri egiten da: *peleón*, *hombrón*, edo ekintza adierazten, hala *oratio-ne*⁽⁵⁾, *misione/misión*, etab. Bere konposatu den *-ondo* atzikiak tokizenetan “hurbil” adierazten du *Garaitondo*, *Zalduondo*, landaretzan “mota” gereziondo, *sagarrondo* eta ofizioetan, berriz, “aldameneko”: *alkateondo*, *sabiondo*, analogiaz, *zigarrondo*, etab.

Inu/ni hizkuniketik xumetasuna dino *-iño/-iña/-ina*, *-ñi* atzikietan: *andereiño*, *señorina*, *aitañi* edo *ñe-*, *ñi-* aurrizki: *ñekato*, *ñiñi*, *ñoto*, *ñiu*. Abereetan *-ño*, *-ña* atzizkiez kuntza bereizten du: *zaldiño*, *astaña*, etab.

Utu arketipoaren tokia ere zabala da euskal gramatikan. Euskaran, sumerieran bezala, hitzak aditz bihurtzen eta aditza aditzizen. *An+tu*⁽⁶⁾>*antu* “Ani sagaratu/handitu”, *Ilu+tu*⁽⁶⁾>*lutu* “Iluri sagaratu”, *Utu+tu*>*otatu/tutu*⁽⁷⁾, “Utuk goratua/babestua”, *doitu*, *Erra+tu*>*erraatu* “hazi bakarrak erruz kimutu”, *erretu* “erre-oparitu”, *hartu*, *eratu*, etab. *Utu* arketipoa jainko familiarekiko sagarapen seinua da *-tu*, *-du* atzizkiez, *naditu*⁽⁸⁾, *nahitu*, *amatu/amadu*, *donadu*, etab. Seinua beraren eratorriak *-txu*, *-tzu*, *-tsu* atzizkiez “bihozkera, xumetasuna, lanbidea edo uhaltasuna” adieraten dute: *amatxu*, *lastantxu*, *arrantzu*, *umetsu*, etab. Edozein hitz *-tu* atzizkiak aditz bihurtzen da: *lore*>*loretu*, *eder*> *edertu*, etab. eta seinua beraren eratorriaz *-to*, *-do*, *-ti*, *-di* atzizkiez “tankera, saila” adierazten: *ederto*, *gaisoti*, *sagardo*, *pinudi*, etab. eta erderak bide beretik, *formatu*, *faltu*⁽⁹⁾>*formoso*, *falso*, etab.

Handitasun edo xumetasun seinua diren *-to*, *-ito/a*, *-tto*>*-txo/*

-txa, *-zo/-za*, atzizkiak ere *gizonto*, *bonito/a*, *makaltxa*, *perrazo*, *cachaza*, etab., aurreko ereduaren analogitara sortuak dira: *-tzat* atzizkiak “ustezko” dino: *santutzat*, *hobetzat*, etab.

NOIZ/NON haita-tokien sentzua *Utu* iduzkiaren eguneroko osteratik dakigu, egoki zan bere *-te*, *-tze*, *-tza* atzizkiez seinalatzea, ekintza garaiaz lotzen duela: *ereite*, *uztatze*, *bedate/bedatze*¹, *eurite/euritza*, *edurte/edurtza*, eta analogiaz *garitza*, etab. eta *-ten*, *-tzen*² atzizki konposatuz ekintza irauna: *jolasten*, *maitatzen*, etab.

Latinak eta erromanikoen *-nte*, *-ndo*³ bihurtzen dituzte: *oriente*, *creyente*, *viendo*, *jugando*, etab. Hortik datoz *-tate*, *-tad*, *-dade*, *-tada* “egoera, man, kolpe” adierazteko atzizkiak: *university*, *potestad*, *kuxidade*, *curiosidad*, *egitada*, *palmotada*, etab.

NONDI/NOIZTI kasuak *Utu* eduan lotzen ditu espazio-aldiak *-ti*, *-tik* atzikiak: *menditi*, *gaurtik*, etab., hasierako *-ti*>*-tik* gizatzen dela. ZERTAN kasuan *-tan* konposizioa darabil: *honetan*, *halatan*, etab.

Utu berari dagokio adizkeren igarora markatzea *-tu*, *-tsi*, *-si*, *-zi* atzizkien bidez: *antu/antzi*, *ostu/otsi*, *eratu/erazi*, *uldu/ulzi*> *ulzitu*, etab, formaz aldatzeak beti mogitzen duela edukina. Latinak eta erromanikoen ere *-tu*, *-du* atzizkiok erabilten dituzte partizipioak egiteko. Hortik datoz ekintza adieraten duten *-tio*, *-zio* atzikiak: *ultio*⁽¹⁰⁾, *segizio*, *misio*⁽¹¹⁾, akusatiboan: *-sione/-sino* *misione*>*misino*, etab.

Utu arketipoarekiko konposatu diren *-tore*>*dor*, *-tura*> *-dura*, *-sore*>*-sor* “ofizio, egile, ekintza, ondore” adierazle dira: *oratore*⁽¹²⁾> *orador*, *ohitura*, *ardura*, *egitura*, etab. Tokizenetan, berriz, “*torre*>*dorre*>*dor*, *dura*, *itur*” eraikintza dino: *Kasatorre*>*Kastor*, *Turabia*/*Viator*, *Durandu*/*Antura*, *Torrebarri*>*Iturribarria*, etab.

Tokia *ota* “goian” jartzen du tokizenetan *-ota*, *-otxa*, *-osa* atziz-

1 *Haita+te* >*haitate*>*haitatze* “aukera ordua”, *aetate*⁽¹³⁾>*edate* “inauste”. *Edate* “Santistebango jai, kalejira eta udalaren gonbite eta guztikoa”. *Haita/hauta* “aukera unea, bizi berrirako abiada”. *Haita* izena eta *-te* atzizkia edu beretiko analogiak dira. *Haita*>*beta* dator, *gizatuz gero*; *betatu* “beda ezarri, *beda/bete* gerta dadin. *Beda+te*>*bedatze* “beda garaia=udaberria”.

2 Aldia *Utu* eguzkiak *An* zehar seinalatzen du *-ten/nte* atzizkietan.

3 Analogien mundua ber-bera da, dela *Ainamendi*/*Muntanya* edo *-ten/-nte*: *sortzen/oriente*, etab. semantika labanduen gainetik.

kiekin: *Otabio/Biota, Otxoain/Ainoso*, etab., *ate* “borta, igarobide”, berriz, *-ate, -eta, -ade: Ataporca/Forcada, Atela/Eleta*, etab.

Erra ereduaren area laburragoa da aurreko beste arketipo biena baino, egitiar kultura, sumeriarra baino, milaka urte geroagokoa bai-da. *Erra/errai* da euskal hizkunez eta egitiar mitoz, *Erra* bai-da *haur/arrahu^(ber)/rorro* umeen arbaso “bere irudiko bai-dira, bere haragitik urtenak”⁵, *arraza=aria*⁶ mitoen edukinak ere bere ereduiko bai-dira, beraz egoki zan jatorria *-ar/-tar, -ero/a, -ario/a, -er, -r*, atzkiez seinalatzea, hala iberiar, madrildar, afrikar, gernikar, canario, bereber, astur, etab. Bide beretik dator “ugaritasuna” adierazten duten *-ria, -teria* atzikiak: *umeteria, gazteria, chiquillería*, etab. Ofizioa adierazten dute *-ari, -ar, -ero/a, -airu* atzizkiak: *pelotari, ferrero, portera, alokairu*, etab. eta “gaia, tokia, frutu-atzea” adieraten duten atzizkiak *-arri, -ari, -ra-, ariu/a⁰*: *lokarri, ortuari, denariu⁰>diru, solarío, solar, melonar, bellotero, romero*, etab.

“Eguzkia nora, zapiak hara” esaten denez, *Erra* iruzkiaren mogimendua dager airean eta eretian *NORA/NOIZERA, NORANTZ/NOIZERANTZ, NORAINO/NOIZERAINO, ZERTARA/ZERTARAINO* kasoetan, eta *-ra/-etara, -rantz/-etarantz, -raino, -tera, -teraino* atziki soil edo konposatuetan adierazten du: *mendira, mendietarantz, ordu bietara, hiruretarantz, tontorreraino, biamoneraino, jolastera, nekatzeraino*, etab. Erromanikoek “*per, para, pour, pro-*” preposizioa egiten dute ariketa ber-bera.

NORA pertsonatua *NORI -ri* kasura dator: *amari, zeuri*, etab. eta hasierako *NOEN/NOIN*: *aman/amaen/amain* ere *NOFEN/ZEFEN* biurzen da: *amaren, umearen*, etab., bakoitza ugaritik bereiztearren.

ZERREN kasoa *ZERARREN* ere bada eta funtzezko zioa, ots, arrazioa adierazten du: “*Jainkoarren, amoriarren, zerarren*”, etab.

5 *La Instrucción para el rey Merikaré*, 130, DB, nº 10.

6 Euskaraz *aria* “arraza, taju” eta sanskritoz *arya* “leinargi”. Euskaraz *aitor/jator* da “leinargi”. Izan ere, “aitortasun” idea asaben ustez jainkoengandiko jatorritik bai-dator: *Horrela, Erra/arya* eta *Hator* (Erraren alaba)/*aitor*. *Hator* jainkosak bi seme izan zituan: *Horus, aitorra* eta *Set, setatia*. (Euskara mito bizia, “Aitoren seme-alabak”, p.86-91, F. Zubiaga)

Erraren haur garenez, xumetasuna *-ar/-er/-arria, -rio* atzizkiez adierazten da: *txikar/chiquer^(val), kazkar/cazcarria, bandurria, villorrio*, etab. *Erraren* mitoan *erra* eta *errukia* dager eta *-or* atzikiak dino bere bihozkeria edo jokera: *errukior, lotsor, rubor*, etab.

Adizkeren osagarri dager *-ri*, soilera edo *-arazo, -arazi* konposatura: *egari, igarri, etorriarazo, igonarazi*, etab.

Tokizenetan *ara-/-ar, arra-/-rra, aria-/-er* “ara, erri (erein lur)” adierazten du eta *oro-/-oro, -ori, -oria, uri-/uri-, iri-/ri-, -ria* “eraikitze area” aurrizki-atzizkietan: *Araba/Barea, Arraba/Ibarra, Argala/Galar, Orosa/Osoro, Orobia/Boroa, Origan/Ganoria, Uriarte/Arturi, Iriola/Olaria, Rezola/Soler, Olabarri/Ripoll*, etab.

Ilu jainko arketipoa Akadiar eta Egipitiar kulturen arteko Ugarit⁷ urian ospatu zan. Bere kutsua xumea da euskaran eta “egile” adierazteko, soil edo konpostura, *-la/-le, -tzaile* atzizkietan dager: *entzula, egile, zorrotzaile, gurdigile*, etab. eta *-liar* “leku-ko” adierazten: *ikusliar, ezteiliar*, etab.

NOLA/ZELAN kasua berezia du izenorde eta galdetzekoekin *-la, -lan, -latan*: *hola/haulan, horrela, bestela/bestelan, nolatan*, etab.

Frutaki eta abere motak adierazten datoz *-lo/a, -l/-la, -lia*: *peral, frutal, animale⁰, animalia, asnal*, “nor kalitatea” *-lo/-le, -el: lelo, pelele, totel, pardel*, etab., “xumetasuna” *-illu⁰/-illo/a, -lla/u, -la/-il/-l* eratan: *koskailu, etzela, atela, puella⁰* “ñeska”, *pajari-llo, sombrilla, gingil*, eta analogia beraz, *farol, cordel, portal*, etab.

Tokizenetan *uri-/iri* formen ondoan *-uli/-ili* eta *-oli, -ull/-ola, -ol, -l*, darabiltza: *Iliberi/Ibarruli, Iliona/Unil, Ollate/Atallo/Olleta/Tahull, Olibete/Betulia, Oliban/Bainola, Olibar/Ibarrola*, etab.

7 Ugarit, Fenizia guenean, 3.000 K.a. burutu zan *Ilu* akadiarra zuela jainko nausi. Feniziarrek izan ziran, ain zuzen, Europako azken kolonizatzaile zaharrak, indoeuropearren aurretik.

4.1.2. Giza arketipoen mendea atzizki

NON/NOIZ orokorrak NONGO/NOIZKO egiten dira gizakiaren *ekua*^(s) “egoitz” inguruan eta bakoitzari NONDIKO etxeko kutsua jartzen diogu *-ko*, *-go* atzizkira: *herriko*, *gaurko*, etab. eta analogiaz, *amako* ere esaten diogu “ama eduko alabari”, *Utukku*^(s) “Utu sorkuntzako aingeru zaindariari” edo *Marduku*^(bab) “Martu jainkoaren semeari”, *virago*^(l) “gizon eduko emakumeari” (Gn 2, 23). Hortik jatorrizko *-co*, *-ca*: *arévaco*, *vasco*, *perieco*^(g), *sudaca*, etab. eta ofizioak: *apaizgo*, *artzaingo*, etab. Jatorriak kalifikatzen du bakoitza: *-ko*, *-co*, *-nga*, *-ngo* seinu soil edo konposatuan: *astako*, *borrico*, *bastanga*, *gorringo*, etab., xumetasuna bide beretik *-ko*, *-uca*, *-ico/a* eratan: *mutiko*, *madruca*^(ast), *mocico/a*, *Perico*, etab. eta *-koi* atzizkia “jokera” adierazten: *umekoi*, *gizakoi*, etab.

NONGO egiturak *-ko*, *-go*, *-ka*, *-ga*, *-ke*, *-ge*, *-k/-c/-ch* eratako izenak sortu ditu toponimian: *Marocco*, *Cartago*, *Malaka*, *Phoinike*, *Gernike*, *Gabika*, *Gatzaga*, *Mendiage*, *Arzak*, *Marillac*, *Andrach*, etab. Tokizenetan “goi, aldu, egal” adierazten dute berarekino konposatuek *-gan/-gain/-kano/-gano*, *-goiti/-gotxi*, *-kara/-kera*, *-gara*, *-garia/-garai*, *-kala*, *-gala*, *-gal*, etab., hala: *Autzagana*, *Bidegain*, *Lazkano*, *Turégano*, *Ibargoiti*, *Erregotxi*, *Antequera*, *Vaqueira*, *Bergara*, *Legaria*, *Ezkarai*, *Huercal*, *Virgala*, *Portugal*, etab., atzikiok aurizki gertatzeko baimenaz: *Karande/Andikara*, *Carral/Lakarra*, *Calahorra/Huerkal*, *Canosa/Osakain*, *Gutierre/Errigoiti*, *Goitiolza/Olazagutia*, *Galar/Argala*, *Kunbia/Begoina*, etab.

Jainkoen egiturako NORA kasua NORGANA/NORENGANA egiten da izaditik gizadira: *amagana*, *umeengana*, *biziengana*, etab., eta abereez *-kana*: *abereekana*, etab. eta era berean, *-or* jainkotiarrak, *-kor* gizatzen da: *maitakor*, *sentikor*, etab.

Ka, *ki*^(s) “lur” den bezala, *kai* denez, zatigarria ere bada, eta zatitasuna adierazteko *gei* da, hala Enkiduz “Anuren zatiki”⁸ aitortzen denean. Zatitasun seinua, beraz, *-ki*, da: *oiloki*, *zezenki*, etab., ZERIK *-(r)ik* bera bezala baikor edo ezkor galdegaietan: *ogirik*, *paperik*, *pazientzirik*, etab. Analogiaz, *ederki* eder munduaren partekide da.

Gaitasuna adierazten da *-kai/-gai* seinuez: *irazkai*, *zurgai*, etab. eta konposizioan, “gaitasuna eta erakargarritasuna”: *-karri*, *-garri*: *lokarri*, *ikusgarri*, *maitagarri*, etab.

Mendi-zeruen arteko marrari *egi* deritzaio, *Ibarregi*, *Muinegi* izenetan bezala, kalifikatzaileekin, ostera, “marratik pasakoa, lar” adierazten du: *beroegi*, *gozoegi*, *larregi*, etab.

NOREKIN/NOGAZ laguntasun kasua *-(re)kin*⁹, *-gaz* atzizkiez seinatzen da: *zuekin*, *zeugaz*, *zurekin*, etab. Bere antzeko da nonbait atzizkietan *-kun*: *zazpikun*, *hamarkun* “heinakoa” adierazten eta erromanikoen *cum*^(l)/*con* formak badu harekin zerikusirik.

Ekin>egin, egile aditz-adizkerak *-kin*, *-gin* y *-gile* “ofizio, egile” adierazteko atzizki konposatuak sortu dituzte: *o(gi)kin*, *gaizkin*, *bitxigin*, *ontzigile*, etab. eta *-gailu* “lanabeza” adierazten: *garbigailu*, *ordenagailu*, etab.

Kaso guztiekin lotzen da hurbiltasuna, erlatibotasuna lortzeko: NONGO/ZERTAKO/ZERTARIKO/NORAKO/NORTZAKO/NOLAKO/ZELAKO/NORENTZAKO, NOGAZKO/NOREKIKO, etab. *-ango*, *-lango*, *-tako*, *-tarikoko*, *-tiko*, *-tzako*, *-rako*, *-lako*, *-entzako*, etab., hala: “*mendiango*, *zeulango*, *gutako* bat, *gutariko* bat, *lapurtzako*a, *kaletiko* berria, *etxerako* ogia, *zuentzako* afaria, *zugazko* harremanak, *amarekiko* atxikitasuna”, etab., harremanetako kasu berezia egiten delarik. Berak frogatzen du, besteak beste, euskal joskera den barnerakoia, erromanikar joskera linealaren ondoan. Hala ere, gaia bietan ere arketipoetatik jasoa dela esan behar da. Giza arketipo honen arrakasta jainko arketipoekin aglutinatzeke izan duen joketatik dator, izan ere, bere bidez euskara zaharra hazi eta zauli egiten da. Bere urrengo giza arketipoak eskuartze urriagoa izan dute atzizkietan.

Ba arketipoak barne ibaiaren jarrera dauka, *ibai>behe>via* datorrela, *ibai/behe* hizkunean bezala. Tokizenetan *-va*, *-via*, *-be/-pe* tokia deskribatzen du: *Ezkiribai>Escriba*, *Onuva*, *Varsovia*, *Miwai*, *Berbeia*, *Olabe>Olaf*, *Rochapea*, etab., atzizki dena

9 Ohartzeakoa da *-kin* laguntzako atzizkia *sum*^(g), *cum*^(l)>*con*, grekar, latinar eta erromanikar preposizioekin, batez ere, *mecum*=nirekin, *vobiscum*=zuekin, etab. atzizki lotzen direnean.

aurrizki izateko baimenaz: *Zubia/Viso*, *Olabe/Bola*, *Onuva/Bono*, *Otabio/Apoita*, *Osaba/Abaitua/Bajo*, *Ibarbia/Vibar*, etab., edo antzeko parada: *etxape*, *ospe*, *menpe*, etab. Konposizioan *-pen* atzizkiak “ekintza lotua” adierazten du: *luzapen*, *itxaropen*, etab. eta *-bera* seinuak “jokera”: *bihotzbera*, *minbera*, etab.

As arketipoko izate berriak jatorria markatzen du erromanikoetan ere *-es/-esa*, *-esse*, *-tsa* atzizki edo aurrizki: *iberes/speri*, *caledones/eskaldun*, *burgalés*, *marqués*, etab. eta ofizioetan emakuntza: *alcaldesa*, *baronesa*, *maîtresse*⁽⁹⁾, *errientsa*, etab. Tokizenetan *-es*, *-ez*, *-iz*, *-etxe* atzizkiek “jaiotetxea” adierazten dute atzizki edo aurrizki: *Etxepare/Péres*, *Ezibar/Ibarretxe*, *Etxanike/Iñiguez*, *España/Báñez*, *Eziturri/Turriz*, etab.

ZEREZ kasoan *-ez*, *-az*, atzizkiez gauzen “gaia, medioa edo jarduera” adierazten dute: *urrez*, *zurez*, *hitzaz*, *erraz*, *negarrez*, etab.

As+Ka konposiziora *-sco/-sca*, *-zki*, *-skota* atzizkiek “jatorria, jokera, xumetasuna, gaia” adierazten dute: *iduzki*, *oilasko*, *kopaxka*, *lehioskota*, *gorrizka*, *negruzco*, *morisca*, *grotesco*, *oinezko*, *urrezko*, *arrazko*, etab.

4.2. Hitz-aditzen aurrizkiak

Ezagutu ere ez dira egiten gure gramatikoen artean erderaz “preposizio” deitu aurrizkiak, euskara izan dela honetan ere hizkuntza klasikoiei bidea erakutzi diena. Aditz zaharrak ez ziren nahiko gizarteko jakinduria berria osoan adierazteko, hagatik jainkozko edo giza arketipoen aurrizkien bitartez euren esana orokortu, bermatu edo, ostera, zehaztu, baitatu edo etxekotu egiten da. Horrela *auzi/in-auzi* dator, onerako auzketa berezia adierazten eta *kurtu/ma-kurtu*, errito ohikuna zehazten. Era berean *inutu/je-inhatu*, jainkoei egokien arazoa, gizarteko egiten denean, edo “*otzi/ja-utzi*” dator ekintza kosmikoa gizakiak egiten duenarekin bereizteko, etab. Inoiz jatorrizko forma aztu eta urrena erabilten da, *in/ekin* formetan bezala. Ohar *izio/bizi* gizatu zan, eta gero *bizi/berbizi* > *birbizi* indartu, erromanikoei “*per-vivir*” eredia utzirik. Aurrizkion bidez aditzen kopurua zazpitan zazpi ugaritu zan formaz eta edukinaz. Gainera, aditz batzuk bat baino aurrizki-preposizio gehiago har-

tzen dute, hala *etsi* “amoreman, uste izan” *autetsi*, *eretsi*, *artetsi*, *sinetsi*, *asketsi*, etab. eta *poner* erromanikoak *imponer*, *proponer*, *suponer*, *reponer*, *componer*, etab.

Aditzen aurrizkia jatorriz latina edo grekoa baino lehenago, euskalduna denarren, hizkuntza klasikoetan nabarmenagoa da idatziairen berdintasunagaitik eta euskararen, berriz, ez nabariagoa azterlari askoretzat, formen aldagarriagatik. Arketipo bakoitzetik eman go ditugun exenpluetatik ikusiko da arazoa zertan den. Exenpluen artean erdera ere sartzen da, familia bereko fenomeno dela azpimarratzearen. Sail bitan jarriko ditugu, arketipoen zahartzaroari begiratuz, jainko arketipoak lehenengo, giza arketipoak hurrengo.

4.2.1. Jainkozko arketipoak hitz-aditzen aurrizki

An “zeru” arketipoari egokion goia, zabala, eta mendea dena adieraztea *ana-*, *an-*, *-en*, *em-*, *ma-*, *-in*, *im-*, *ante-* aurrizki soil edo konposatuetan. Aditz zaharra *baino*⁽⁹⁾ “abiatu” eta */ana-baino*⁽⁹⁾ “igon” esan nahi du, *baratu* “gelditu”/ *anbaratu* “zangoen auleziaz gelditu”, *bildu* “jiraka batu”/ *anbildu* “goitik beheraka”, *hil/amil*, *aitu* “eukiak agortu”/ *enaitu* “nekatu”, *faino*⁽⁹⁾ “argitu”/ *emfaino*⁽⁹⁾ “azaldu”, *autzi* “puzkatu”/ *inauzi* “kimuak moztu”, orobat *poner/imponer*, *mendu* “xertu”/ *enmendatu* “zuzendu”, *creerse/engreirse*, “uzte izan/harrotu”, *ire* “joan”/ *anteire*⁽⁹⁾ “aurretik joan”, *etsi* “eritxi”/ *andietsi* “goretzi”, etab.

Aurrizkiok hitzetan gutxiago nabaritzen dira, hala ere hor dira *enangeru*, *endone*, *ingiro*, *amantal*, *enparadu*, *inviabile*, etab.

Utu “eguzki” *aut-*, *to-*, *txo-*, *su-*, *so-*, *os-* aurrizkiez indartzen eta orokortzen du jatorrizko aditzaren edukina. Honela “eman=uste izan”/ *hauteman* “aztertu” egiten du, *hildu/thoildu*, *kartu/txokartu*, *kartu/txokarratu* > *socarrar*, *mindu/sumindu*, *erosi/sorosi*, ekintza fisikoa moral ekintzaz lotzen duela, *correr/socorrer*, *hartu/osartu*. Atzizki konposatuetan *sub-*⁽¹⁰⁾ “azpian” eta *sober-* > *super-*⁽¹⁰⁾ > *sobre-* “gainean”, *abaldu* edo *indartu* egiten du aditzen edukina, alde bate-

10 Jatorriz: *su+-bera*, “jokera”, *subera* “sutsu” > *super*⁽¹⁰⁾/*sober*. Beraz, *soberatu* > *sobrar*, *superare*⁽¹⁰⁾ > *superar*, etab.

tik *beatu/sopeatu, eltu/soltu, eldu/soldu, portar/soportar*, subestimar, *subermatu, superfluere⁽¹⁾, sobreseír*, etab. *Utu* analogietariko da *ate*, bere une izatetik “ahalbide, indar” adieraztera iritxi dena kultura guztietan, bereak dira *ta-, at-, ad-, ats-, az-, -azt-, za-* aurrizkiak, hala *harrotu/tarrotu, lapastu/talapastu, oratu/atoratu, mirar/admirar, tentare/attentare⁽¹⁾, “tentar/atentar”, antu “harrotu”/atsantu “men egin”, oratu/azoratu “heldu/aztoratu”, batu “bildu”/tapatu>zapatu “izkutau”, apaldu/zapaldu, kartu/zakartu*, etab.

Hitz arruntetan ere erabili ohi da: *sober>sobervio, soru, sumin, zoez, zopenco, lakar/zalakar, lantza/zalantza*, etab.

Erra arketipoa ere aberatza da hitzak eta aditzak bermatzeko aurrizkietan *arra-, arre-, erre-, re-, era-, er-, ir-, ri-*, hala *biztu/arrabiztu, egosi/arregosi, hesi “mendetu”/erresi “beratu”, mover/remover, entzun/erantzun, austu/errastu, atxiki/iraxiki, hasi/irasi, acordarse/recordar, ricordare⁽¹⁾*, etab. Izen arruntetan ere erabili ohi da, hola *eredu, eraspen, erastun, revuelo, resorte*, etab.

Bestetan bezala, *Ilu* leinua urriago da euskarako aurrizkien munduan, grekoan baino, adibidez. Bere seinuak *al-, el-, la-* era askotara mugitzen dute aditz soilaren edukina, hala *egin/alegin, erran “esan”/elerran “hitz egin”, abaindu/labaindu, leipo⁽¹⁾ “utzi”/elleipo⁽¹⁾ “atzean utzi”, lego⁽¹⁾ “hartu”/ellego⁽¹⁾ “aukeratu”, etab. Hitz arruntetan ere erabili ohi da: *halabehar, alabaina, alajainko, alagina, laina, elgorri*, etab.*

4.2.2. Giza arketipoak hitz-aditzen aurrizki

Jainko arketipoen ostean, zati bat geroago, giza arketipoek ere aditzaren iraultza jarraitu zuten *ak-, ek-, eg-, oc-, ku-, ac-, ik-, ig-, gora-* aurrizki edo preposizioekin. *Ka* arketipoak giza mailara dakar aditzaren edukina, hala *aitu/akaitu, nizo⁽¹⁾ “ikuzi”/eknizo⁽¹⁾ “garbitu”, currere⁽¹⁾ “kurri”/occurrere⁽¹⁾ “bidera urten”, bildu/kubildu, ortzi/egortzi¹¹, ceder/acceder, arri/ekarri, eron/igaro(n), urtu/igurtu “restregar”, aipatu/goraipatu “aitatu/goretzi”, etzi/goretzi, etab.*

11 Euskararen hazkunde lekuko da *otzi/ortzi/egortzi* andana monosilabotik aglutinatura, izadiko ekintzatik giza ekintzara. Hala ere, *egortzi>ehortzi* egin edo gomendatzeak hizkuntzaren argitasuna eragotz dezake.

Ka arketipoak jainkozko beste arketipoekin elkaturik, aurrizki konposatuak egiten ditu *kan-, gan-¹², gain-, kata-, gata-, gatxa-, kara-, gara-, gora-, kala, gala-, con-/com-*, hala *lotu/katalotu, baino⁽¹⁾ “ibili”/katabaino⁽¹⁾ “jatxi”, antu/gatxantu, hartu/gainartu, askatu/gataskatu, ikatu/goraikatu, aipatu/goraipatu, erratu/kalierratu, kidatu/galkidatu, damnare⁽¹⁾ “kaltetu”/comdemnare⁽¹⁾*, etab.

Hitz arruntetan ere agertzen dira aurrizkiok: *celariu/cancelariu⁽¹⁾, dorre/gandor, gar/gangar, natu/katanadu, koxkol/katakoxkol, malo/katamalo, espen/gorespen, pita/kalapita*, etab.

Ba arketipoa aberatza da aurrizki-preposizioetan *ab-/ap-/af-, be-, bi-, apo-, epi-, ob-/op-, upo-*, hala *harrikatu/abarrikatu, haindu/apaindu, itaitu/afaitatu, eman/beheman, hezi/bezi, izio/bizi, baino⁽¹⁾ “ibili”/apobaino⁽¹⁾ “abiatu”, didomi⁽¹⁾ “eman”/epididomi⁽¹⁾ “gehitu”, etsi/opetsi, tener/obtener, lio⁽¹⁾ “askatu”/upolio⁽¹⁾ “liberatu”, etab. *Ba+Erra bera/bere* “ideko, bere, berriz, benazko”, etab. esanguratzu da *bar-, para-, ber-/per-, uper-/iper-, peri-, bir-, pre*, atzizkietan, hala *duin/bardin, factu⁽¹⁾ “egina”/perfectu⁽¹⁾ “ondo egina”, hezi/bezi, baino⁽¹⁾ “ibili”/parabaino⁽¹⁾ “aurreratu”, dare⁽¹⁾ “eman”/perdere⁽¹⁾ “galdu”, ejo⁽¹⁾ “eduki”/uperejo⁽¹⁾ “eutsi”, biztu/berbiztu>birbiztu, etab. *Ba+As* konposatuak *bas-, pas-, fas-, abs*, baitara dakar ekintza, hala, *ertu/baztertu, estitu “atzeratu”/fastidiar, estikatu “atzera bidaldu”/pastikatu, umotu/pasmotu, tenerse/abstenerse*, etab. *Ba+oru>boru/buru¹³>fro-/pro-* dator “zuzen, aldeko” adierazten, hala *burukatu “eztabaidatu”/frogatu, poner/proponer, ago⁽¹⁾ “zuzendu”/proago⁽¹⁾ “aurrera eraman”, etab.***

As arketipoak *se-, etxa-, ja-, je-, as-, az-, ex-, s-* atzizkiez zehaztu eta baitaratu egiten du jatorrizko aditzaren edukina, hala *ihesi/*

12 Toponimia lekuko dugula, aurrizki/atzizkiok euskarak bereak ditu, eta bereak bezala ulertzen ditu: *Kanada/Atiagane, Katabera/Bergaza, Garatxa/Azagra, Galbera/Birgala*, etab.

13 Jatorriz *oru/boru>buru* dator gizatasunera, tokizenetan bezala: *Orobio/Borobio, Uriona/Buron, Uriko/Burgo*, etab. Edukinez ugarria da *buru* “unez goi, lehen, jabetasun”. Hortik *buru>puru⁽¹⁾ “garbi”* eta *pur⁽¹⁾ “distira”*: “ekina >ren *puruz*”, “*puri-purian*” esakeretan bezala. Jatorriz *buru+pe>burupe* “uste”>*froga/proba, burupetu>probatu* “ausartu/frogatu”, eta *burukatu>burukatu>purgar*.

sahietsi, *urt/jaurt*, *erria/exeri*, *traer/extraer*, *erun* “jasan”/etxaron, *baretu/aspertu*, *bildu/azpildu*, *ago*⁽⁹⁾ “eraman”/eisago⁽⁹⁾ “ekarri”, *eligere*⁽⁰⁾ “hautatu”/seligere⁽⁰⁾, “aukeratu”, *fero*⁽⁰⁾ “erun”/spero⁽⁰⁾, “itxaron”, *iritxi/jaritsi*, *ganditu/eskanditu*, *galdatu/escaldar*, *kardatu/escardar*, *kartu/eskartu*, *garatu/sagaratu*, etab. Forma konposatuetan *esku-*, *ezku*, *esk-* erabilten dira, hala: *oratu/eskoratu*, *ondu/eskondu*, *ondu/ezkondu*, *haintu/eskaintu*, *antzitu/eskantzitu*, *eratu* “egokitu”/eskuratu “jabetu”, etab.

Izen arruntekin ere ikusten da aurrizki hau: *en/sen*, *enek/zeinek*, *kar/eskar*, *kanu/eskanu*, *korta/eskorta*, *ekuri/eskier*, *kere-ta/sekereta*, *gertu/sekeretu* > *secretu*⁽⁰⁾, *ola/eskola*, etab.

Hizkuntza klasikoek, gregoak eta latinak mozkin ederrak atera zituzten preposizioetatik euren aditza zarkituen berrikuntzan, eta gure azterlariak, ostera, haien jarraile izan bildurrez-edo, zalantzan jarri edo ezikusia egin zioten gure altxorari. Igarria bai-da, euskarak, beste hizkuntzek ez bezala, aurrizkion esanahia ulertzen duena, ezin liezaioke soilik hitzen konposizioari egotsi, aurrizkiaren arazoa ere badena.

Hizkuntzen zazpi arketipoen jokua ezagutzea laguntza handia da euskararen egiturak ezagutu eta oroimenean gorde ahal izateko. Euskal gramatikoek ere, erromanikoek bezala, aditz aurrizkien egiturak erabili beharko lituzkete euskararen irakaskuntzan, gure asaben taxuketa bertan behera aztu eta euskera gure belarrietan den baino soinu arraroagoa egin ez dakigun.

4.3.1. NOR-NORI-ZER jokua aditzean

Euskarak, sumererak bezala, aditz erro aldaezinen inguru bildutako artizizkiekin josten zituari pertsonen eta gauzen arteko harremanak, NOR-NORI-ZER harremanak alegia eta NOIZ orain, lehen eta geroko aldien xegunak¹⁴. Aurretiaz ikusita daukagu izenordeen analogia. (Ikus 2° eskeman) Eurotan sumeriar jainkoenak dira lehen eta bigarren pertsona, zenbakietan *unu/hona*, *duo/dui* datozenak eta hirugarrena, berriz, kamito-semitar *Erra* eta *Ilu*

jainkoenak, zenbakietan *hiru* eta *lau* ordezkatzan dituztela. Hala ere, hirugarren NOR seinua, lehenagoko ohiturari jarraiki-edo, *da-*, *d-* irauten du intransitiboetan *da.tor*, *d.oa*, eta egitura bera da ZER objetoa seinalatzen duena *da.kar*, *d.irau* eta forma bera da *-da-*, *-t* NORK sujetoa *da.kar.t*, *da.kar.da.n* ordezkatzan duena.

Aditza hiru pertsonekin jokatuero gero, *na.tor*, *ha.tor*, *da.tor* egiten dute intransitiboek eta *da.kar.t*, *da.kar.n*, *da.kar* transitiboek. Dakusagunez, hasierako aditz jokuan buru nahiko ziran sumeriar jainkozko arketipoak, baina NORK kuntzea bereiztekotan *-n/-k* eta, beraz *da.kar.n/da.kar.k* erabagi zuten zati bat geroago.

Gizartea antolatzen zenean eta familian “etxe” *ekua*⁽⁹⁾ izentatu, NORTZU egitura bertatik *gu* aurreratu zan, intransitiboan aurrizki seinu ugarikor dela *ga.to*⁽⁹⁾.z, *g.oa.z*, eta atzizki, transitiboan *da.kar.gu/da.kar.gu.z*, *da.roa.gu/da.roa.gu.z*, etab. edo *-ki-* ugarikorrarekin lagundu azaltzen du, *da.kar.ki-gu*, *da.kar.z.ki-gu* eginez euskalki batzuean.

Garai berean sortu zan adizkeretako NORI seinua, ni hari *-ko*, *-ki*, *-kio* dela: *na.tor.ko/na.tor.kio*, ni hiri: *na.tor.kik/na.tor.kin*, ni haiei *-kie*: *na.tor.kie* dela, ni zuri: *na.tor.tzu/na.tor.kizu*, gu hari: *ga.tor.ko.z/ga.to.z.kio*, ha niri: *dia.tor.t/da.tor.kit*, hi niri: *ha.tor.kit*, ha guri: *dia.tor.ku/da.tor.kigu*, etab.

Transitiboetako NORK+NORI+ZER seinuetan balore berdinak erabiltzen dira: nik hari: *da.kar.tso.t/da.kar.kio.t*, nik hiri: *da.karr.at*, nik zuri: *da.kar.tzu.t/da.kar.kizu.t*, nik haiei: *da.kar.tse.t/da.kar.kie.t*. Jainko arketipodun formak zaharragoak dira, giza arketipoek ere baliatzen direnak baino, giza arketipoak jainko arketipoekin harremanak zehazteko sortu bai-ziran.

Forma trinkoen ostean adizkera lagunduek ere egitura berdintsuak hartzen dituzte, aldiaren zehaztasuna aldatzen dela: ni hari: etorri *na.ia.ko/na.tza.io*, ni hiri: *na.ia.k/na.txa.k/na.txa.n*, ni haiei *-ke*, *-ie* formek seinalatzen dutela: *na.ia.ke/na.txa.ie*, ni zuri: *na.ia.tzu/na.tza.izu*, gu hari: *ga.ia.ko.z/ga.tza.iz.kio*, ha niri: *ja.t/za.it*, ha guri: *ja.ku/zai.gu*, etab.

Erritoaren inguru agintezkoak hasieratik izan zuan bere egitu-

14 BERGMANN, E., “SUMERI”, Enciclopedia Cattolica, Ed. C. Vaticano (1953) p. 1503.

ra oihuzkoen ondoan, maiz elkarrekin nastatzen direla: “Ino, in.da.zu”, “no, ono”, “Utu, to, tori”. (Ikus 10° laburgoan) Apurka joan ziran pertsonen harremanetako erreferentziak osatzen “to, tok, torizu, eutso, eutsok/eutson”, etab. forma zaharretan eta “hâ.tor.kit, ekar-da-k, egi.sta.k, da.kusa.gu.n” forma trinko edo lagunduetan “etor ha.kit, ekar eza.da.k”. Gaztelaniak euskara kuzua du “trâe.me.lo, ház.me.lo, veá.mos.lo, etab.” formetan.

Erritoetan hitzak argitzen zituan ohikunak, nork zein jainkori egiten zizkion eskeintzak, nork zerk eskatzen zuan, eta guzti hori aditzaren barne zehaztasunetan azaltzen zan, jainkoek ere hainbat argien ezagutu ahal zezaten gizakien eskabidea eta *esan/izan* arteziaz asmoa egizta. Halako zehaztasunak lehenbizi jainko arketipoen eta urren giza arketipoen zehaztu adizkerak sortu zituan.

4.3.2. Aldien jokua aditzean

Aditza pertsonen arteko ekintzen harremana ezeze, ekintza beraren ordua seinatzen du oraina, igaroa eta geroa bereziz. Oraina forma arrunta dela, igarok *An* arketipotik hartzen du antxinatasun seinua, NOR pertsonari eta aditz erroari lotua, NORK+ZER egiturari: nator/nentorren, hator/hen.torr.en, dator/etorren/z.ettor.en, gator/gen.toz.an, etab. aurkatzen direla intransitiboetan eta transitiboetan, berriz, dakart/nen.karr.en, dakarn/hen.karr.en, dakar/ekarr.en, dakargu/gen.karr.en, etab.

NOR edo NORK+NOR denean, NOR egiturak *nin-*, *nind-* forma hartzen dute: *nintzan*, *hintzan*, *zan*, *gintzazan/ginan*, etab., hik ni: *nind.ekarr.a.n/nind.ekar.na.n*, *nind.ekar.zu.n*, etab. nik hi: *hind.ekar.da.n*, guk hi: *hind.ekar.gu.n*, zuek gu: *gind.ekar.zu.en*, etab. Forma trinkoen ostean forma lagunduek ere egitura berbera hartzen dute: *ekarri nin.du.n/nin.du.en*, *nin.du.zu.n*, *hin.du.da.n*, *hin.du.gu.n*, etab.

Noiz gerokoak ekintza eginkizun egiten du gurazko arazoa bezala edo subjuntiboari lotuz. Hala gerta ohi da intransitiboetan *Utu* arketipoari eskatu *-te/-ite* atzikietan: “izan da.te, etor da.ite/joan be.ite/joan na.ite.n/ibil ga.ite.z.en, etab. eta *-ke* transitiboetan: “berak da.kar.ke/ba da.gi.ke.gu/Jainkoak sor de.za.ke”, etab.

10° laburgoa: AGINTEZKO ADIZKERAK ZAHARRAK						
AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AS
indazu	to/tori/toma	arri/arrea	hel/hil	iguk	bida/bea	txek/txen
ono/emak	otso/eutso/ten	erak/erok	auli	akio/coge	binu/beki	esti
onaik/onain	tziauri/toz	eurt/erdu	laga	korri/ken	betor/ven	jaiki/jagi
enaugi	so/oa/jo	orden/ereik	ale/allez	goazen	bejoa/vé	sal/jali
mugi	tolle/tate	har/arzan	alde	ago/goaie	fer/vale	sto/stote
mira	adi/eutxi/da	orizu/orzu	eldu	ekan/kendu	bebil/vade	ezak/azan
mu'mintza	di/ixo/chitón	errak	lleva	gomak/calla	bedi/fala	esan/esak

Forma batzuk oihuzkoen antzekoak dira, naiz, adibidez, *jo!* oihuzkoak eta *jo* agintekoak bere aldean izan, baina *hel!* ohiua eta *hel* agintekoak asmo bereak sortuak dira.

Izan litekena ahal izateaz indartu nahi denean, *-iteke* aglutinatzen da intransitiboetan: “joan na.iteke/gel ha.iteke”, etab.

Adizkeretatik ere adierazten da NOIZ etorkizuna *-en*, *-ren*, *-ar*, *-ko*, *-go* ZEREN/ZERTAKO kasu ezagunetara: “joanen naiz, eginen du, etorriren da, jaustear dago, ibiliko gara, izango da”, etab. Partzipioetan *Erra* arketipoak NORA/ZERTARA baloreaz, *Utu* eduekin batera, *-tera/-tzera*, parte hartzen du: “sartzera doa/jolastera datoz/noiz noake zu ikustera?”, etab. *Erra* arketipoa da latin eta erromanikoen etorkizun eta baldintza seinu berezia *-ra*, *-ría*, *-era*, *-ero* eratara: “vendrá, saldría, viniera, amavero⁰⁾”, etab.

Adizkeren aldia denboraren egileei markatzea sor zaie eguzkiaren oreka jarraitzen zutenen errituzko hizkuntzan, *An* “zerua” eta *Utu* sumeriar “eguzkia” eta *Erra* egitiar “eguzkia” bai-ziran denbora orokorraren neurria eta une bakoitzeko neurkina.

4.3.3. Gaitasuna, ahala eta beharra

Ekintzan, ahal izateak beste, beharrak arduratzen du gizakia, bada, *nahia ez da ahala*, ez beharra, askatasuna. Ahal izatea jainko leinuko ahalmena da eta gizakiarena, ostaz *kemena*. Beraz “*ahal dut, ahal banu*” egiturei giza *kemenak*, gauza dela adierazteko, apostu egiten die *-ke* arketipoa ezarriaz, batez ere, aditz lagungarrian: “oa.ke/ba z.oa.z.ke/joan na.ite.ke/egin de.za.ke.t/joan nein.te.ke.n/egin ne.za.ke.n”, etab. Hala ere, “ba n.oa.ke/egi.ke.zu” forma trinkoetan, joan edo egin ahala edo baimena aipatzen da, “saiatu na.ite.ke/ikasi da.gi.ke.gu/egin d.eza.ke.gu”

forma lagunduetan, ordea, joan, ikasi edo egin ahala eta apostua da eta halatan “saiatu, ikasi, egin” azpimarratzen dira. Latinak *ke* artizki honekin *queo*^o “ahal” aditza sortzen zuan “*dagike*” “*facere quit*”, “*quitus est*” “ahal izan zuan”, edo, ausaz “*kitu zuan*”.

Nahi izatea ahal izatea ez denarren, euskaldungoak giza *gaitasun* fisikoan ustea bailuen, *kai* izateaz >-*ke* seinu egiten du. Hagatik “egin *da.i/izan le.i/ezin ne.i*” formak ekintzaren zilegitasuna edo ezintasun morala adierazten dute. Guztiotan hizkuntzaren aukerak halako zehaztasunez egiten ziran, seinu bakoitzaren funtsaz ondo jabetu direnen artean. NOR+NORI jokuan -*ki*- seinua agertzen denean, -*ke*- balorearena ere berak egiten du, ez bai-da birritan arketipo bera zertan esan: “hilgo *li.tza.ki.t/eman da.i.kio/d.i.eza.kio/amoremongo le.u.ski.te*”, etab.

Ahal izatea maiz baldintzatu egiten da, egitura hauetan ikusten den lez: “galduko *nin.tza.ke/ba. na.kus.ke/ba.le.ite.ke*”, etab.

Ahalak eta gaitasunak frogatu direneko, beharra *behar* norbere arduretako aditz egiten da: “*egin behar/izan behar/joan behar-ko*”, etab. Beraz “*egin behar dut/igon behar dut/ikasi behar dut*” etab. Noizteinka “*behartu nago, joan behar naiz*”, bada beharra objetiboa den beste, “baitako arra” *be+ar* ere ba da. Guzti horrek behartzen du gizakia, eta beharra, ekidin ezineko legea bezala, sortzen da orduan, “*ezkontzeko emakumea behar*” esaten denean bezala, gizarte ondo eratu edo norbere baita konponduan bete-behar egiten direnak. Euskal gogoak, *Erra* egitiar jainkoaren arduratik bezala, *ar* hori *hartu* eta burua ateratera *behartzen* du, asanben teologiaz eskarmentatuaren bizi-maina egiten duela.

Izlar ere, hamasei urtedun gau beranduan eta buruko ileak nastu xamar etxera etorri zenean, amaren agirika garratza eta aitararen arpegi zorrotza ikusi zituanean, Eguzki jaunaren atarian ere noizbeinka Hodeia Adar bihurtzen dela ulertu zuan. “Honek al dira erretiratzeko orduak?” “Ez al daiket, bada, egin beste lagunek egiten dutena?” “Etxe honetan bizi zareino, zuk agintzen jatzuna egingo dozu”. Eta bakearren, Eguzkiaren abegi onerako, bedatzea bedatea ere ba zela ulertu behar izan zuan, *beda/beta, beta/bete* euskarak dituen hizkunen arteziarekin.

ONDORENA

Arketipoetatik harako hitz monosilaboek, berez edukinez ugari direlarik ere, hizkuntzaren zaulidura orduan hazierako hitzaren aurrizki eta atzizki izatera prestatzen dira. Arketipo aglutinatu edo hitz konposatuak aurreku-atzezku joku bera jarraitu zuten, maiz aurretik doan zatikia noiz den konposagaia ta noiz preposizioa berezi behar direla, euskara, hitz arruntean dela edo aditzean, zati-ki bien edo hirukoitzen nortasuna ezagutzeko gei da-eta.

Aurrizki-atzizkiok egituraz eta ofizioz harrobi beretikoak direla egiztatzean, konturatzen gara hein baten mediterranean inguruko hizkuntzak arketipo bereetatik inutu direna, euskara bezalako hizkuntza zaharrak asmoz eta jakitez bideari jarraitu ziotelako eta grekoak, latinak eta erromanikoek, ordea, jatorrizko kultura bereko hizkuntzen azpiegiturak bultzatzen zituelako.

Harrigarria da hizkuntzaren egitura zazpitan zazpi hazten eta handitzen doala, hiztunaren oroimenak eta ulermenak egin bideetatik jarrai dezakeela ezkerara edo eskumara bide erratu gabe, arketipoen zuzia beti aurretik dioakola. Harrigarria, orobat, arketipo bakoitzak bere arazoa betetzen duela, batak bestearen alorra gehitu, berezi eta argitu bai, baino zapaldu gabe, sinboloak nabariak direnean, hizlaria ikusi-sentituekin akort delako.

Odoleko genesen zirrara gutxi gora-behera, gaurdaino *asmoz eta jakitez* mamindu dugun euskaraganako deduak, maitasunak eta ikasi dugun eskolak mantenduko du gero ere euskal altxorra oroitzen galkorraren igaduratik. Genesak gutxi gora-behera, ematen dugun eskolak balioko digu herria eraikitzen, eta genesak ez bai-dira berez euskaldunak edo ez-euskaldunak, gehiago balio diezaikigu euskaldunen odol bako euskaldun baltz batek, euskal odoleko erdaldun batek baino. Izan ere, gurean gero eta gehiago, *asmoz eta jakitez* da bat euskaldun eta *asmoz eta ez jakitez* erdaldun ere. Eta hasierako euskara asmoa, genesen berezko lorea barik, eskola eta heziketaren ondorea denez, euskal normalizapenetik datorren herrigintza ere ideko lanaren eta ikasiaren frutua izango da.

V. ADITZIZENDUEN JOSKERA

5.1. Hizkuntza ala pentsamendua da lehenengo

Galdera bitxi honek orduak eta orduak bete izan ditu hizkuntzariaren eskolan: batzuk hizkuntza dela lehenago, pentsamendua baino, bada hizkuntzarik ezean, nola berba egin? Beste batzuk pentsamendua dela lehenago, hizkuntza baino, bada, pentsamendu barik, zertaz berba egin? Harakoak, “nativista” edo “genetista” deituak, nonbait hizkuntzaren hasimasien disketea aldean dutela jaiotzen omen dira, umeak ogia besapean dutela, esan ohi den bezala, honakoak “eskolazale” deituak, hizpide diren irudikizunak bezala, hizkuntza eskola eta ariketaren puruz egokitzen dela pentsamenduaren serbitzari eta molde izatera.

Bata bestearen harremanetan hizkuntzak eta pentsamenduak batak bestea kutza dezakela egokitze mailan, bat pentsakizunez ugari eta hizkeraz motel izateraino edo alderantziz, batzuk etorri oneko eta besteak, berriz, murriz izateraino, baina herri jakinduriaren susmotan, hitzontzia berez ez da pentsakeraz joria, ez murrizta pentsakeraz urria. Bietan serbitzaria zein den begiratu behar da. Eta honetan, aipatu jakinduriak “bihotzaren giltza, mihi-na” dino, edo “birritan pentsa eta baten esan” aholkatzen du, eta hareago, “pentsatu barik esaten duenak pentsatzen ez duena esaten du”. Honela ebasten du behenipehin herri jakinduriak.

Chomsky autorearen gardiz, hala ere, hizkuntza-gailu bezalako mekanika ezarria omen du jaioberriak barnean, deigun kaskuko garauetan kokatu, urteekin beste edozein soin atal bailitzan, hazten dena eta ingurutik jasotzen dituen berrien aurretik akordatzen duena, eta horrela hizkuntza-gailuak adimena, oroimena, oharpena iratzartu eta gidatzen dituela, bestela beharrez, hau da, oroimena, oharpenak eta adimenak hizkera esnatu eta gidatzea, hizketa gaietan, beti ere, esan-ezinaz hitz egiten bai-da hareago, pentsatzezinaz baino. Sentzuketan entzumena da jaiotzetik hazkunde osoko den organoa eta gainerako sentzuak, estarria eta ahoko organoak bezela, urteekin azten doazenak eta nor bakoitzaren bai-

tako abisari izanez landa, zer esan eta zelan esan mezutzen dutenak. Nor hori ekintzarako prest dagoeneko, bere pentsamendua okatuko du, ordurako barnean egosi dituen esan baliabideekin. Umeak lehengoz “ama” ahozkatzen duenean, harrigarritu egiten da, inogandik entzuna bera errepikatzeko gei dela ohartzean eta etxekoek pozka ospatzen dute, “mintzoa askatu zaio umeari” esanez. Etxetik eskolara osatzen joango dira baliabideok, gogai bakoitzatza nola esan behar den irakatziz.

Itziar alabak, hala ere, ingeles ikastean, berak eguno pentsatu ez zituen gaien berri izan zuan eta lezioak errepikatuala ulertu zituan. Ingelesa ala ingeles ikasi behar asmoa zan lehenago? “Ama” izena, ala “ama!” oihukatu beharra lehenago? Itziarri euskara baino zati bat gehiago kostatzen zitzaion ingelesa ikastea, baina ariketaz-ariketa aurrera eginik, tituloa ere lortu du gero lanpostu egokiren bat izatekotan. Beraz, Itziarren ingelesa ere aurre-asmo eta pentsamenduaren mirabetzan dago.

Pentsamenduaren eta hizkuntzaren arteko harremanetaz arduratzen den zientziari psikolinguistika deritso eta giza baitako hizkuntza baliabideen burutzea halako eskarmenduz azaldu nahiko lana hartzen du eta ondoretan azaldu ditugun teorien “giza automata zoritsua” edo “giza artista saiatua” aipatzen dutenak. Bata eta bestea elkartu nahi lukenik ere ba da eta eztabaidaren bakegileok psikolinguistikaz landa, soziolinguistikaz aritzen dira.

5.2. Aditz izenduen joskera

Gure asabek euskara asmakeran izan zuten asmo edo pentsamenduaren berri jakiteko, orain zortzi bat mila urte bizi izan zen Sumerrera jotzen dugu, haiek idatziz eman zutena guk ahoz-ahoz ikasi izan dugunarekin bateratsu ete datorren jakiteko, beti ere M. Müller erlijio gonbaratuen maisuak zinoena gogoan izanik, “filologia eta mitografia gonbaratuak geure historia ulertarazten bai-digute”.

Aditz izendua, sumerieran ere gertatzen denez, beste edozein hitz bezela, kasuak hartzeko gei egiten da, aditz subordinatuen joskera hitzen joskera bezela prestatzen duela. Euskararen deklinabide soila erraz egokitzen da eta honetan da, gehein bat, euska-

raren eta greko-erromanikoen arteko joskeraren aldea, haien deklinabidea, eskerka denagaitik, aditzizenduen soinera ezin egokitu dela eta, beraz, lokarri berdinduak, aurritzki jartzea erabagi zuten. Euskarak berak ere, aldameneko berrikuntzei nahiko idekia izaki, ez dio noizteinka iguin egiten konjuntzioz joste horri, batez ere hegoaldeko testo euskaratuetan. Hala, kausa adierazteko galdegaia egitura bereko joskerara lerratzen du: “zeren ez da hurruntzen?/por qué no se aleja? Zeren jatorri berekoak baidiren/porque son del mismo origen?”. Galdera berakin helburuko zioa izanez gero, erantzun ezbaikorak izango genituzke: “zeren ez direla hurruntzen? --Fedeari zintzo eustearren/por seguir fieles a la fe/zeren fedeari zintzo eutsi nahi bai-diotte”.

Erromanikoen eta euskararen arteko aldea funtsezkoa barik, joskeraren azalekoa dela frogatzeko, hoiekiko exenpluak ere noiztenka jarri egingo ditugu. Funtzezko izatea arketipo beretiko baliabideak izan eta joste-helburu berdintsuak izatetik dator, ez lokarriak aurretik edo ostetik jartzetik. Adibidez, “(hak) eginda-ko lana/opus quod fecit⁽¹⁾” exenpluan erlatibotasuna arketipo ber-berekin konponduta dago, baina era ezberdinean. Halaber gurazko perpausa honetan: “entzun daizula, otian/utinam audires⁽¹⁾” eurotan esaldi burua oihuzkoa dela. Era berean aldizko honetan: “begira ezak lana egiterakoan/te advierto para cuando hagas el trabajo” Ikustea baino ez dago -rakoan atzizki konposatua eta “para cuando” multsoa NOIZ etorkizuna arketipo bere-tsuekin josten dutela.

5.3. Ohiuzkoetatik “gramatikazko orazioetara”

Hobeki ulertuko litzate, “otoizkera soiletik otoizkera konpondura” esanez gero, nahiz maisu kaderatiek iguin duten halako terminologia. Ohiuzkoa behin-behinezko otoia da, hurraren ahotan “ama” oihua bezala. Gramatikari dagokio gero ohiuzkoak zer esan nahi duen azaltzea. Amak ba daki gehien bat umeak zer behar duen, baina nola jakin jainkoek ulertu ote duten eskaria? Gramatikak azalduko du ohiuzkoen badaezpadakoa, hitz konponduak esan/izan arteziaz egizta ahal dezan eskale eta jainko emaleen artekoa.

Ohiuzko deietan dago ZER kasuko, opatzeko, ziozko, amore-mateko, helburuzko, baldintzako, etab. perpausen hazia. Ohiuzkoetan An/Ino (Ikus 1^o laburgoa) jainkoari ene! ohiuak gero arketipo beraz seinutzen du helburua: “indazu, ene, lor dezadan”. Beraz, Inu/in, An/ene behinbehinezko hizkuneak hazi egin dira “in.da.zu” eta “de.za. da.n” adizkeretan, eskaria eta helburua ots berak oratzen dituela.

Utu iduzkiari egin otoian ere otoi! ohiua helburuari lotzen da: otoi, egin dadin/“ut fiat”, latinak ut konjuntzioara eta euskarak edin aditz lagungarrira lotzen dutela otoi! aditz burua. Erra iruzkiari egin orroa “arren” da eta helburu zioak -arren errepikatzen du: “arren natorkizu, mesedea lortzearren/quare recipiam⁽¹⁾/porque (yo) consiga”, etab. Ilu jainkoari egin oihuak, halaber, hel! dino eta -la seinura lotzen du helburua: “hel!, ikus dezadala”. Otoi denetan deia eta jainko izena ber-bera da eta euren durundiak dirau helburuzko seinuan.

Giza arketipoek giza kariak seinalatzen dute eta aldien orokorra giza epera zehazten dute jainko arketipoen laguntzaz: “egin dueneko/para cuando lo ha hecho” edo bere esparruko arrazoi-bide egiten: “zergatik egin du?/quare fecit?⁽¹⁾/car⁽¹⁾/por qué?”, euskarak eta erromanikoek “ze kariaz/quare/por qué causa”, etab. seinu elkarkideak dituztela. Kauta>kausa dator: “sorrakatik/a causa de las deudas”, “bildur izateagatik”, “bildur delako (zioagatik)/a causa del miedo/porque teme/quia timet⁽¹⁾”, etab.

5.4.1. Aditzizenduen joskera An arketipoz

Sumerreko mitoen idazkietan maiz ikusten ditugu euskarak -an seinuaz biltzen dituen NON/NOIZ kasuak eta -en atzizkera jositako NOIN/NOREN egiturak, euskaraz erabat NOREN/ZEIN direnak, hau da jabea eta erlatiboa lotzen dituenak eta gehientasun atzizkiarekin ere bat datozenak: “ederren/el más hermoso”, edo aurritzian gonbaratzeko dena: “hain eder/tan hermoso”. Edo Gilgamesen irakurten denez: “Ez ote naiz Enkiduren aina izango/no voy a ser tanto como Enkidu?” (IX,1,3)¹. “Zein da gizonen artean ederren/

1 Gilgamesh, ANET, 72-79,83,-90,92-97,514-515.

quién de los hombres (*hominum*⁰¹) es el *más* hermoso?” (VI,182) “Hitzok entzutean, Aruruk erantzuna asmatu zuan Anurentzat bere baitan”/cuando oyó estas palabras, Aruru concibió en su ánimo una respuesta para Anu” (I,I,33). (Hizki makurrean doaz An arketipotik analogizatu seinuak eta hala gainerako arketipoetan).

Seinu berak *-en, -n* atzizkira adierazten du helburua, opa izatekoa eta maiz agintezkoa² eta ZER kasukoa: “goazen, zure arpegia ikus dezan/vamos, a *fin* de que vea tu rostro” (I,V, 4). “Enkiduk aztu egin du *non* jaio den/Enkidu ha olvidado dónde ha nacido” (II,II,4). “Zerren dago Gilgames *hain* kezkatu/porqué está Gilgamés tan angustiado?” (X, V,37). Mugako kasua *-ino, -gino* atzizkiez adierazten da: “gaisetetik haien tontorrek zeruagino ikutzen dute” (IX, II,4) eta amorematekoa sortzen: “ikusteak hiltzerainoko sarrakioa sortarazten du/verlos causa tanto miedo que es como morir” (IX,II,7). Sumerreko jakinduria literaturan joskera berdina aurkitzen da: “haren mentua Enlilbandaren *heinekoa* da/cuya (su) inteligencia es (tanto) como la de Enlilbanda”³, “Zein da mortuko espirituekin bakean joateko *aina*?/quién es tanto como para ir en paz entre los espíritus del desierto?”⁴.

NOREN kasuko seinalea ZEIN erlatiboarekin bat dator *-(e)n* atzizkira: “duen adina”, “datozen guztiak/cuantos vienen”, “datozenak/venientes”⁰¹, “datozenen/venientium”⁰¹, “laguntzen duten guztiak/todos cuantos ayudan/todos los ayudantes”, etab.

Sumertarrek otoi laburrak tartekatzen zituzten mitozko kondairetan eta jakinduriatzeko literaturan, goralpen *inoak* edo *aieneak* zirela⁵. Eta An arketipoak jotzen du helburuetan: “osa daiten/osa dadin/osatzearren/a *fin* de sanar”, “egin dezan/egin daian/a *fin* de que él haga”, orobat ZER kasukoetan, baikor-ekzorretan, edo ezbaikoetan: “egin daizun nahi du”, “ba dakit etorri dena”, “ez

1 Gilgamesh, ANET, 72-79,83,-90,92-97,514-515.

2 Goazen, noan, dagigun etab. agintezkoak opa balorekoak dira.

3 Enseñanza de Shube-awilum, 2, DB, n^o 26

4 Ibidem, 12

5 BERGMANN, E., *Enciclopedia Cattolica*, o. c., p. 1515. Cf: Euskarak Inoteko inoen akordua du edo aiene zeritzen negar kantu zaharra.

dakit etorri den/nescio *an* veniat⁰¹”; oihuzkoetan, soil edo konpontu, arketipo berarekin erantzuten du: *ainü, ainintz, otian/utinam*”, *ainü!* “*ojalá* tuviera”, jin *ainintz* “*ojalá* fuera”, *zein* eder den “*icúan* hermoso que es!” Nork berari edo taldeari eman aginduak opatzeko egitura bera dute: *noan/goazen, gatozan, dagigun, etab.* eta apozozko tonuak bereizten ditu forma arruntetatik.

Zioa azaltzen du preposizioaz: “*nam* venit⁰¹/zeren etorri bai-zen”, “*otian* bagatuko duzu/por lo tanto, lo pagarás”; osterako preposizioak ere lagungarri dute: “*baina, empero, sin embargo*”, esaldi ekzorretan: *sine, sin, etab.*, bai-ekzorretan; “*nai* batera, *nai* bestera”, amorematekoetan: *naiz* egin duen/*aunque* lo ha hecho”, “eginarren/*aún* haciendo”. Mugaraino ematen du *-ino* atzizkira: “*bizia* emateraino burua eman”, “*bizia* emateraino balitz ere/*aún* cuando (*aún* si) expusiera la vida”.

NOIZ kasuari erantzuten dio: “*ikustean/en* viendo”, “etorri *nintzanean/cum* venit⁰¹/*en* cuanto vino”, “etor daitenean/*dum* venerit⁰¹/*cuando* venga”, etab.

5.4.2. Aditizenduen joskera Utu arketipoz

Sumerreko jakinduriatzeko idazkien *otoi* ereduak jarraituz⁶, halako deiak ikusten ditugu: “entzun daizula, *otian!/utinam* audires⁰¹/*ojalá* prestes atención!”(10), “nire aholkua entzuna bedi, *otian!/ojalá* mi consejo sea oído” (150-151), “*otian* bere (*Uturen*) ondoan bizi zaitezana/*ojalá* vivas junto a él (*Utu*)/*utinam* vivas cum illo⁰¹!”(71-74) *Utu* iduzkiari egin opa deiak *otoi, tototoi*⁰¹, *uxala*> *ojala!* dira, esturasunean, *et!*, animalari usuak uxatzeko, *ux!*, *iox!*, abereak uxatzeko, *ots!*, besteen asmo edo xedeak ezezteko, *ut!*, *ospa!*, *itate!*, *ioxte!*, saminean, *otx!*, erretuan, *txut!*, ospakizun oihuetan “*uju, aturuxo* ^(9a)”, etab.

Sumertar Baradisuko otoiak ere *otoi* deiera du bikotearen ahotan “*Otoi, beti otan* zauden *Utu* (...) *Udd* garratza *udd* gozo bihurtu daizuala, *otian/ojalá* que conviertas el agua amarga en agua dulce”⁷.

6 La Enseñanza de Shuruppak, 71-74, DB, n^o 26, p. 45.

7 Enki and Ninhursag: a Paradise Myth, II, ANET- 37-41

Osterako perpausak *ostera*, *ostantzean*, *obstante* loturak erabil-tzen ditu, *Utu* iduzkiaren *otsi>ostetze* edutik. Hortik dator latinaren *obsto* “ostera ezarri” ere: “Ene otoitzak joriak dira (...), irainak eta zuntzunkeriak dira, *ostera*, Sumer irrikatzen dutenak!/Mis pala-bras de oración son abundantes (...), no *obstante*, proferir injurias, decir tonterías ieso es lo que interesa al país de Sumer! (144)⁸. Osterako perpausen lotura *Utu* iduzkiaren *ate*⁹ ere “indar” antzean aipatzen dute: *ata*, *at*, *atqui*¹⁰, *aitzitik*, *tamen/attamen*: “*ata* jainko ilezkorrekaitik/*at* per deos inmortales¹⁰”, “*aitzitik* uletzen dut/*tamen* intelligo¹⁰”, etab. Jakinduriatzko idazkietan ere ematen dira *osterako* oharrak, *-eta/bait-* atzizki edo aurrizki lokarrietara: “ez bortxatu inoren alaba, barridean beti jakingo litzake-*eta/bait-*litzaken (63).

Helburuko *otoi* egitura *ut*, *ad*¹⁰ konjuzio eta *-tzat* atzizkira lotzen dira eta *ite/ide/eza* aditz lagungarriez: “*ut* veniat¹⁰/etor dadintzat>etor dadin/etor daiten”, “*ad* opus faciendum¹⁰/lana egin dezantzat>dezan, etab.

Dudamudazkoetan ete-, *ote-*, *-ete*, *-ote* loturak erabilten dira aurrizki edo atzizki; “bai *otean*”, “ba *etedo*a/ba *do*ate”, “*oteda* pekatu hain handi?”

5.4.3. Aditzizenduen joskera Erra arketipoz

Erra arketipoaren ganora NORA/ZERTARA galdegaiek ematen digute euren erantzunean *-ra/para* atzizki edo konjuzio direla: “olgetara/para holgar”, edo eta eurekiko konposizio diren NORANTZ/NORAINO/ZERTARANTZ/ZERTARAINO: “prezioak igoterantz doaz”, “goia joteraingo dute”, etab. Bere arautik doa NORI kasua ere ZEIN erlatiboaren eskutik: “etorri denari/para el que ha venido”, etab.

Opa izatekoak *Erra* oroitazten digute, *arrenetan* bezala: “Entzun, *arren*, Jauna”, ejitiar jakinduriaren arabera: “bizitza heritza-oren jarraiko dadila, *arren!*”¹⁰. Zioak *arra-zioa* du indargarri

8 *La Enseñanza de Shuruppak*, 71-74, DB. n° 26, p. 45.

9 *Utu* iduzkiak bere sartu-urtenetako mendatea analogitzen du, atarte-*ra* inguratzen direnei *ate/at!* “atzero” galezten dien *tartalo* eta *atalanteek*.

10 *Las Instrucciones de Ank-Sesonqy*, X,25, DB, n°10

Egipton ere, *rason*¹¹ bai-da “Errari gogoko zaiona”, hagatik berak arreatzen du helburuen *arrazioa*: “eginzak zerbait Jainkoarren, *harek* zerbait halako itzul diezaan/cumple algo por el Dios, para que te devuelva algo parecido”¹¹, “ura eskatuko dute, *arrenetan* bezala, euren eleak edaraztearren/pedirán agua, como si suplicaran, para permitir que se abrevan sus rebaños”¹². Erantzunak ZERREN=¿POR qué? galderen ota dakar konjuzioetan: “*zerren/zeren* Yahwek gaizkileak gorroto dituen/por que/en razón de que Yahwe aborrece a los perversos”¹³ (Esa, 32).

Aipatu ditugunez, arrazioaren galdegaiek ere eredu bereko dira: “*zerren*, qua *re>quare>car* eta *per*, *por*, *propter* preposizioz eta *ergo* konjuzioaz egiten dute lokarri: “Arerioak erail zituen (...) *zeren*, bere aurka jarki-asmoa izan bai-zuten/mató a sus enemigos (...) porque proyectaban rebelarse contra él” (134). Bere ereduzko amorematekoa du: “*Erra* alde dago, urrun dagoenarren/Rê es favorable, por más que esté lejos”¹⁴. Argumentuen ondorea azpimarratzen “*ergu*¹⁵, beraz, por lo tanto” lotura konposatuak erabiltzen ditu: “erabagia da, beraz ixilik/decretum est, tace *ergo*¹⁵/está decidido, calla, por lo tanto”, etab.

Osterakoetan, *Utu* analogiaren parean, *Errarena* erabiltzen da “ordea, por contra” lotura konposatuetan: “Ez ezak bereizketarik egin leinargidun seme eta leinu arrunteko gizonaren artean, auke-*ra* itzak, *ordea*, bakoitza bere egiteekaitik/No hagas diferencia entre el hijo noble y un hombre vulgar, por contra, escoge a los hombres en función de sus obras”¹⁵.

11 *La Instrucción para el rey Mericarê*, 130, DB., n° 10.

12 *La profecía de Neferty*, 67-68, DB, n°28

13 Berez, “iguin dituelako arrazioagatik” esakera “iguin dituelako” gel-ditzen da ohituraz eta gehigarri bakarrik osatzen.

14 *La Enseñanza de Amenemope*, XXXV, 5, DB. n°10.

15 *La Instrucción para el rey Mericarê*, 65, DB., n° 10. Cf: Beraz *oste-ra/ordea* osterako lotura biek *Utu/Erra* aglutinatzen dituzte egituran.

5.4.4. Aditzizenduen joskera Ilu arketipoz

Ugariten¹⁶ sortu zan *Ilu* leinuaren literatura. Han agertzen dira honako esakerak: “Ahul batek ez *âl/ahal* du borrokan egin” (1. 6 I 50), “hire burua ulzi *ahal* dezaket” (1.3 V 24). Bere oihuzkoetatik opatzeko perpausetara pausu bat dago: “bai *ahal/ojalá!*”, “ez *ahal/ojalá* no!”, “etorriko *al* da!/iojalá venga” eta NOLA/NOIZ moduzkoetara: “*al* dela”, “burua zut *duela*”, “lotan zegoela” edo ZER kasukoa: “inork ez *dezala* jakin”, “jan *dezala*”, etab.

Baldintza ere *ahalaren* froga da eta baldintzakoen hirugarren pertsonan dager bere seinua: “*ahal* balitz/ondo *legoke*”, “Baldin Motuk ezpain bata lurrian jar *baleza/Si tal vez* Motu pusiera un labio en la tierra” (1.5. II 2).

Aldia moduarekin nastatzen du *-la* atzizkiak eta *al* konjuzioak: “Jainkoek jan eta edanala/*al* comer y beber los dioses” (1.6. III 12). “Kaletik etorriala/*al* venir por la calle”. Egituran berezi dira, baina gaiez berdinak.

Gonbaratzekoak lokarri konposatuak erabiltzen dituzte *lez*, *legez*, *tale⁽⁰⁾/tal*, bezala: “den bezala/*lez/tal* como es”, “*tali* modo⁽⁰⁾/de *tal* modo/*halatan*”. “Nolatan heltzen direla Gapnu eta Ugaru?” (1.3 III 36), “*hala biz*=“*hala* bedi”, *halagalako*, *halaginako/tal* así”, etab. Osterakoan ere lokarri konposatuan dager: “*Halabaina*, ez du etxolarik” (1.4. I 9).

Jainkozko lau arketipoen joskera moduak ikusita, esan genezake sumeriar *An* eta *Utu* eduak direla nagusi subordinaziozko lokarrietan eta eurak direla euskararen egitura zaharrenak. Hala ere, geroagoko etorkinen moda onartuz, lehenengo *Erra* ereduaren formak eta gero *Ilu/Al* leinuarenak ere hein batean onartuak izan zirela. Era berean ohartzekoa da subordinazioko atzizki edo preposizioen analogia arketipo bereetatik datorrela, nahiz joskera atzizkituan edo aurrizkituan berezia izan.

16 DEL OLMO LETE, G., *Mitos y Leyendas de Canaán*. (MLC) Hurrengo zenbakiak literatura hau seinalatzen dute.

5.4.5. Aditzizenduen joskera Ka arketipoz

Giza jakinduria izenorde adierazleetan agertzen da eta, hagatik, gizarte helduaren seinu dira: *kori/eken/ekhi/hako/kura* edo latinerrromanikoen *hic/haec/hoc, quisque⁽⁰⁾ aquél, cual*, etab. Orobat NOREN forma berezietan *gure/geure, cujus, cuyo/a* edo zenbanakoe-tan *gutti/guzti/guzi*, nahiko, *cuanto* eta ZEIN erlatiboetan, direla euskal atzizki *-ko, -neko, -lako, -dako* edo erdal konjuzio *qui/quae/quod, que, quale⁽⁰⁾, quando, donec, cual, como, cuando*, etab.

Zeintasuna adierazten du forma soilean *-(e)ko* edo konposatuan *-tako, -dako* partizipioei atzizkitua: “nik egineko lanak ez dira zuk idatzitakoak”. ZERTARIKO kasu hau izkutatzeko jokera dago literturan, ZEREN kasoan lez, hala “mendien izenak>mendi izenak/mendiko zaldiak>mendi zaldiak”, eta beraz: “nik egindako lanak>nik egin lanak”. Latinaren eta erromanikoen pasibotasuna gogarazten digute: “opera facta per me non sunt scripta per te/los trabajos hechos por mí no han sido escritos por tí”.

Adizkera petsonatuak ere *-lako* atzikiak edozein zertzelada adierazteko prestaten dira: moduzkoa, “etorri zelako ustetan”, zioduna, “esan zuelako arrazioz/en razón *de que* lo dijo”, “esan zuelako/porque lo dijo”, etab. *Ka* arketipoaren *karia* erakusten du aurrizki edo atzizki: *karia>quare⁽⁰⁾>car⁽⁰⁾, cur, quia, ca, quod⁽⁰⁾*, por *que, -gatik*: “zeren *kariaz/qua* de *causa⁽⁰⁾/a causa* de *qué*”, “Zergatik/¿por qué?” “Esana ez egiteagatik/*quia* non obedivit⁽⁰⁾/*ca* (por *que*) no obedeció”, etab.

Aldien zioa konpontzen du “-nez gero, -nezgero/*como*, luego *que*”, atzizki edo konjuzioara: “goiztiar etorri *zenez gero/como* vino temprano/luego *que* vino tarde”, edo aldiak zehazten *-neko, -nerako*, para *cuando*, atzizki edo konjuziora: “etorri *zeneko/para cuando* vino”, “etor daiteneko/*donec* veniat⁽⁰⁾/para *cuando* venga”, “*cum* venerit⁽⁰⁾/*cuando* viniere”, etab.

NOREN eta NONGO kasoak egitura bereziko dira “kaleen izenek/kaleko istilua”, nahiz erromanikoek *de* konjuzio berarekin josten dituzten. Euskarak soilean edo konposatuan forma biak darabiltza *-en/-neko* batean ZEIN erlatiboa “jan duen sagarra” eta bestean NOIZKO *-neko/en que* aldiaren zehaztasuna seinalatzen duela

“joan zeneko ordua/la hora *en que se fue*”. Horra, joskailu berberak eta jostura ezbardina. Erlatiboetan ZELAKOA den ere begiratzan da *-lako* atzizkira: “gezurra esan zuelako susmoa/la sospecha *de que había mentido*”, etab.

5.4.6. Aditzizenduen joskera Ba arketipoz

Ba arketipoaren nortasuna *baldintzatua* dago edo *Ka* kaizuari edo Beste norbaiti: “*ez bai-gaude geure baitan, beste norbaitenean baizik*”¹⁷. Bizi filosofia hau hitzetik ortzera gramatikan ere egiztatzen da adizkera guztiak *behar/haber* araura, *baldin, ba* baldintzara, *baina, pero* osterako zorira eta *ba, bait, pues, porque*, zioen azalpenera egokitzen denean. *Ba* arketipoaren filosofia garatu zuen egitiar jakindurian ikusiko dugu: “Errak barriri eraikitzen hasi *behar* du¹⁸/Ra tiene el *deber* de (*debe* de) *empezar a reconstruir*”. “Aserre berbarik ez da berriz erran *behar*, ez handi, ez txiki; horrek “*ka*”¹⁹ makaltzen *bai-du/No debe* repertirse una palabra de cólera, grande o pequeña; *pues* eso indispono al “*ka*”. *Ba behartu* eta *peituz* dago *preminan* eta pedagogia bereziaz erantzukizuna eskolatzen du baitatik analogizatu aurrizki eta atzizkiekin *ba, bai-, bada, bait-*, *-bai* edo ziozko konjuntzioekin *por, porque, pues, puesto* que, *propter*²⁰, hala: “*ez hil, ba* horrek ez dizu onurarik ekarriko/horrek ez *bai*-dizu onurarik ekarriko/no mates, *pues* eso no te aprobecharía²⁰”, “*zeuk loitu duzu, bada zeuk garbitu/zeuk garbiatu, zeuk loitu bait-duzu/zeuk loitu dozu-bai* eta *zeuk garbitu/puesto* que lo has hecho tú, tú respondes de ello”. Aditz buruak egin apostuari ondoriozko ebazpena prestatzen dio “*beraz, por* cosiguiente”, etab., konjuntziora: “aginduta dago, *beraz* bete egin *behar* da”.

Ba baitako jarrera *baikorra* edo *baldintzakoa* da *bai, ba-, balinba, ber-*: “*bai*, atso ikusten zena, gaur beheratu da (...)”

17 Beste norbatek *behartu* ala burua beste norbaiti emana, zinez beste norbaiti lotzea, erlijioa zinez estua “*religatio*”¹⁷ *bai-da* eta, *beraz*, sinestu edo sinetsiari emana.

18 *La profecía de Neferty*, 22, DB., n° 28.

19 *Las Máximas de Ptha-Hotep*, 7-5, DB. n° 10. Cf. “*ka*”=ganora, gana.

20 *La Instrucción para el rey Mericarê*, 45-50, DB. n° 26.

Balinba hau gizakien azkena izatea²¹. Egitiar jakinduriak honela ebazten du: “*Beraz, bera* (Erra) ezarduratu egin da/*Así pues*, él deja de proveer (...) Beroak jota dagoenari freskagarri pizka bat eman *behar* lioke/*debería* (*habría*) de proporcionar un poco de fresco al que está agobiado de calor”²².

Modu baldintzatuan mendeko aditzaren aurrizki *bai-* doa: “*lotan bailegon*”. Uste baldintzatuak *ber Bera* jartzen du lekuko eta atzizki bezala dator: “*ona den ber/ona izan* dadien *ber=ona* izatekotan”, orobat *bide*, ustea azpimarratzean “*joan bide* naiz”, etab.

Osterakoan *beheratu* egiten dute aditz nausiaren *ena* “*egia*” *b*-arketipora gizatzen denean: *ena/bena, aina/baina, era/bera*> *vero*²²>*pero, empero*, hala: “*baina* esanen dut/*vero* dicam²²/empero lo diré”; *baino, baizik* gonbaragarriak dira, “*ezpabere/ezpaere, bestela*” baloreko: “*ez dago otz, bero baino/bero baizik=ezpaere* bero”. *Ezpaere* balditzako zioa eta sinoa da: “*Zaude ixilik, ezpaere hartu* egingo duzu/cállate, *sino* vas a cobrar”. Barne hartzekoa da: “*zu ez, bera baino/tú no, pero* él sí (sino él)”, “*zu ere bai/tú también*” eta salbuespena: “*zu бага/bagarik/barik*”.

5.4.7. Aditzizenduen joskera As arketipoz

As arketipoak zeinbat kasuren galdegaia eratzen du *ze, ze+ari>zer, zetan/zertan, zelan, zergaitik, zerren*, etab., eta noizteinka konjuntziora erantzuten du: “*Zerren* dinozu? --*Ze* ez dakit datorren/*zeren* ez dakit datorren”; bestetan *ezen* lokarriaz josten du: *zeren* iruditzen zait *ezen* oraindiko bizi zarela”. Zioa ere azaltzen du: “*harzak bide* hau, *ezen* bestea lokaztua *bai-duk*”. Esamodu hoiek, erdal joskerak euskaratu beharrez, euskarari erantzetik datorke.

ZEREZ kasuak *-z, -az, -ez, -ezkero, -ez gero, lez, legez, ya que, así que, según, así como* baloreko atzizkiak eta lokarriak sortu ditu: “*etorri* denez *gero/ya que* ha venido”, “*etorri* denaz *batera/según* ha llegado”, “*ibiliaz* bakarrik”, “*ondo* dakizuenez/*egún* bien lo sabéis”, “*esan* duzun *legez/tal así como* lo has dicho”, etab.

21 *Las Lamentaciones de Ipu-ur*, V,10, DB, n° 26.

22 *Ibidem*, XII, 1

ONDORENA

Hitza jainko arketipoen eta giza arketipoen gurutzatzeaz osatzen denez, hizkuntza ere arketipo beretiko lokarriez jositako hitzen eta aditzizenen garapena da. Hizkuntzaren filosofian eta gramatikazko josturetan ez dago Jainko eta gizakiaren arteko ariekin konponduriko ehuna baino. Hizlariak hizkuntzaren ehuna bera du soineko, eta uneko modak artazikatu eta berjosi modeloen gainetik, ehunaren egitura eta kalitateak esan nahi du.

Hizkuntza ez da hutsetik sortzen eta hasieratik eta akaberaraino jaurritzen duen xede barik burutzen. Hizkuntzaren haurtzarotik heltzarora doan bide luzean gizakiaren bizi eskarmendua dager ezur eta mami eginik bere egituretan, ots, asaben pentsamoldeko balore ordezkotik diren arketipoetan. Jakinduria zaharretik jakinduria berrira, adibidez, *Ka* eta *Ba* giza jarrera ondotoxoa nabaritzen dela, alde batetik giza *galania* eta bestetik giza *apal-goa* eta ondoren, jainkoren aintzarako beharrezko eskakizun hau-teman zuan, erritoz lortu goitiko espirituaren santutasun *Asa*.

Sorreran hizkuntza jainkoei zuzendu oihua izan zan eta akaberan jainkoekiko itunbanean eratu otoitza, *oración gramatical*, alegia, gertatu. Izena aldaturik, *perpauza* ere deitu diezaioke, baina ez egiturak behar duen pausaz ohartu gabe, bada, “jainkoak itzurriaren, hor gelditzen da gramatika”, Nietzschek ohartu zuan bezala.

Zer esan orduan hizkuntzaz? Amaren errai ilunetan sortu zen doahietariako dela, ala gizaki argituaren xede eta aburuetan egosi zen barreneko historia, artea eta poetika? Hizkuntza ulermeneko ez den gauari, edo talde ohargabetuari egozte, gizakiari argibiderako ahalmena ostutzea ezeze, egiari lehioak iztea da, giza askatasunari hegoa moztu eta aduaren menpe uztea bezainbat.

Hizkuntzalariek hizkuntzaren jatorri bilakan uts egin dute, Neolitosko hizkuntza biziaren, deigun euskararen, lekukotasuna aintzat hartu ez zutelako, hagatik asabek zeru-lurrei ozendu eresi ederrena den hizkuntza euren ospeko edo ukapeneko eretxi egin dute, Linguistikari maiz “eritxi/airesi” autortzeraino.

VI. HIZKUNTZA ANALOGIAREN GURPILAN

6.1. *Hizkuntza norbere erazkin*

Hizkuntzaren egiturak xedez eta artesiak eratzen direnean, kerei-zak bezala datoz adimenera bata bestearen ondoren, hizlariaren ahotara. Kerei-zak bezala, hitzak ere batak besteari oratzeko eraskina dute, talde banatakoak kideko dira eta beste taldekoen lehengusuak eta, elkarren arteko ulerbidea ospatzearen, denak mahai berera gonbidatuak.

Hizkuntzaren eransgarritasuna hitzen eta egituren kordatze onean datza. Kordatze oneko hizkuntzak oroimena akordarazten du, hitza eratxi behar den unean. Ondo kordatua dagoke hizkuntza, beti arketipo bereei lotzen denean, ulergarri eta argia da, sorburuetatik hara, egoki analogizatua baldin bada, hau da, familia-ko antza eta airea izanez, adierazpidean pausoak emateko bada.

Ikasiak gero, Itziarrek ere ederki egiten du euskaraz edo irakurten ingelesez. Ingelesa ez dauka oraindiko, auskara bezala, buruko garuetan eta, hareago bihotzean erantxikia, baina, biziak bizilan, moldatzen da eta ez du ia beti hiztegiara jo beharrik.

Euskara ere ikasiaren buruz eta puruz garatzen da, antxinatean sumeriera eta egitiera izan ziren bezala, eta amek eta anderei-ñoek izan ziran¹ eta dira umeen hizkuntza eskola gidatu dutenak. Haurrari emateko ogia aurretiaz papurtzen den bezala, norbaitek hitza ere, umeen ahorrako lain, gozo ahozkatu behar izan zuan.

Beraz jatorrizko hizkuntza baten egituraren aurka, jatorrizko hizkuntzen eskolabidaren aurka, ez dago berezkeria errazik ez genesetan, ez buru muinean erregistraturik.

Hizkuntzaren hasieran, arketipoek banaka egiten zituzten monosilabozko hizkunen ogi papurrak jastatu ondoren, arketipo aglutinatuen ogi zatia ere hizkune eginik, berezko azkaian ikusi genuen. Hazkunde berari jarraiki, oraingo atalean, hasierako

1 Sumerreko eskola zaindaria Nin.Saba jainkosa eta Egiptoko eskola zaina Rennehet jainkosa izan ziran. Ohar, Rennehet/errientza egiturak.

hizkunea esakunarekin lotzen den bidean hizkuntza osatuari jarraituko diogu, adierazpide soila jakinduria eskola eginik.

6.1. An analogien jakinduria

An jainko arketipoaz *An/ene*, *Anu/on* bezalako hizkuneak egiten dira eta bigarren belaunaldiko jainkoen ezkontzatik sortu hitz aglutinatuez *Antu/antzo*, *Ande/anze*, *Amón/mun*, *Mari/marra*, *Martu/mardo*², bezalako hizkuneak, eta *Antzomendi*, *Andiamendi* eta *Marmenx* bezalako santutegiekin. Bide beretik datorzkigu euren analogiak: *antz/aintza*, *man/maina*, *nomen/numen*⁽¹⁾ “izena/jainkoa”, *anze/anzi*, *mente/mende*, *mentu/mendu*, *amatu/amadu*, *amora/amoratu*, *amaitu/amatau*, *ainanino/inanne*⁽¹⁾ “deabru/zoro”, *iñozo/inoxiu*⁽¹⁾ “erbal/errugabe”, *nece/noxiu*⁽¹⁾ “zoro/gaizto”, *mendeku/mendigo*, etab. bikotea bata bestearen ondore datorrela.

Dakusagunez, ez da euskara hitzaren pedagogia hau landu izan duen hizkuntz bakarra. Exegetek sumerreko eta egiptoko jakindurian ere idoro izan bai-dute pedagogia hau, beraz hizkuntza zaharrok euskararekin duten lehengusutasuna ezeze, hizkuntza zaharrek hizkuntza klasikoan azpiegituran duten partea ezagutzeko bidea ematen digu ariketak.

Inko/ahínco edo eta *Inka/inka* hizkuneak erakusten digute Jainkoari nolako leihaz eragon behar zitzaion. Horrela, *Inko* analogiak berak oroitarazten digu biziaren lehen sorkuntzako *inkau/incoar* “landatu/hazi” beharra. Gaztelaniak ere otoitzeko jardueira gogoratzen bai-du euskararekin batera “*ahínco*, *ahincar*, *hincarse* de rodillas, belaun*ínko*, edo otoitzkerako *halainka* eta hitza “*inkik* esan” edo latinaren *inquit*⁽¹⁾ “eragon zuan”, etab.

Inko/ungo “Jainkoa/bakea” dator, bakea Jainkoaren dohai aitortzen duela. Hala grekoen *eirene*⁽⁶⁾ ere *Erraine-ko* “bakea” da, erro

2 *Martu*⁽⁶⁾ edo Amurru amotarrentzat, mortuko jainkoa, Sumerreko Ur urira ezkondua, III erregegoan. Baratzera onurgarri den Adar, hodei jainkoarekin berdintzen zan. (LIMET. H. “AMURRU”, DR, o.c., p. 63) Marte jainkoak ere beregan du Erroman baratzain ardura, Enperioak “guda jainko” izentatu zuen arte. Horra, nola *Amurru/amurru* datorren, *Murumendi/Monte Muro* bezalako santutegi eta guzti.

matarren “*bake>pax*⁽¹⁾” asmatu zeino, hori bai-da *Ba bage* Ka ordezkariak duen *bagea*, hilik bai-datza, ots, *Ba* bizigarritik bagetu⁴. (Ikus 125 or) Ostera, bakea *ungo* denean, *ongi* izateaz du zerikusia, *ungo/ungi* ere eskola bereko gehigarria denez eta, herri jakinduriak aitortzen duenez, berriz: “*bakea dizuela Jainkoak/bakea dagoen tokian, Jainkoa eta ogia/bakea, ogiaren amea*, etab.

Antz/aintz hizkuneak gizakiak “arpegian” *antzean* duen Inko *antza* aipatzen du eta, beraz, hagandiko *aintza*. Horrela, *aintza/antzi* darrai gizaki hilkorrak Jainko hilezkortasunaren *antsiaz*. Jainko seme-alaba delako aitortzen eta nolabaiteko eskarmenduak berak dakar Jainko herentziarako *ansia* hori. Horra giza psikologia teologia mailan aitortua, gaztelaniak *anhelo*, *ansia* hitzetan oroitzen duen bezala, eta euskarak, bizitza bidean, NORANTZ kategorian *-antz* atzizkian sagaratzen. Herri jakinduriaren arabera, bestalde, “*similis similem quaerit*⁽¹⁾/*elkarren antze-koak helkar bilatzen dute/maitaleak helkarkidea bilatzen du/kidekoa kidakoarekin/norbere antzeoagaz ezkondu*”, etab.

Anze/anzi “arte/magia” aipatzen da, hau da, berez edo arteziaz lorturiko indarrak, “arte, artex” esan ohi den bezala. *Antzeak antza* ematen dio jainko edo jainkosen irudiari eta jainko seme-alabak Jainko beraren *antza* dute “bere uneko edo bere haragiko” egin bai-zituan, Sumerren eta Egipton aitortzen zenez⁵. Jakinduriak zera dino: “*anzeak indarrak baino gehiago badezake*”.

Maat⁽⁶⁾/*maite*, *Maat* jainkosa mitagarri aitortzen du, egitiarren

4 Halako bagetasunean jartzen du Tacitok ere erromatarren bakea “*solitudinem faciunt, pacem invocant*” salatzen duenean, edo herriak Frankoren bakea “*hilerriko bake*” aipatzean. Hortik bai-dator *bake/bage*.

5 Sumerren: “*Gishnumunab* (...) que hizo=*muñó* a los hombres de su sustancia/*gizakiak* bere *une-muinetik in* zituena”(Enuma elish, VII,89) Ohar gaztelaniak *muindu/muñir* “sortu, antolatu” egiten duela, jainkoen *muina* emateak/*mun* egiteak sorkuntza bailekarren. Egipton: “bada eurak (gizakiak) bere irudiko dira, bere haragitik sortuak direnez gero” (*La Instrucción para el rey Merikaré*, 130, DB, nº 10.) Hagatik euskaran *Anu/un*, *Antu/antzo* eta *Erra/ara*, *Erra/arau* hizkuneak ere. *Antu*, Anen emaztea, beraz gizakien ama, *ara* “sena, jokera”, *ara+ki>aragi>haragi*.

kutsuaz⁶ edo *amatu/amadu* ematen, ama izateari bai-dagokio berez maitatzea edo ama izateak maitasunaz sagaritzen bai-du emakumea. Hagatik esan ohi da: “*ama zer den jakiteko, ama izan behar*”/ “*aita urrezko baino, ama zorritsua hobe*”/ “*ama, belar ona*”, etab.

Mari/marra, gaztelaniak *Mari/mar* esango zukean, erderatan *marra*>*mare, mer, mar* eratorri delako eta beti ere berezko *marra* den “itxaso” adierazten, eta erabat jainkosari ur gazien ordezkari egotziaz. Marik, jakinduriatzko Maat jainkosak bezala, ondo portatzeko aginduak ezarri zizkien⁷ seme-alabei eta Mari jainkosaren esiak bere umeei ezarritako *marrak* dira, bidean *marratu* edo “*marro* egin” ez zezaten eta, beraz, *markatu* eta *markistu* gelditu. Halakoei gaztelaniak ere *marrano* deitzen zien. Haraz gero, *marra/marka* elkarren aurkako hitzak dira eta halakoetan horrela entzuten da: “*marka egin digu horrek/menuda marca...*”, etab.

Mari/amarra ere hizkune dator, bere legez *amarratu* egiten gaituelako eta, beraz, *amoratzer*a behartzen, erderak *amare/amar*. Halatan parekide ditugu jakinduriaren jainkosa biok Maat eta Mari, batak *Maat/maite* eta besteak *Mari/amari*⁽¹⁾ (beraz *amoratzer*a) bultzatzen gaituelakota. *Amoratu/amarratu*, bestalde, erritualki egiten da ezkontideen artean eta, beraz, “maite lokarriak” aipatzen dira eta *estai/eztai* “lokarri/ezkontza” adierazten datoz. *Estaia*, ezkontza bezala, “lokarri sendoa” bai-da.

Martu/mardo eta, beraz, *maritu*⁽¹⁾>*maritxu* “emaztezale”, Ur urira ezkondua, nonbait Mari jainkosari sagaratua. Jainko honen dohaiak *Martxoko* emaitzetan ezagunak ditugu, hala *marti-gari*, *marti-oilar*, *martopil*, etab. Herri jakinduriak ere hala aitortzen du: “*Martxoa gizonena, Apirila emazteena*”, *Martxoko lorea, bapeza hobe*a, *Apirileko lorea, urrea baino hobe*a”, etab.

Man/maina hizkune honek ere indarra eta antzea aurkezten ditu elkarren lehian, gero ohar egiteko: “*mainie bihera baino hobie*”.

6 CORTEGGIANI, J.P., “MAAT”, DR., o.c., p. 1047.

7 Honexek dira *Mari* jainkosaren aginduak: “ez ostu, ez gezurrik esan, ez inor hil, ez harrotu, besteenganako dedua izan, eman hitza bete eta elkar lagundu” (SORAZU, E. *Antropología y religión en el Pueblo Vasco*, o.c. p. 290)

Gaztelaniak *maña* dino ohar beretsuan. Bide beretik *manu*⁽¹⁾/*manu* ere hizkune dira alde batetik “esku”, bestetik “ahalmen” eta hortik *manukor*, *manuerrez*, *manitas* izatea.

Mentu/mendu eta *mente*⁽¹⁾/*mende* oharkideak dira eta genetistek baino hobeto aztertzen du giza gogakera, genesei barik, heziketari eskua ematen diolarik. Umeak *mentuz mendutzen* dira eta halako analogiaz frutakiak ere. Beraz “*mendu oneko*” dira heziketa honekoak. *Mente*⁽¹⁾/*mende*, “aierkorrak *mendetu*, sua *emendatu*” eta gaztelaniazko “*emendar errores*”. *Mentuaren* indarra ohartzen du harako “*asmoz eta jakitez txikiak handia bentzuten*” esakerak.

Natu⁽¹⁾/*natu* “jaioa/akats” hizkuneak jakinduria zaharra du gogotan, ez bai zuan idoro beste biderik gaitza gizakiagan eta erabat Inkoaren zuzentasuna aitortzeko, beraz “egun emakumek ez du mundura erditu erru bako umerik (...) antxinatetik ez da sortu akats bako langilerik”⁸ eta hagatik “*jaiotzetik dauka/jaiotzea beste errurik ez/jaiotziak hiltzia sor*” esaten da eta *nata*>*naza* dator.

Nomen/numen⁽¹⁾ “izena/Jainko” edo *nomen est numen* “izena Jainkoa da” hizkune eta esakerak jainkozko arketipoak aipatzen ditu eztalakoan eta M. Müller erlijio gonbaratuaren azterlearen gardiz, “erlijioen azterketa herriek euren jainkoeri hitz egiteko erabili hizkuntzen azterketa baino ez da”.

Amoratu/amorrratu, hako Ur urira *amoratuz* ezkondu zen Martu edo *Amurru*, *amoratu* ezeze, *amorrratu* ere egin zan eta Adar, Hodei jainkokidea aina zaratatsu aserre aldian, *mardo* bera bezalakoa eta indartsua, *Inu+Adar*>*indar* bai-dator. Bestalde, herrien jakinduriak *erou*⁽⁹⁾/*ero* “maitasuna/ero” eta *ero*⁽⁹⁾/*erio* “maitasuna/heriotz” aipatzen du, *Eros* jainkoak batean *erosi* eta hurrengoan *eroriarazi* egin dezakelako. “Maitasuna heriotza baino indartsuago da” aitortzen du Israelgo jakinduriak (Cant 8,6) edo maitaleen amorratzeaz halako esakerak: “*asarraldiaren ondoren, ondorengo goxoaldia onena*”, etab.

8 *El hombre y su dios*, 103-106, DB., nº 26. Cf: Jakinduria bera dager Biblian (Gen 3,19) lana, beharra, gaiztaginaren zigortzat hartzen duenean. Bestalde, Jainkoaren zuzentasunak ezin zezaken errugabea zigortu.

Ainanino/inanne⁽¹⁾ “deabru/zoro” mitoa aipatzen du, behin angeruak *anunna*^(s) zoriontsuak izanik, Tiamaten alde ekitearren, lurrera egotziak eta eraikintza lan astunera behartuak izan baiziren⁹. Hori dela eta, euskal ipuinetan *ainaninoak* “deabruak”, laminak bezala, eraikintza eskergeen egile agertzen dira.

Mailuki/melek^(h) “mailu/errege” berdintzen dira. Artaldea jaurritzeko makila ematen zaio artzainari, eta herria jaurritzeko makulua edo *mailukia* erregeari, eta handik igarten da nor zein den, (Ikus 107 or.) makila nortasunaz berdintzeraino, hala “*basoan jaiio, basoan hazi, herrira etorri eta bera nausi*” hizkirimiriak esaten duenez.

Manatu/mandar hizkunea elkarren eratorri da eta edukinetan ere ez dute alde handirik euskaratik erderara “baimendu, agindu, bidaldu, ordenua eman”. Eratorrietan *manda* “agintzaria”, *mandatu/mandato* “errekadu/segeretu”, *mandatu* egin “ezkontzan eskatu”, etab. Esakeretan: *agintzen duenak ez du erregutzen*, etab.

Mendeku/mendicu⁽⁰⁾ hizkunean nola ulertu *mendekua* norbait “eskeko” egitea denik, Egiptoko jakinduria kontuan hartu ezik? Hala bai-dino: “Erregea ondasun bidea da (...) bere besoak babesten du men egiten diona (...) bere onespina galtzen duena eskeko bihurtuko da”¹⁰. Gero alperrik da *mendigar*<*mendigo* duela sorgu esatea etimologia merkeetan edo eta alderantziz, *mendeku* errege *mendekoaren* akatsa dela jakin arte. Beraz hurrago doaz *mendeko/mendeku* ere gizarte mailan eta sorte mailan.

Amaitu/amatau, batak bizidun baten epe *amaia* dino, besteak bizirik dagoen “argia, sua, garra *amatau*” emendatzea eskatzen du. Gizakiaren bizia emakumea *amatu* denetik hasten da eta behin bizia *amaitzen* zaionean amagana (amalurrera) bihurtzen zan asaben ustetan. Horrela *amatu/amaitu* dator, eta hagatik ama, jaiotzean bezala, zendua egortzi den uneko lur gainean finkatzen da, “*jaiioak heriotzea sor*” duen bezala, *amatzeak amaitzea sor* bai-du.

Inutu/iñozo “esne ume/ahul” Donostiako *Inotean* inude-inozok eta unaiek *Inuren* mendea eta hagandiko urteko *anoa* oroitaraz-

9 *Enuma elih*s, VI, 40-46

10 *La enseñanza legal*, V, DB. n^o 10, p39



Baal, eskuman *mailukia* eta ezkerrean oinestua dituela Ugariteko oroitarrian. *Ilu* jainkoak *Balu* erregetzarako oldartzen du: “Hartzak lantza eta mailukia” (*Lucha entre Balu y Yammu*, 1.1 III 10) eta beretzako oinestuaren iskilu segetetua asmatzen du “zurezko eta harrizko... zerutik lurrera xurxulatua” (*Ibi.*, 30). *Mailuki* hitzak *mlk*^(w), *melek*^(w) “errege” arketipo berberak dauzka. Aginte sinboloa den *mailukia* hartzen da errege izen eta arduratzat. *Mailukiak Ilu* jainkoaren aginpidea eta hango idazkeran *Ilu* makila antzeko *l* hizkiak ordezkatzeko du, *Ilu* ez bai-da, *An* bezala, begietan zeru egiko ikuskizun, edo Utu/Ra, aro kurutzatu edo ardatzdun ibiltari itxuran eman zezakena.

ten duten bezala. Latinak *inozo/inoxu* “erbal/errugabe” egiten du. Barazkia edo soloaria kaltetu dezaken adarren aurka ba dago otoitz bat: “*Santa Barbara, Santa Krus, Jauna balia zakiguz; inozente- en ogie, Jauna, miserikordie*”.

Nekatu/neccatu⁽⁰⁾ hizkunez elkarrenak dira, nahiz latinez “heriotu” esan nahi duen. Euskaraz *nahi+ka*>*neke* egiten da, nahia ez dena bezala. Baina grekoan eta latinean *neku*^(g) eta *neks*⁽⁰⁾ “heriotze” esan nahi dute. Nekea berebiziko zigorra delakoaren barne dator edukinon dantza. Herri jakindurian, “*nekatuta jaiio zan*”.

Moztu/motz>*moza/o* hizkune araberan, adinera heldu gazteei hilea *mozten* zitzairen. Gaztelaniak *mochar* dino, eta, beraz *mochoz mozo*, *hilemotx* dela esateko eta, konposagaiak itzulikatutik, *motxil*>*mutxil*>*mutil*. Eta halako hitzaren analogiara, *neska*>*neskatil*.

Endeka/enteco hitzen eratoritze honetan gaztelaniak euskarari jarraitzen dio. *Enda+ka*>*endeka* hitzak *endari* dagokiona ukatu egiten bai-dio, ots, Jainko jatorrizko arketipodun hitzari nortasuna ukatu. *Enda* hitza *jende/xente*^(ga)/*gente* gizatzen da.

Mantendu/mantener hitza *man+tentu* konposiziotik dator eta *man* “eskubidea” duenaren *tentua* aipatzen du, berari bai-dagokio mendekoen edo familiakoen *mantenua* begiratzea. Latinak

ere hortik sortu du “teneo>tentu” “sostendu”, eta gaztelaniak, berriz, *tentu>tiento* egiten du.

Mainatu/mantu hitzak elkarren eratorri dira, edukinez “mainaz zaindu” eta *mantua*, berriz, ume *amainatua* berotan zaintzeko estalkia. Esakeretan eta eratorrietan: “*mantupean* gorde”, Amabirginaren *mantua*”, “*mantagorri*”, *amantal/mantal*, *mantalin*, etab.

6.2. Utu analogien jakinduria

Hizkune soilak ulerterrazak dira, hala *Utu/otoi*, *Utu/itu*, *itu/itxu*, etab. Aglutinaduetan, ostera, bigarren belaunaldiko jainkoak ditugu eredu. Hala *Utu+An>Atun*^(e) “orokor”, *Aton*^(e) “iduzki soloa”, *Adona*^(h) “Jaun”, Nin.*Sun* “Andre Sun”, *Tinia*^(etr) “iduzki”, *Sin*^(s) “itargi”, *Hator*^(e) “maite jainkosa”, *Tor*^(ger), *Donar*^(ger) “trumoi”, *Sol*, *Dagan*^(a) “aldien jainko”, *Utusam*^(hi), “iduzki”, etab. *Donimendia*, *Itxinamendi*, *Soromendi* eta *Asurmendi* bezelako santutegiekin. Ulergarriak zaizkigu *Aton/done*, *Aton/ttoin*, *Sin/sin-estu*, *Hator/aitor*, *Donar/donari*, Nin.*sun/sona*, *Utukku/tuku* “ainguru zaindari/tuku”, edo *Tor/toro* etortzea, baldin badakigu, trumoi hodei gaineko haizetan trotan joian “xekor” *ishkur*^(s) iduzki idia¹¹ zena.

Aiton/atün hizkuneak *aitonak* eskarmendu handia duela dino, edo bere aholkua *atünez* emana dela, gaztelaniak ere “con *tino*, *atinado*” gogoratzen bai-du. Hagatik *aitoaren* oharrak *atsotitzak* dira, eskola zaharreko jakinduria esakera eginetan ematen dutelako.

Itaun/itun hizkuneak “*nolako itauna, halako ituna*” esakunera garoaz. Ahozko eskola beti ere galde-erantzunetan oinarritzen bada. Umea galdezale da eta ama erantzule. Edu berekoa zan Sumerreko *eduba*^(s) ere *itaun/itun* edura azaldua: “Idazlari ikasle, nora joan haiz? --Edubara joan nahiz. --Zer egin duk eduban? --Ozen irakurri dut nere oholtzua eta anhoa jan dut”¹².

Aton/Done “Jaun/Santu” datoz edukinez eta antxina titulo biok egozten zitzaizkien santuei “Jaun *Done* Yakue, Jaun *Done* Petri, eta “Andre *Dena* Maria”. Santuetan “santuena” *Doniane*<

11 LIMET, H. “TORMENTA (dios mesopotámico”, D.R., o.c., p. 1761
12 *El aprendiz de escriba*, 1-4, DB., n° 26, p. 25-27. Cf: “*Eduba* “ohol->

doneena. *Aton* “iduzki solo”-arenganako jaiera arrakastatsua izan zan Tel Amarnako garaian. *Utusam*^(hi)/*Samtsu*^(a) “San Utu” formek ba dute erantzunik hilerrietako “Iduzki Saindu” oroitarrietan. Bere iduzki mugako ospakizunetan kristauak Kristoren aurrelari izan zen *Doniane* “San Juan” ospatzen dute.

Dona⁽ⁱ⁾/*sona* “emakume/apain” emakuneez denean, *sona* handiko “ospatsu” dino, hala izan bai-zen jakindurian Nin.*Sun* “Andre guztijakitun” *Gilgamés* (I,V 40) eroiaren aholkari. Jakintsuarena da berrien garatzetan ibiltea, -*zun* atzikiak adierazten duen bezala, hala egiazun, ogizun, etab.

Tonu/sonu^(l) eta *doinu>soinu*, “musika eta ereskina” ari bereko eta berezi, *Utu* arketipoaren ahazkeren igadura oartzeko berebiziko dira. Herri jakindurian honela dakusgu: “*soinuaren arabera dantza/gau osoa soinua jotzen, besteek dantza daien*.”

Adur/Adar “adu/ekaitz”, *adur gaizto*, *adur oneko* esakeretan agertzen diren bezala. *Adu/Adda* hizkune soil+ *Erra* aglutinaduen osogarri dira, *Adda>Aya*^(a) Uturen emaztea delarik¹³.

Shin^(s)/*zin* “itargi¹⁴/*zin*” hizkunearen arabera, iretargia hartzen zen *zinaren* lekuko eta *zindu/zindo* hizkunez eta eratorriz, *zin* eginak ematen ziolako *zindo* agiria. Sumerren *sinistu*^(s) “emakume” da, *zinez* eta minez iretargiari *estua* bailegon. Orobat *sinestu/sinetsi*¹⁵ dinonak Jainkori *zinez* estua dagoela dino, izan ere hori bai-da erli-

>txoen etxea”, oholtzuetan idazten bai-zuten. “La *eduba* era auténtico centro cultural de características humanistas, donde se cultivaban disciplinas relacionadas con la lingüística, la literatura y la religión”. (MORLA,V., *Libros sapienciales y otros escritos*, o. c.,p. 56-57)

13 (*Himno a Shamash*, 200, DB, n° 26) Cf: *Atta>Adda>Aya*, *Atamendi>Ayamendi* bere santutegietan bezala, hoiiek bai-dira iluntzean Utu osteo atek. Euren forma gizatuak erromanikoan *Fatu/Fata>hado/hada*. *Adar* ere *padar>padre* gizatzen da.

14 *Itargi* hitzak *iletargiaren* argia *Utuk* dizdiratua dela dino, *iretargi* izenean *Erra+Utu* biak batean datoz, eta *iletargi* forman *Iluk* eskuartzten.

15 *Sin+estu>sinistu*, *sinetsi* aditzetan *sin-* aurrizkia edo preposizioa nabari da, *sym-* grekoan edo *cum-* latinoan bezala, lagungarri indarra ematen diola aditz soilari, hala *sympleo*^(g) “lagunekin ugaro”, *sinetsi* “norbaiti etsi”, *cumplere*^(l) “lagunekin bete”.

gioa, gizakia Jainkoari fedez lotua, *estua*, *etsia* egotea.

Ttoin/duin “olata ogia/duin” olatako ogia *duin/deun* da, egokia izatean doa santutasuna ere eskeintzetan. Orobat, *dun/don* dator eta eukiak ematen duen beteaz eta, beraz, *duntu/dontsu* “jabegoaz egiten dena/zori oneko” da, hala jakinduriaren arabera: “*daukanak arre, eztaukanak iso*”/“*daukanak dauko, eztaukanak baleuko*”/*daukagunean nahia, gurari baga ohi gara*”.

Tammuz/damuz “jainko hilkor/damuz”, halako zioaren ondoreko hizkunea. *Dumuzi*^(s)>*Tammuz*^(h), Inannaren senarra urtero, landarezarekin batera, heriotzera *damnatu*^(l) “kondenatu” zegoen. *Damnu* erderaz *daño* den bezala, euskaraz *damu* da eta, halatan, Inannak eta ayaldekoak barneneko *damuz* negar egiten zioten. Horrela gelditu da *damu* “barne mina” adierazteko hitza. Herri jakindurian: “*damurik ez, parkamenik ez/damua garaiz*”, etab.

Otatu/tutu^(l) “goitatu/seguru” hizkunea ulergarri da, mendia ibarra baino hobetzat hartzen bai-da norbere defentsarako. Hagatik etxeak eta uriak muinoan eraikitzen ziran. Eratorriz, *otatu*>*tutare*^(l) eta *tutor* “jagole”. *Otatu/osatu* dator hizkunez eta eratorriz, osasuna norbere seguridadea delako. Landare-aberetan ere analogiaz *ote* edo *otia* izadiak berez “*otatuak*” bai-dira, halako arantzak edo azalak babesten bai-ditu. Izenotan analogizatzailea zein den begiratu behar da.

Hathor/aitor hizkuneak *aitor* izatea edo jatortasuna nondik datorren erakusten digu, *Aitoren seme*, *Aitoren alaba* analogietan, norbait “leinargi” edo “naro” dela adierazteko. *Hathor* jainkosa, Erraren alaba izan zan, bi seme izan zituan: Horus, *aitorra* eta Set, *setatia*¹⁶. Horusi *aitor* izatea eta *adore*a bere amagandik, amaren esaneko izan zelako bai-diatorkio eta Set anaiari, oster,

16 PFISTER, D. “HATHOR”, D.R. o. c., p. 722. Cf: Arrakasta handia izan zuan Hathoren seme bion jokerak pedagogia arloan, euskarak seme bion exenplutik haren ondorea jasotzeraino, hatan ere. *Aitor* asaba lehentzat jotea, euskal kultura zaharraren amatartasuna ez ezagutzetik sortu da, eta arego ereduak goian barik, lurrean antzematetik. *Hathor* jainkosari egotsi pedagogia bera agertzen da Mari jainkosaren seme biengan, Atarrabi, ona eta Mikelats, gaiztoa. Semeon izenon konposizioak beranduko mitoa dela dino.



Hathor (Bristis Museum), maitasunaren jainkosa, Erra jainkoaren alaba *aitorra*, Horus eta Set semeen ama, Horus, seme *aitorra*, Set, *setatia*. Buru gainean behi adarrak eta eguzkia ditu ugaltasun sinbolotzat. Hortik datorke antxinako euskaldun emazteek adar tuntu-rroa eramatea edo burkoari adar puntatxoak ateratea. *Hathor* jainkosari *atoratzea*>*azoratzea* dagokio eta hatarako arraskoa eta *sekhem*^(e) arranbera erabilten ditu eta ereskin durunditsuok emakumeen eskuetatik doaz erromerira. *Hathor* jainkosa *xekena* da “maitagarri”, baina erabat *zekena* “gogorra”, eta leoi burudun *Sekhemet*, bere aitaren aurka egin ogenak zigortzen.

“set egitea”, hau da “porrot egitea” bere setakeria jarraitzeagatik. Urzi, iruzki semea, amaren esanekotzat dager herri jakindurian: “Eguzkia joan da/ bere amagana/ bihar etorriko da/ denbora ona bada”, aipatzen duenean.

Totila/sotil “neska eder/legun” hizkunez, halako izakerak halako zoria dakarkiola dino. Handik jatortasuna eta zuhurtzian *sutil* adierazteko analogizatzen du erromanikoak ere.

Doru/adur “erastun/sorte”, *Utú+Orus* sinboloak urrean-edo eratu, eguzkia antzestu eta haren *adore*a batzen omen zuan halako arteziaz, odiak udda eta aroak ura bezala, *Utú/odi* delako eta *Orus/aro* denporaren arian eta *Orus/urre*, meatz motetan.

Toro/soro da hizkunez, bada, *Utú/idi* lurrean ugaltasun sinbolo duen idiak landutako orua *soro* emangarri bihurtzen da, hitzaren arteziaz. *Idi+uro* elkartuak *toro* hitza sortzen dute eta zezenari adorean falta zaiona zoroan du eta, hagatik, *toro/zoro* hizkunera egokitzen da, heriotzara daraman jokura adore osoz prestatzen delako eta ezustean erasoten dakielako. Beraz, “*zezena ta zoroa, gaizki hoien ondoan*” aitortzen du herri jakinduriak.

Sorotu/sorosi “soroa landu/lagundu, behatu” hizkuneak baratz lantzea, baratzari laguntzea dela, bada “*baratzak ematen du*,

ematen bazaio”, bestela, “*soroak larrea zor*” dino herri jakinduriak. Analogiaz erabilten da: “*Tamal eukok txiroari ta sorosi aen obenari/idi zarrari ez zegiok alaunerik sorosi*”.

Torto/sortu “lore kuskulu/erditu”. Hortik *sortir*^(f. ca) “urten” ere eta *sortze/sorte*^(f) jaiotza norbere *sorteaz* bateratzeko hizkunea. Halaxe aitortzen du herri jakinduriak ere: “*jaiotzetik dakar/be-rezkoa du/kopetan izarra jaio zan/jaiotzeko siñuk segituko dio bizi den arte*, etab. Bestalde, *sortze/source*^(f) “iturri” elkarkide dira.

Tunsi^(f)/*suntsi* “kolpatu/apurtu” eratorriz eta edukinez elkarrenak dira, *tonto*>*sonso* eta *tuntun*>*zunzun* bezala. Herri esakerak buruan kolpatu izanari egozten dio norbait *sonso* izatea. Beraz, *kolpatu*>*golpeado* dator, *kolpe/culpa* delako eta halakoe-tan “*harrikadea dauka*” san ohi da.

Tole/sole^(f) “jaso/eguzki”, agintezko forma bata eta deia bestea, errirozko otoiaren ondore dirudite, *solve* “*soltü*” haren gizatuak lez.

Soltu/soltar datoz eratorriz eta hizkunez, mitoak *Utu* iduzkiari egozten bai-dio bidegabekeriak epaitu errugabea *soltutzeko* eginkizuna, *Utu/doi* denez, gauero begiratzen du iburnia, bere jendeari zuzenbidea egitekotan¹⁷. Esakunez “*ganadu solta*”, abelgorriak larre-ra botatzeko ordua eta *soltura* “*baimena*”, *solt* “*aske*”, etab.

Atoratu/azoratu, “*aberea oratu/azoratu*”. Egaztia oratzen *azorea* da nausi eta *azorea* da, hain zuzen, Horus “*iruski*”, *Hator* jainkosa semearen txori kutuna, goizero amarenetik urten eta iluntzero amaren atera datorrena. *Hator* “*Horusen etxe*” da, *at*-+*oratu*>*atoratu* dator, aurrizki-preposizioak aditz soila indartzen duelarik. (Ikus 115 or.)

Atomau/tomar>*sumere*^(f) “*osartu/hartu*”, “*ardurak hartu eta osartu*”, *os*+*hartu* aditz indartua. “*Toma aquí!*” txakurrari esaten zaio, urbildu daiten, eta gaztelaniak *itoma ya!* norbait asaskatzen denean, edo “*tomar responsabilidades*” edo “*asumir responsabilidades*”, beraz, *atomau/asomar* dator hitzetik ortzera, aldi bateko erderak ez ziolako euskarari iguinik egin, soro bereko barazki bazariran eta ez dio zertan euskerak ere iguinik alako *con-sumizioari*¹⁸.

17 *Himno a Shamas*, 57-60, DB, n° 26

18 Euskerak bakarrik azter dezake hitz hau *ume/umo* hizkUNETIK >

Tarte/tarde hizkune hau ulertzeko espazioak eta denporak elkarrekin duten lotura begiratu behar da, eguzkia bera dela arteko *tarte/sartze* horren neurria. Zenbat denbora doa eguzkia gingatik mendi *tartean* izkutatzen denera? Bada eguzkia *tarte* haretan sartzen da, eta *tarte/sartze* horretan ere une biren *tartea* dago, eguzkia gero eta beherago doala. Gaztelaniak *tarde*, hora *tardía*, deitzen duena euskarak “*ordu berandu, berant*” deitzen du: batak *tarte* une biren *tartetik* analogizatzen du eta besteak eguzkiaren “*beheratze*” ekintzatik.

Sartu/zartu>*zahartu* hizkunea ere denporaren igadurari begira sortu da. Zaharra “*tart egina, zart egina*” dagoela dino herri jakinduriak eta *tartetu/zartatu* dator zuragean, eta beraz, “*zaharrago eta txarrago*” hizkuntza beretik analogizatzen du jakinduriak.

Ate/atze eta *at/aiz* hizkunean elkarrenak, nahiz aurreko atea eta atzeko atea bereizten ditugun. Atea seinalatzen da norbait estikatzen denean “*hoa hortik ate/at*”, *aiz* oilhu egiten zaio idi buztarriari. Bestalde *ate, atari, athal, ataka* hitzak analogia askoren iturri dira, hala, *atari/atara* eta *atari/atarrri*, uriko atean izaten bai-dira burrukak, *ataka/ataque* bezala, edo *athal/atela* mokokak edo bakezkoan *atatu/atar* eurretan atoa. Uriko *atea takatzeko ataurrean torrea* eraikitzen zan, beraz *ateko/tako, aturre/torre* datoz eratorri eta hizkune, *athal/atal* eta *atal/azal* bezala. Analogia, izan ere, hizkuntzaren garapena da, “*ateak haina maratila*” bai-ditu.

Utukku^(s)/*tuku* “*aingeru zaindari/tuku*”, ofiziotik dator kio “*zelokor*” izatea, *udug*^(s)/*dog*^(f) aingeruaren ofiziotik aberearenera doan analogiazioa edo *duce*^(f), *dogo*^(f) “*herri agintzariarena*” adierazteko.

Da-gu-na^(hur)/*dagun* “*Dagón*¹⁹, etorkizun aldiaren eta landaretzaren jainkoetarikoa”. Sumertarren garaiko *Dagan*^(a), *Dagon*^(h) jain-

>hara: *uma*+*tu* “*frutakia heldu, gizakia zentzundu*”, *at*-+*umatu*>*atomau* “*osartu*”. Haraz gero erromanikoez ere egin dezakete etimologien hiztegia, artean “*ni por asomo*”. Euskal hizkuntzalariak *atomau* behar dute lana.

19 Bere ospea Ur uriko III Dinastiatikoa da, Adad/Addu jainkoarekin kidea-tua (“*Dagón*”, Dic. B. o.c. p. 431) Cf: Antza denez, *haita+egun* “*une+egun*”> aglutinazioa da. Addu jainkoaz zera dino: “*bere orro ongarririk begoz zeruan eta lurtean (...)* gendearen anoa presta dezala”. (*Enuma elish*, VII, 120-122)

ko honi *Dagonil/Dagenil* “Abuztu/Irail” udako ileak eskeini zitzazkion Euskal Herrian ere. Esakeretan “*dagun* urtean=datoren urtean”, *daguneko*=daborduko” eta herri jakindurian: “*Dagenileko euria, ardaoa ta ezta*”.

Osteko/ostiko abere munduaz eskarmentatuak asma zezaken halako hitza eta handik *ostikatu/ostigar* gaztelaniak ere. Erromatarrak, eurenak egin eta gero, gibelbildur izaten ziran, *ostetik* bai zekusen etsaia *oste^(l)* eta hagatik dino herri jakinduriak “*bizarra lepoan, kaltea daroa*”, horra ba, atzera begira doanak bizarra lepoan daroa eta beste ohar hau: “*Ez egik gaitzik eta ez euk bildurrik*”.

6.3. Erra analogien jakinduria

Bigarren belaunaldiko jainko aglutinaduetan aipatzekoak dira *Arthe* “atergune, asmamen, artesi, etab.”, *Horus^(e)* “zerutar jainko”, *Urzi²⁰* “zeru, inusturi”, *Eros^(a)* “maitasun”, *Erge* “ildo, azaro”, *Erditze*, *Erle*, etab., *Artamendi*, *Artzemendi*, *Orusemendi*, *Orzomendi*, *Ergamendi*, *Erlomendi* bezalako santutegiek.

Errain/erein hizkuneak *Erra* jainkoaren sorkuntza aldarrikatzen du: *Erra+in>erain/erein* datozen bezala, bizia *Errak²¹erein* bailuen. Hala ere, Menfisko teologiaren arauz, *Errak erran* puruaz sortu ginduzan, “*erran* eta egin” arteziaz, eta beraz, *Erra+ino/Erra+ in²²*. Horrela hobeto ulertzen da herri jakinduriak aitortzen

20 *Urzi*, *Arthe*, *Erge*, *Erditze*, *Erle* izenak Ainamendi inguruko santutegietako orotarrietan agertzen dira euren mendi izen eta guzti: *Orusemendi*, *Orzomendi*, *Artzemendi*, *Ergamendi*, etc. Santutegi-ermita bi dagoz Bizkaian *Erdotzako/Erduzako* Andre Mariari eskeiniak. Beste batzuk *Edurtzako* Amari. *Erdu/edur* arketipo bereen bihurrituak dira, *erdu/etor* bezala, eta *ertu/erdi* ere elkarrenak dira eratorriz eta edukinez.

21 “Ondo ornitu dagoz gizakiak, bere jainkoaren artalde direnez. Airean egin zuan euren sudurretako bizi: bere irudiak bai-dira, bere haragitik urten zuten bezala” (*La Instrucción pra el rey Merikaré*, 130, DB, nº 10) Cf. *araki>aragi* izenak ere *Erraren* erdikia aipatzen du, *haur/arrahu^(ber)/rorro* analogiak bezala, *erditu* zituaren *erdiki*.

22 Menfitar teologoek Ptah hautatu zuten Lehen Hastapentzat. Berak asmatzen ditu bihotzean izadiko elementuak eta ahoaz biziartzten: “Atum jainkoaren antzera, bihotzaz eta ahoaz lortu zuan izatea. Path da bihotz>



Horos^(e)/Orzi, urso edo aztore, Egiptoko Bi Herrien koroekin, giza antzean jansten dituen beste seinuak ostean dituela, eguzkia, *ureus* (sugeñoa) ankh Utu+Ra seinuen gurutza duela. Euskal Herrian *Orusemendi/Orzumendi* santutegiek bere oroitza lekuko dira. *Hor^(e)*, *Orzi* da ama Hatorren azorea eta esaneko *ora*: *orizu*, *orzu* “urteizu”, “hartuizu” ordenak, analogia bereko amaren aginduak dirudie. *Hor^(e)* “urruna, arintua” esan nahi du. Bere aldia *Oronzaro* da eta Hator jainkosa ama haurrari bularra ematen agerten da irudietan. Haurraren adinak *Horus* Haur, *Horus* Ertain, *Urzi* Uren edo *Erraldoi* ospetsuak izan ziran. Euskarak *Orziren kondaira zaharrenak gogoratzen ditu*.

duena ere: “*erran orduko ina*”/“*gizonak eragin, Jainkoak in*”, etab.

Erran/arren edo *errana/arrena* “esana/otoitza” dela dino, ots, *Erra* izena aipatzea berez “*deia*” dela. Hagatik, oihuzkoetan *arren* dena, eskarietan *-arren* zioen eta helburuen lokarri da. Herri jakinduriak honela ebasten du: “*errana erran, emana eman*”.

Erro+un/errun hizkuneak iruzki *errainu* eta arrautsa *errutea* lotzen ditu, bizi iturri bezala, Tebasko teologoentzat Niloko antzarra Amón-Ra²³ jainkoaren egazti kutuna bai-zan. *Erro+un*, beraz, *Erraren* unetik errunduak bai-ginan.

Horus^(e)/orhoit²⁴ hizkuneak, “*otu/otoi*” bezala, hizkide egiten ditu

>honen bidez jainkoei eta euren *ka* (gorputzei) bizia eman dien Guztiz Ahaltsua, horrela Horus Path bihurtzen zela eta aho honen bidez Thot bera Path bihurtu zan (...) Begien ikusmena, belarrien entzumen eta zudurraren usnamenak berri ematen diote bihotzari. Horrek idea bakoitza osorik irte-narazten du eta bihotzak asmatzen duena mihinak ahozkatzen”. (*La teología menfita de la Creación*, 53, ANET, 4-5). Cf. Atum “Orokortasun”, *Erraren* kideko. Horus eta Thot bikoteak adimena eta hitza ordezkatzeko dute.

23 Honela dino jainko honi egin otoitzak: “Oi ene jainko, zeuk moldatu bai-zenuen bizira erron zintun arrautza, jainko ahaltsu berez sortua”. (SAU-NERON, *Nous partons pour l’Egypte*, edo “AMON”, DR, o.c. p. 62)

24 MALAISE, M., “H ORUS”, DR. o.c. p., 768-769

oroitza eta oitza. Oroite iruzki urteitez eta ortzitez, Urtemendi eta Orzumendi, etab. izan zitezken orduotako otoi izuak, herri jakinduriaren arabera: “*oroï, otoi eta jarrai*”, etab.

Erou⁽⁶⁾/*ero* “maitale/ero” hizkideok maitalearen baitan jainko orokor izan nahiak eta ezin izanak sortzen duen burruka adierazten du, hagatik *Eros* maite jainkoak une batez *erosi* egiten du gizakia eta jarraian *erorazi*. Herri jakinduria ere maite zoramenaz ari da: “*maitasunak erotu*”/“*ero, otz eztena bero*”/“*eroak berak soinu eta berak dantza*”/“*maitasuna itxua*”, etab.

Erio/*heroi* hizkuneak ondo dino gizakia den *herioia Eriolari* aurre egitean edo, ezkonberriak bezala, heriotzerainoko fedea aitortzean, edo “norbere bizia urkoagatik ematea baino maitasun handiagorik ez dago” erronkak esan eta egitean. Euskal jakinduriak *Erio* (gizatuz, *Berio*) nortzat dauka: “*Herioa, begi zorrotz*”/“*Herioak, oin zauliak*” dinonean. Herioa ezin ekidina da: “*gutienik ustean, Herioa bortan*”/“*zu non, zure Erioa han*”/“*eriotzak denak berditzen ditu*”, “*Herio da azken arerio*”, etab.

Oratu⁽⁷⁾/*oratu* “ohore egin/lortu” hizkuneak Jainkoarekiko harremana, mesedea lortzeko bidea dela dino, edo berdin dena, *oratu*⁽⁸⁾/*oratu* “otoiztu/artetsi” hizkuneak, orazioa den artezia: “*oihu beroa, zerura doa*”/“*otoi sainduari, deraunsano ekaitzari*”, etab.

Urtea/urtza hizkunearen arabera, Urte Berriz soskatzen dira urteko uren totala, hagatik Urte Berriko lehen hamabi egunak *totalegunak*>*zotalegunak* dira. *Ur+ate*>*urte* dator eta *urte urte-era* da eta *Urtatz* ere baderitzo. Herri jakinduriak ere hala aipatzen du: “*Urtarrila urik gabe, urtea ogi gabe*”, “*Urtatze elur askoz, lili Pazkoz*”, etab.

Erres/arres>*res*⁽⁹⁾ “baitura/abere, gauza” edo ezkongaietako *erres/arras* “baitura/arrak” bezala, elkargoa *erraztu* egiten eta hizkunez adierazten dute. Bide beretik darrai *erresatu/errezatu* analogiak, *errezuak* Jainkoarekikoa *errazten* duelakoz.

Erresu/ersu⁽¹⁰⁾>*rezo* datoz eratorriz, *ersu* “irauntzi”, abadeak Jainkoari tenploan eta politikariak herriari herriko plazan halako irauntziz eskatzen dio, eta **ersulari* sagaratu nonbait *bersu-*



Obi *aurrean*: Guraso zenduen (exerita) *orez*, semeak *erreopariei orioa erioten* die, ezkerrean *erexegiteko* intzentsugailua duela. *Errekaia* bera da zenduen *errekeitu*=ogi eta bizien *errekei*=eskari, eta beraz, *errekaï/errekei* hizkunea egina dago, latinez *rogu*⁽¹¹⁾=*erreoparien* mahaia eta *ruego*=*erregu* gauza bera den bezala. *Erreoparien* azpian *errekina* prest dago. *Orhe/orekaietan era* askotako opilak, zenduen jaki. (Utu eduz ttoinak) *Erretu*>*errezu* dator, *errito* ekintza hanarteko hitzarekin bat datorrela. Mutila gurasoen aldeko *errezuak* egitera doa. (Pijoan, J. *Summa Artis*, III, o.c.,p.434)

lari dator giza mailara, behin giza arketipoa jantziez gero.

Eregu/erregu hizkuneak Jainkoari *eregu* egiten “omen egiten” zitzaioa, *erregua* aurkeztu aurretik, umeak amari txatxantxu egiten dion antzera, eta erromanikoek *rogu*⁽¹²⁾ “erreoparia” egiten zion bezala, *rogu/ruego* etor zedin. Beraz, “*nolako eregu, halako erregu*”. Erre oparien erritoko ohikunatik “*gari erregu*” neurria gelditzen da euskararen oroimenean.

Arrenka/arenga dator hizkunez eta edukinez, izan ere Jainkoaren edo santuaren *aurrean bere* umearen osasunaren alde *arrenka* dagoen amak egiten du *arengarik* onera eta gaztelaniak ez du hitza euskaratik datorkiola aitortzeko lotsarik zertan izan.

Errenkura/rencor hizkunea baliagarria da edukinez pixka bat alderatu denarren. *Erren+kura* hitzak *Erra* jainkoak haur bihu-

rien zoriaz izan zuen ardura adierazten du, haien arramantzagatik arras erraustuak izateko ordenatu bai-zuen, baina *errenkurak* harturik, arras galpenetik erosi gero²⁵. Hortik *errenkuratsu*>*rencoroso*, baina nondik “arduratsua” “aiherkor”?

Arthe/arte, “Arthe jainkoa/arte” bere edukin guztiekin, toki-UNETAN, “une, tarte, noizno”, baitan, “baretasun, eroapen”, eginbidean, “maina, magia, artezi, abantail, ate txiki” eta “pameriala”. *Erra+Utu* alkartzen dira, *harri+ate*>*arte* hain *artezi* mugitzen bai-da lurpeko tarteetan sartu-urten, eguna eta gaua egiteko. *Artezia* berberaz nahi luke lurtean ortzi izan denak, goiko bizidunen partele izatera urten. Hori itxaro zuten hilerrietako harrigizoen irudiagan fedea zutenek. Mailebatuetan: *harriate*>*arriata*, *artezi*>*ardid* edo arketipo itzuliaz, *artezi/tixera*^(9a), etab.

Ardui/arduu⁽¹⁰⁾ “harrirtza/zail” hizkide dira euskaratik latinera eta soro harritsua lantzeak dakarren nekea analogizatzen du edozein lan neketsu adierazteko. Hortik *ardura* ere “asmo, osasun, indar”, etab., halako lanak eskatzen duen alimoa adierazteko. Hagatik *arduradun* edo *ardurabako* jakkeradunen aldea.

Arkhe⁽⁹⁾/*argi* “errege/argi” hizkuneak erregea *argia* izan behar zuela uste zuan Ugarit uriko antzerkietan agertzen denez: “Ale, egin dezagun argi eta zoli den norbait errege”¹⁸, hagatik hebrear jakinduriak ere jakinduria eskatzen du erregearentzat. (Sap.9,7-11).

Ordain/orden euskaratik erromanikora dator hizkune hau ere: *orde*>*ordain* da gehiengo kasuan. Hizkide hartze honek, lege denez, zorrak ordaindu behar direla dino, zuzena egin eta ordena bete dadin. *Ordeaz ordetzen* da: dirutan, garitan, zigorretan. Erromatarrek garitan ordainarazten zituzten agindutakoak eta gariari *ordeu*⁽¹⁾ deitu zioten, *ordea* eta agintariaren *ordena ordaindu* beharra. Herri jakindurian: “*ordeaz ordaindu*”/“*nori bere or-*

25 Erra jainkoa zahartu zenean, bere haurrek agintean ordezkatu nahi izan zuten. Errak, iraz beterik, gizadia errausteko agindua eman zuan. Hator alabak, Shekemet leoi-burua jantzirik, ordenua betetzera joian, eta azken orduan, Errak ardaoz orditu zuan alaba eta ordenua ezin beterik utzi zuan. (*Rescate de la Humanidad de la Destrucción*, ANET, 10-11)

daina”, “*hor dekon ordiez, opile*”, “*ordez orde egiten den justizia baino hoberik ez da*”, etab. Bide beretik *ordele/ordalia* dator.

Rason⁽⁹⁾/*razón* “Errari atsegin zaiona/arrazio”²⁶, egitiar jakinduriaren arauz. Argia bezala, jakinduria ere, *Ra+Utu* arketipoengandik analogizatuz, *arrazio/ratio*⁽¹⁾ ematen du. Latinak *ratio/ratione*⁽¹⁾ deklinatzen du. Euskararentzat sumeriar kulturaren garaian *Utu/zio* forma soila izan zan eta geroago, egitiarren kultura hurbilduz, *arrazio* egokitu zuan.

Harremona/armonia⁽⁹⁾ hizkuneak mediterranean inguruko kolonien eta kolonizatzaileen arteko saleroste *harremon* giroa adierazten du. Hitzaren arketipoak *Amon-Ra*, Tebas eta Egipto Beheeko herriak adizkidetzen zituen jainko bateratzaileagan aurkitzen dira. *Ra-mu*⁽⁹⁾²⁷ hitzak, bestalde, harremanetan erregearekiko fedea aipatzen du. Hortik dator *amore*⁽¹⁾, arketipoen aldaketaz. Herri jakinduriak ere: “*amore, hartuak emanaz sapore*” dino.

Eretxi/eresi hizkunez adimen eta mintzamen aditzak kidetzen dira, psikologian duten lokarri estuagatik. Hala dakusgu *onu/ino, otu/otoi, oroi/orho* edukinetan ere, “uste izatea” ala “esatea”. Ez du ebastez bietatik zein den lehenengo, baina sikolinguistek zer pentza ematekoa da, ea bihotzean lehenengo eta gero ahoan den, menfitar teologiaren arabera, ala alderantziz.

Izarrerak ere erdal hitzen bat unean uneko ahora ez datorkionean, kokotsa ferekatuz, buruko garaunak egosten hasten da, alea okatu dezaten “mihinaren puntan zeukanat, ba” dino, barnenetik ahorakoa darabilen artean.

Eretxi/airesi⁽⁹⁾ “uste/oponio” esaten dute biek ere eta erlijiozko *eretxietan* norbere oponioari erastea *airesi* edo *herexia* gerta daiteke eleiz gidarientzat. Bestalde, soinez erastetik adimenez eta gogoz erastera doa analogiaren erroa, *eratxi/eretxi* ere ba dela hizkunez.

26 Equipo “Cahiers Evangile”, *En las raíces de la sabiduría*, C.B, n^o 28, VD, Estella, 1980, p. 15.

27 *Cartas de Tell el-Amarna (si.XIV)*, p. 102, DB, n^o 23.

6.4. *Ilu analogien jakinduria*

Ilu leinutiko bigarren belaunaldiko hainbeste jainkoren oroitarria²⁰ dager Ainamendi inguruan, hala *Iluno*, *Illun*, *Laino*, *Iluro*, *Alar*, *Losa*, *Lunomendi*, *Ilunzarmendi*, *Larramendi*, *Lainomendi*, *Mendiluze*, *Loramendi*/*Mendilorri* bezalako santutegiekin. *Monte-Alen*, *Montolan* eta *Letamendi* ere ezagunak dira.

Ilun/ilun “Ilun jainko/ilun” hizkunean iletargia eta *iluna* kideko egiten ditu, bata bestearekin nabaritzen direlako. Bere izena antxinatoko kaosarekin bat datorrela dirudi: giza begietan, *Iluno/laino* eta *Ilun/ilun*, eguzkia sortu aurretik, aldia *Alen/lehen* edo *Ilun/olim*⁽¹⁾ “ambiola” bailiran eta tokiaz, berriz, *Ilun/loin*⁽¹⁾ “urrun” eta *Ilun/laun*, mendiak uren gainetik nabari aurretik.

Lein/leinu, “lehen/leinu” hizkuneak dinonez, *lehen* jainkoen leinua zan eta giza *leinuen* antxinatasuna haiengan hasten da, haiengan dago leinargia, jainko seme-alaba izatean, alegia, ez toki edo abizen baten jaraunsle izatean.

Ilutu^(a)/*litx*, “Ilu jainkoari sagaratua/argi hila”, asaben ustez hilak beste munduko toki ilunean bizi bai-ziran *ilutu>ilus* badaezpadako *Ilu* jainkoari emonak, *Ilu/hil* zoriko bai-da, *ilutu>hilotz* bezala, eta, hagatik bere solotiko argia ere *ilargi* deitzen da ilunetan bizi direnen argia bailitzan eta ilero joku berrietan hasten dena.

Ilutu/hildu “Ilu jainkoari sagaratua/hilian dagoena” eta, beraz *ilutu/lutu* dator, hilei dolu egiten bai-zaie eta *dolu/lutu* elkarkideak dira, arketipoz bihurritu. Orobat *Ilu/loi* den bezala, *ilutu/lutu*⁽¹⁾ “lokatz” dator, eta hila, hazia bezala, hildoan sartzen da, *ilutu/hildo* ere ba dela. Sumerren susmotan zuten jainko hau, jainko ala gaisotasun deabru ote zen³⁰. Herri jakinduriak zera dino: “*hilda gero, itto*”, “*lutoa bihotzean, ez arropan*”.

Alor/lur “erein saila” edo *Ilu+oru* “Iluren oru”/*lor*. Erein lur honek, landuz gero, ematen du, beraz *alor/lor* dator ematen duen nekeaz, baina bai *lorpen* ederrik ere. Hala herri jakindurian:

28 “*Lucha entre Ba’lu y Motu*”, 1.6 I, 48.

29 (SORAZU, E. *Antropología y religión en el País Vasco*, o.c., p. 89-92)

30 IMET, H. “*DEMONIOLOGIA* (rel. sumeria y acadia, DR, o.c., p.1416-7.

“*den lurrik hoberenak ere behar du aphaindu, garbitu eta jorratu*”/“*lor baltzak, ogi zuria*”/“*lor gutxi aldaparik gabe*”/“*lurrak ematen bazaio, ematen du*”/“*lorrak lorpena*”, etab.

Launada/landa/land⁽¹⁾ dator eratorriz, *laun>llano* datorren bezala erromanikoan. Euskalerriko geografian landa txikiak ematen dira eta, hala ere, *Landa* izena daramate askok. Europa atlantizarrean, oster, launada handiak dira eta *Land-*, *-land* izenak ugari dira. Latinak, hitza gizatuz, *laun>planu* egiten du.

Loka/loco “lotu gabe/buru galdu” esatera dator hizkunean eta ondo aztertzen du giza psikologia, buruak halako lotura behar baidu argi ebasteko. Nekatzean, lo egiten du “*loak lotzen du*” edo loak bai dakar bere onera, izan ere, *loka* lotura ukapena da egituraz, *lotu/lokatu* bezala. Gaztelaniak “loco suelto” edo “loco de atar” dinonean hitzaren hiruzkina egiten du. Egaztiengan nabaria da “*oilo loka*”, latinak, giza egituraz, *cloca>clueca* egiten duena.

Larki/largu “larregi/largu” dino hizkuneak eta tokien edo gauzen zabalera *An* arketipoz *Antu>ancho* jainkosak ematen duen bezala, luzeera edo *largura* *Ilu* jainkoari egozten zaio Ugariten: “jainko urrutiena (...) jainkotasun largatuena”³¹. “Alde egin” *largatu* esaten da eta “soka askatzeko”, *utzi larga*. Gaztelaniak *largo*, *largar*, *largueza*, etab. altxor beretik berekotu ditu.

Laki/lege hizkunea ulertzeko, errotariak ehiotuaren *laki* mozki-na hartzeko zuen eskubidea izan gogoan. Nehurri auzua zenez, *laki/lege* analogia erraz gertatu zan, kultura une berriko ekanduak *lakatu* zuena eta handik *laketu>lagetu* “auzu, atsegin” dator eta latinak ere, iguinik gabe, *laket>licet*⁽¹⁾ egiten du, hain ederto. Bide beretik doa *lakatu>laga(tu)* “adierazi, isilekoak agertu/utzi”.

Legal/leihal “legal/leal” hitzen arteko kidedetasuna *legea* betetzetik dator, azaleko kunplimenak nor duintzen duelakotan eta, hagatik, halako *lehiaz* atxikitzen da bat legeari, *lagi/lehi* kidedetze-

31 (*La lucha entre Balu y Yammu*, 1.1 III, 19, (MLC), p.162) Cf: Ugariteko testean *lrhq.ilm*, “jainko largatuena” dino eta “largu”=*lrhq*. idazten da, gehiengo kasoa *-m Ilu* (jainko) ostean datorrela *ilm*, “jainko largatuena” barik “larguz jainkoena” bailitzan.

tzeraino, “zure legeen lehiak nago beti” (sal 119, 20) arabera. *Laki* ohiturak lege egin zuan, “legea, ohituraren umea” bai-da herri jakindurian, eta lakia ordaintzeko ez duenak ez bide du legerik “ez dago legerik ez daukanarentzako” bai-dino jakinduria berak.

Legena/legen “legezko dena/legen” sagaratu zan hizkunez aldi bateko izurria, kutsugarria izateagatik, halako araeuz estutu zutelako. Lege pean zegon, legepera behartua eta, beraz *lege+pera>lepra*⁽⁹⁾ datorrela grekoentzat ere.

Lorio/lauru⁽¹⁾, “*Ilu*³² jainkoaren koba/*loria* seinu den ereinotza”. Analogiaren zabalduraz, *laura* “monxeen etxea”, han Jainkoaren laudak abesten bai-zitzaizkion, beraz, *loria/loor* “loria/lauda” dator. Hitza gizatzean, *loria>gloria* gelditzen da, *lore>flore*⁽¹⁾ bezala.

Larratz/lares “larre landugabea/laratze jainkoak”. Mendiak jainko nagusienak zirenez, landu bako larreak jainko txikien esku gelditzen ziran. Bide gurutzeak aukerakoak ziran larre jainkoon omenez *betilos* “oroitarriak” jasotzeko. Jendea han biltzen zenez gero, Erromako Errepublikak galazi egin zuan jainkoon jaiera, batzartuen arramantzak ekidintzearen³³. Orduan jainkoon jaiera etxe barrura aldatu zan eta *laratz* jainkook etxeo suaren zaindari egin ziran. Autsa batzeko palaz laratza jota, etxeoandreak otoi egiten zion: “Ez piztu eta ez itzali”³⁴. Herri jakinduria izaki bizi eta jakintsuak bezala aipatzen ditu: “*laratzak ba daki etxeo berri/etxeo laratzak ezetzen deu pertsonie*”, etab.

Iloba/love⁽¹⁾ “*iloba/maite*” esatera datoz hitz kideok eta latinaren eta erromanikoen *vollo* baino hitz zaharragoa da *iloba/alaba* formak bezala, *iloba/love* “anaia/nahi” edukinen errepika da *Ilu* lehian, *ttotto/dod*⁽¹⁾ “haur (mutiko)/maite”, Utu eduan bezala.

Lar/ler dator hizkunez, *larregiak lerrazi* egiten duelako giza kiaren gihardura eta zapaldu legearen marra, hagatik *lar* beti da *larregieria* “*lartxu, gauza onerako*” esan ohi den bezala.

32 “Iluren kobara zuzenzu zan” (*La lucha en Balu y Yammu*, 1.1 III, 23, (MLC)

33 MESLIN, M. “LARES”, DR, o.c., p. 980

34 SATRÚSTEGUI, J., M^a., *Mitos y creencias*, p. 92-94.

Labur/lapur da hizkunez eta eratorriz: ondasunak *laburtu* bai-doaz *lapurraren* eskuetan. Zioa eta ondorea aipatzen dira konsonantearen zurrundura hutsaz. Herri jakinduria hagatik esan ohi du “*lapur festa, labur*”.

Leku/locu⁽¹⁾ “toki” *Ilu* lehiaz analogizatua, izan ere *Ilu*, hako *lekutan* bizi den jainkoa, bera bai-da “jainko lekutuena”³⁴, eta hagatik, urruntea leguatan neurtzen da, *lekua>legua*³⁵ bai-dator, latinak *leuca* bihurritzen duena. Esakeretan “*bai, lekutan*”, “*lekutako puntan*” eta herri jakindurian: “*leku urrunetiko berria, lehen jina den egia*”, “*lekuan lekukoa*”, etab.

Likatu/legere⁽¹⁾ “likatu/irakurri” hizkunean likaren analogia erabilten da, batak zerbaitekin lotura fisikoa egiten duela, besteak hizkien lotura eginik, hitzen ulerbidea lortzen duela.

6.5. Ka analogien jakinduria

Giza arketipo honen edukin soiletan *Eki/egi* eta *egia* dakusgu eta halako jainkotasunez, *Ekain* eguzki mugan eta *Ekua*⁽⁶⁾/*Hego*>*Eguen* jainkotu asteko egunean, biak ere *An* analogiako gehiengo kasuan, *Kanamendi/Mendigaina* santutegi eta guzti. Iparretarrek *Got* Jainkoa ezagutzen dute, euskarak *goiti/gutti* ematen duela, *Agotamendi, Mendigoitia/Mendigutxi, Goizamendi* santutegietan ikusten den bezala. *Gar* jainkoa Erraren seme *garaia* bezala ezaguna eta “gudu jainko” *Girra* babiloniarrentzat, *Garramendi, Garmendi*, etab. santutegiak lekuko, nahiz, halako eskarmentuz, *garaiena/gerena* gertatu. *Ekur*⁽⁶⁾ santutegia, *Ekurmendi, Mendiguro, Mendigorria*, etab. *Gal*⁽⁶⁾ “errege gaila”, euskaraz *galain* “printze” bezala ezaguna, baina *galain/galen* badaezpadako emana, gizakia, nahiz jainkoekin ezkondu, hilkorra zela adierazteko. Euren santutegiak *Kalamendi, Galmentei*, etab. Halako jainko zoriaren eskarmentua izan zuan *Kingu*⁽⁶⁾ giza jainkotuak.³⁶

34 *La lucha en Balu y Yammu*, 1.2 III, 2, (MLC)

35 “Orduan *Inbubu* herrirantza jo zuan, mila leguatan zehar” (*Ibidem*, 1.1. II, 14)

36 Tiamat jainkosa salatua izan zan jainko gazteen auzian, Ea (Enki) buru zutela: “Zuk *Kingu* gorraldu duzu, zure senarra izan zedin. Zilegi ez den aginte->

Ekain/gain, *Eki+ain>gain*, nabarduradun tokizenetan asko erabilia. Herri jakindurian: “*gain txuri ta barnea beltz*”/“*gaina eder, barrena uher*”/“*gainbeherak aldapa berekin*”, etab. Ohartzekoa da *Ka* arketipoak berekin dakarren eskarmentu eta damu filosofia.

Gano/gana “lanerako antze/gana” soinkeraren trebetasuna *gainezka* delakoak analogizatzen du gogozkoa ere, bada, jakinduriaren arabera: “*ganotik ganora*”/“*non gana, han maina*”, eta ostera, “*ganorabakoen etxien, goizeko saldie arratzien*”.

Giza/gisa hizkuneak *gizakiaren* ganora azaltzen du, “An/hein, Utu/edu, Erra/era, Ilu/laiá” bezala, *Ka/kisa* datorrela. Arketipo bakoitzak legezko duen zabalkundea egingo du hizkuntzaren arloan. Beraz, “*gizakiak bere giza*”/“*asko bere gisa ibili ohi da*”/“*sukaldari bakoitzak bere gizako gizadua*” eta gaztelaniak ere, “*a tal guisa*”, “*a guisa de*”, *aguisar*, etab. darabilzki.


Kide/gida elkarrenak dira hizkunez eta eratorriz, norbere gidarik onena norbere kidekoa delako, hagatik “*kidekoa kidekoarekin*”/“*ezkontza kidekoekin*” gomendatzen du herri jakinduriak. Gaztelaniak *gidatu>guiar*, egiten du.

Güen/queen⁽ⁱ⁾/kin “*goiena/erregina*”, tokiaren alturatik tokikoaren duintasuna aipatzen du, *goiena>güena>kin* bai-dator tokizenetan: *Ibargüen>Barkin*, etab. eta *amaguen>amagin-arreba*. Era berean, posturik altuena duena *güena>queen⁽ⁱ⁾>kin* gortean ere.

Gailen/galen edo *gailendu/galendu* hizkuneak erakusten du eskarmetua zer den eta nori gertatzen zaion, jakinduria zaharren ahotik “*zenbat eta gorago, tumpako handiago*”. Hagatik “*galendua dabil uberen bila*”. Era berean, *gale/kale* da eskarmentuz, ganoraz gaindi zale denak maiz *kale* egin dezakelako. Orobat, *garaiena/geren* dator jakinduria bereko hizkunez, ohoredunei etortzen bai-zaie desohorea, ez ohorea aintzat ez duenari.

Ekur>korri>gorri dator eratorriz, *Ekur* mendira *korrika* joa-

>teak ordezkatu du Anu”. (*Enuma elih*s, IV, 81-82) Cf: *Ea* du euskarak eta gaztelaniak ere iraultza zirikatzeo deia eta agintezko aditz askotan dager “*atozea=vamos, ea*”, etab. Mikel Enangeruaren eta Satanen harako (Apoc 12, 7-9) gogarazten du.



Ka hil eta gero, *Ba* kabitik aldendu txoria bezain aske gelditzen da, noiz berriro kabira itzuliko begira. *Ba* giza arpegidun *ave* “txori” antzera dager eta Benu⁽ⁱ⁾ den Fenix txoria ere ordezkaten du, biek ere herbizkundea itxaroten bai-dute. *Ka* momiak arpegiko irudia erakusten du, *Bak* ezagutu ahal dezan, datorreneko. Atzaparretan dakarren erastunak elkarren arteko fedea adierazten du. (Hilobietako artea Egipton)

ten bai-zan eta maiz *sokorruka* beharrian *gorririk* sortzen zenean, *gorri* “min” edukinaz. Beraz euskal mitoetako Beigorri, Zezengorri, Abelgorri edo Yonagorri *ekur* gorku edo guruaren kobaz dute zerikurik, ez inolaz margo *gorriaz*.

Kurtu/gurtu “*makurtu/gurtu*”, *ekur^(s)/kur* “mendi tenplo/buru ñaka” bezala, *ekur* “santutegia” dute sorburu. Han, *ekurean>koruan* *ekuritzen* bai zan Jainkoa eta han *agurka gurtzen* zuten *guruek* eta *egurikitzen* zioten *gurtzaileek*.

Kura/gura, “ardura/nahia” hizkuneak ere *ekur^(s)* tenploan du sorburu. Beharrea zegoenak hara *korritzen* zuan *sokorru* eske, erromanikoez ari beretik erabilten ditu “*currere⁽ⁱ⁾, recurrir, socorro*”. *Ekurmediko guruak* *abelgorrien kura* eta *arrenkura* izaten zuan. Hortik sortu zan *kurio⁽ⁱ⁾* arduraduna eta *kuratu>guraso* datorren ardura. Ardura honek ekarri du *kura>gura* izatera eta, *gurutu>quaerere⁽ⁱ⁾>querer*, etab. deitzera latinean eta erromanikoetan.

Gorta/gorde ere hizkide dira, eta bata bestetik dator edukinean,

batez ere, abelgorri eta bekor>behorren gordegoari dagokiona. Gaztelaniak ere *corte*, *cortil*, *cordero*, *guardar* aipatzen ditu bildotxak-eta *gordetzerakoan*, *ekur+ate>korta>corte* eta *gorde* baidator. Ondo *gordetzen* diren abelgorriak *guri* “*gordo*” egon ohi dira *guruak* (ana-koretak) *gordeta*. Oraintxe ere behien *guritasuna* gora-aipatzean “*San Antoniok gordeta*” esan ohi da, eta santutegiak *ekur>gora-* aditza goraipatzeko ahalmena ematen dio aurrizkiz.

Ekurtu/cortar “*egurtzea* egin/*cortar* leña” hizkuneak kideko egiten ditu ekintza bata eta bestea. *Egurretan* mendira joaten da, *Ekurmendi>Egurmendi* bezalako santutegira nonbait eta *Egurbidetik* zehar. Herri jakinduriak ere horixe azpimarratzen du “*mendira egurra eramatea*” alperrikoa dela adierazteko: “*egurrik ezin ditake egin oihanerat joan gabe*”/“*egurra toki txarrean eiten duenak bizkarrean ekarri behar*”, etab.

Corde⁽⁹⁾/*korde* “bihotza/zentzu” hitz kideok bihotza norbere barne santutegiko *ekur+ate* egiten dute, Menfisko teologiaren arabera, bihotzean ipinten bai-zuan pentzakizun eta eritzien ezarlekua. (Ikus 22.gn oharra) Esakerek ere hala dinoe: “bihotzean gorde”, “enok akordetan”, “korde gabe dago”, “umea akordatu da” “kordekatu”, etab. Latinak *re-* preposizioaz “*recordare*” egiten du eta gaztelaniak “*acordarse*”. Egitiarren psikologian, bihotzak bere segetu eta oroitza taxutzen dituen eran, halaxe *kordatzen* ditu hariak *kordelariak* elkarrekin trinko eta sendo iraun dezaten eta barazkiak-eta *kordatu* egiten dira, tajuz exegitzeko. Analogia batetik bestera dabil, menditik barne santutegira eta handik eskuarteko lanera, barnetik asmatu ezik, eskuak berez ezin dutelako ezer *kordatu*. *Kordean* egotetik jasotzen bai-dugu gauzen zentzua, *-korde/-kor* atzizkitik zenbait kasutan “jokera” ere sentikorde, *ulerkor*, *maitakor*, etab. egiten.

Kardia⁽⁹⁾/*gardi* “bihotz/eritxi” hizkuneak Menfisko psikologia jarraitzen du. Grekoak eta euskarak ezberdin jasotzen dute, grekoarentzat eta harekin latinarentzat *kardia/corde* haragi puzka da “bihotza”, euskararentzat, ostera, *gardi* “eritxia” da eta *korde*, berriz, “zentzua”. Hala ere, frantxesak “*par coeur*⁽⁹⁾” dino “buruz” esateko eta gaztelaniak “*acordar/acordarse* eta *recordar*”, etab.

Ekarri/egarri hizkuneak *egarria* berezko “jokera” dela dino eta

hala da gizakiagan denerako *egarria*. Estarria, gogoia *egarri* da, ase ezineko *egarria*. Hagatik erakargarri egiten zaiguna *-garri* atzizkiak seinalatzen dugu: *maitagarri*, *gustagarri* maitatzeko eta *gustatzeko ekarria* duelako eta hatarako *egarria* sortzen digulako. Herri jakinduriak honela ebazten du: “*urak ekarri, urak eraman*”/“*larrak gixitara lekarke*”/“*egarri danarentzat ez dago pegar zikinik*”, etab. Orobat, zama *ekarri/egari*, *orga=carro* bidez edo *garrira egari*az.

Kario/caro hizkunea salgaien *garatik* dator. Ze *gara* du edo zegan da? *Karasti>garesti* bai-dator, gaztelaniak ere *carestía* dino, gauzak *karu* edo *kario* direnean. Herri jakinduriak zera dino: “*garesti erosi, merke saldu*”/“*behar ez dan astoa, merkia izanda ere, garesti*”/“*karue dalakoan, onena merkien*”, etab.

Kauta/gauza dator, baliozko *gauza kautan kausitzen* da, *gauza* delako, ots, “balioa” duela esateko. Hortik dakar latinak *causa* eta gaztelaniak *cosa* eta *kauta* sorgutik auzietako *kautela* ere, “kexu, aitzaki” adierazten, erderazko *recaudo* bezala. Herri jakindurian “*gauza ona urrien kanbixetan da*”/“*gauza guztiek bere neurrixe*”/“*gauzak heldu diren bezala hartu behar*”, etab.

Gaixto/gaixto kideko ziran asaben jakindurian. Lot ez dagoena loka dagoen bezala, estu ez dagoena *estuka* da eta *estuka/gaixto*, arketipoen itzuliaz. Soinkerazko akatza izakerazkotzat ematen zan, fisika moralaz lotzen zelarik, edozein gaixotasun erruaren zigortzat ematen bai-zan. Herri jakinduriak ere antzera ebazten du: “*hazi gaiztoa, berez jaiotzen*”/“*gaiztoa zuzen zaila*”/“*gaiztoa bethi da gibel beldurt*”/“*gaiztoak gezurraz dira alegera eta egiaz triste*”, etab.

Kusu⁽⁹⁾³⁸/*kusi* “angeru zaindari/ikuski” baratzeiko *kusuak* ere baratza begiratzen eta txoriz *ikuzten* du. Bere ofiziotik analogizatzen da begien zeregina, *ikustea* eta *ikusiz, ikuztea* edo herri jakinduriak dinoen bezala: “*ikusiaz agindu*”/“*begiekin iretsik*”

38 *Kusu*, iburniko jainko lagun (*Himno a Shamas*, 31) eta *barashakushu* “baratzakuxu” Marduk erregearen tituloetarikoa (*Enuma elish*, VI, 138) Cf: *Utukku*^(s)/*kutou*⁽⁹⁾ “angeru guardako” arketipoen itzuliketaz. *Utu* ere gauzez iburniko jainkoetarikoa zan. Ohartzekoa da *barashakushu* konposizioak *baratzeko kuxu*, euskarak bezala, *-ko* kasua eliditu egiten duela.

dauzki denak"/*ikusi nai eztena, beti begietara*"/*nork bere begiko zakarrrik ez du ikusten*", etab.

Ekoitze/kosta hizkunea *ekoitz>egoitz* hitzetik dator, *egoitza* bai-da lana antolatu eta "ondo *kostata*", *ekoizpena* lortu duena. Gaztelaniak ere "lo que *cuesta vale*" dino eta herri jakinduriak, berriz: "*kosta bako ogirik eztau*"/"*kostala kosta*" ekiten da lanean.

*Garaun/granu*³⁹ dator eratorriz euskaratik erdarara. Galburuak garatzen deneko, garan biltzen du *un* goxoa eta *gara+un>grano* dator. Analogiaz giza garatua *grato>grado* da erdaraz, eta *garaitze/garatz>gratia*⁴⁰/*gracia* dator euskaratik erdarara. Hareago, gari garatuz *garba* egiten da eta *garba>grave*⁴¹"*aztun*" dator bere pisuaz. Analogiaz, giza *garauna>craneu*⁴² dator latinarentzat.

*-ganatu/ganadu*³⁹, mendian aske bazkatzen zuen abelgorria, neguan kortara **ekanatu>ekandu* eta *jabeaganatu* zan Neolitos garaian. Eta *ganadue* jabeek berekanatu>*ekandu* aberea da, gaztelarak ere hortik *ganado/ganar* egiten duela, bere bizibidea delako. Herri jakinduriak ere hala dino: "*mendiko ganadue, zurre*"/"*ganadue berantza datorrenian, mendian edurre*"/"*ganaduak pertsonaren urrengo dira*", etab.

Garbai/garbi hizkuneak zio eta ondorena kidetzen ditu, damuak bat errutik garbitzen duelako. Hitzaren sorgua *gar+ibai* izan daiteke, asaben kulturako Tulubioan bezala, auzia *garbitzeko* sua ta ura, jainkozko elementuak, bai-ziran *su-kor>txigor/zigor* eta *ibai/epai*⁴⁰. Esakeraz, "*otoi Jainkoari, baina uholdera ez jausi*"/"*ona izan eta ez zaizu garbatuko*"/"*urdaia, janda garbaia*", etab.

Akabatu/acabar abereen bizi-gabetzeaz esanda "*suge bat akabatzen duenak zeruko eskilara irabasten du*", auzo arriskutik salbatzen zuelako, ala Errensuge kumea kalituz, Errari omen egiten

39 Gure baserritarrek bere *ganaduaz* hitz egiten dute, gaztelarrek ere "de su *ganado*" hitz egin eta hiztegian jaso dute, euskaldunak, ostera, ustezko erdal hitza jasotzen lotsa izan dira. Eta erderak ez daki hitz horren berri.

40 "Norbaitek inor salatzen badu (...) eta ibai-jainkoaren ordaliara behartu, ibai-jainkoaren ordaliak salatua errugabe ebasten badu, behartu zuenak zidarrezko hiru siklo ordainduko ditu". (*Las Leyes de Ur-Nammu*, 13, DB, n^o 15)

ziolako. *Kabe>gabe>gabetu* dator eta *bage/baga*⁴¹/*bagatu/bagetu* eta hortik *baketu*, gaztelaniaz "*apagado/apaciguado*".

Kokatu/gogatu "egokitu, gelditu/gogartu" ekintza fisikoa ekintza psikikoaren baliagarri dator analogiaz, *kabitu/captar* eta *jabetu/saber* edo *barrendatu/ap-prender* bezala. Beraz *koko* "izkutuko nor">*gogo*" dator, barneko nor hori izkutu eta marrotu bai dago beste begitartetik. Ba da nork salatu, hala ere, herri jakinduriak dinoz: "*gogoa mihiak salatu*"/"*gogoa airatuz gero, gaitz da sosegatzen*"/"*guztia gogoan dago*"/*non gogoa, han zankoa*", etab.

Kasa/ikasi "era, eritxi, ardura, etxe/ikasi" dator, bertan bere *kasa* erakasten delako, kastako gazteeak, jakinduriaren arabera "*inor ez bai-ta ikasi jaioten*" eta "*ikasten ez dauenak etxean, ez daki kanpoan*"/"*lenengo ikasi eta gero berba*", eta hatarako zenbat *gaztigu gazteei*, izan ere, *kasta/gazte* da hizkunez eta "*gaztigitzen ez den falta, beste askoren aita*" esakunez.

Itziarrek ere gogoan du behin igande arratzalde batez, lagunekin urten barik, *gazituz* etxean gelditu behar izan zuena, aita eta amak baratzeko kusuarena egiten ziotela. Amak banazean kastitateaz ere hitz egin zion, hiesari ihaz egin beharra zegoela-eta. "Ze kasta oneko edo ze kasta txarreko" ez baitan gelditu zan Iziar, halako *gazitua*, halako zigorra bera ete zen.

6.6. Ba analogien jakinduria

Ba arketipoarekiko aglutinazioak, *Ba+Anu>Benu*, *Ba+Utu>Patu*, *Baios*, *Ba+Ra>Parau*^(h)/*Faraoi*, *Aberrri*, *Ba+El>Beel*, *Baelisto*, *Ba+ekur>Baigorri>Phegor*^(h) eta *Fagus* Ainamendi inguruko oroitarrietan ere agertzen direnekin. *Beel* eta *Aberrri abele/abere*, *bellua*^(v), *bull*^(v), *búfalo* eta *Baigorri/Phegor*, *pecore*^(u), *behor*, *behigorri*, *abelgorri* ganadu zaindariak ziran eta *Basamendi*, *Baramendi*, *Belamendi*, etab. izenak jainko txikion santutegien arrastoak dira.

Abere/habere^(v)"*abere/euki/eukia*", euskarak eta latinak egiten dute hizkune hau, *aberasbidea aberezaintzatik* zetorrela adierazten. Eukia,

41 Heriotza *Ka* eta *Ba* giza hastapenen banantzea zan. Erromak ere lege bereaz egiten zuan *baketzea* "solitudinem faciunt, pacem invocant" (Tacito).

beraz, *aberatz*, *aberetsu/aberatz* eta *abere^o/haber* “eduki” bai-datoz.


Epaitu/passu^o, “epaitua/jasana” hitzen kidetasuna *ibai/epai ibai*-jainko ordaliatik dator, berak ebasten bai-zituan antxinatean auzi larrienak (ikus 40 oharra). Ibaira *baxatu zena passa/u^o* egina zan, *epaia* jasana, alegia. Herri jakinduriak ere gogoan du harako pasaldia: “Jainkoari eutsi, baina ez ibaira jauzi” dinoean.

Bide/fide^o “bide/fede” hizkune hau Sortalde Hurbileko kulturatik harakoa da eta *behe>bei/via* hizkune soilean du sorburu. Ibaiaren behe *bidea* norbere bizitzaren mugida (jαιο eta hil) antzezteko erabilten da: “gure bizia, ibaia bezala, itxasora doa, bera bai-da herioa” poetak esan zuenez, eta ibaiko uraren ibilketa egiten du bizi epeak: *ibai/epe* eta bizi osteko *epai*. Herri jakinduriak dinonez: *epea amaitzean*, *epaia atean*”/“*epea ez da luzakor*”/“*irizten ez den eperik ez da*”/“*zabiltzan bideak harrapatuko zaitu*”/“*urak eginen du bide*”/“*ibili eta ibili eta ondarrean erori*”/“*ibia duenak igaren, daki osina zein den barhen*”, etab.

Fide/fida ere hizkunez kidetzen dira, batek bere biziko *fedean fidatzen* duen heinean, *bide/fide* ere bai-dator eta maite direnak hil arteinoko *fedea* agintzen diote elkarri. Herri jakinduriak ere honela eskarmentatu du: “*Bidaide, ez gogaide*”/“*bide asko izaten dira mendi gailurretara igotzeko*”/“*ez fiatu gehiegi itxura onarekin*”/“*non fida, han tronpa*”/“*nehoi fida ez denari nor fida?*”, etab.

Baita/bat “barne/ni” hizkuneak aitortzen duenez, nortasuna *baitak* ordezkatzen du, ez gorputzaren kaizuak. Esakerak ere hala dinoe “*batek ba daki/batek ezin dau*”. *Bat* hori “ni” baitatua da eta “inor” denean *norbait* da. Hagatik zenbakietan “ni on” eta “hi dui” barik, *bat* izango aurreneko eta *bida* hurrengo, giza jakinduriaren *baita* edo *psikhe^o* aldaketzen denetik. Herri jakinduriak ere hala ebasten du: “*batek galdu ein bier, bestiek irebasteko*”/“*batek hala, besteak hola*”/*bat* izatea hobe, *batez baino*”/*bere baitarik partitzen dena aixago*”. Hala ere, *batek* beste *norbaiti* erantzun behar dio, “*bat bedera berearen gainean itsu*” bai-gara, eta “*ez bai-gara geure baitako*”, herri jakinduriak aitortzen duenez, edo sikologistak dinonez, “*bat Besteagan burutzen da, arketipo mailan*”.

Baxatu/pasatu eratorri eta hizkune dira eta lurpeko hilerrira



Egitiar balantza, (Dic. B. or. 181) goian Maat, jakinduria eta zuzentasun jainkosaren irudia. *Pisuak* doitasuna neurtzeko berebiziko artezia du, beragan *pentzu* “ustea” izan daiteke, *pensu^o/pentzu* bai-dator. Zuzenbidea egiteko, Maaten *bena* eta artezia. Auzi lana ondo egiteko, ondo erabagi behar, “birritan *pentzatu* eta baten esan”, auziaren alderdiak begiratu, alderik izan ez dezan. Beraz aztailu honen arteziatik dator adimenak egiten dituen erabakien izena: *pentsatu/pensar*, gero ahoz erabagi ahal izateko

baxatu direnez esana da. Gaztelaniak, zentzu berean, *bajado/pasado*, *antepasado* dino. Latinean *passi^o* “jasanak, nekatuak” irauten du, gaztelaniak *padecido* bereizten. *Pasatu* direnez, nahiz *antepasado* izan, zera dino herri jakinduriak: “*Inxtat bat eta denak ahantziko dituzu, beste inxtant bat eta denak ahaztuko zaituzte*”.

Apena/pena hitzen kidetzea honela dator: *Ba* Maaten auzian *benaz* epaitua eta okerrekatik *apendua* izan ohi zan eta, beraz, *penatua*, gaztelaniak *apenado* dino. Maaten *bena penagarria* da, “*egia beti ere samina*” bai-da herri jakinduriaren arabera: “*ezta kontzientziaren penak baino pena handiagorik*”/*inoren penak errez eroaten haiziek*”/“*penaren karameloa, esperantza*”, etab.

Benatu/pensu^o Maaten balantzak pisatzen zituan zenduen bihotzak, bihotza alde batera, Maaten aginduak bestera. Haren erabagian izan zeiteken *pentzu* edo *pentzuda*, *pensu^o/pentzu* bai-dator (ikus goiko irudia) eta Maaten balantzak matematikoki pisatzen du. Beraz, pisatzen lana *pentsatze lanaz* kidetzen da, *pensare^o/pentsatu* datorrela. Herri jakindurian honela dager: “*pentsatu gabe esaten duenak pentsatzen ez duena esateu*”, “*egunez pentsatu, gauez amestu*”/“*zelan pentzau, alan ein*”/“*bi aldiz pentsau eta behin in*”, etab.

Behenatua/penatua hitzon kidetasuna ulertzeko (ohar 125 or.), *Ba Benu^o/Fenix* txoriaren irudia kontuan hartu behar da. Lati-

nak hortik “ave *pennata*⁽¹⁾ “hegadun txori” asmatu du, hegoak egiten bai-du txoria kabitik aske eta, era berean, kabian du pausalekua. Ba, bere Ka kabian pausatzen ez den artean, *penaz* dabil, non pausa ezinik. Erromatarrek *Benu* irudikizunari jarraituz, *dii pennates*⁽¹⁾ nortasunean susmatzen zituzten asabak eta, eureka-nako herri jaiera erlijio eginik, jainko txikioi etxeko *penu*⁽¹⁾ “azpira” edo jakien-toki zain izendatu zituzten.

Behin/fine⁽¹⁾ “orain/azkenik” hizkuneak *Ba* giza baitaren epea aipatzen du: “*behin* edo *behin/por fin*”, “*beheinipehin*”. *Ba+-en>been>bein* dator geheingo kasuan, hori bai-da *Ba* arketipoaren *ben*a edo egia, herri jakinduriak dinonez: “*bakoitza behin hilten da*”/“*finak darama koroa*”/“*behin ere ez baino, noiz edo noiz hobe*”/“*fin gaitz eginen duk, txoria, gaztetandik ez badagik kafia*”, etab.

Baratze/paratze eta *baratu/paratu* datoz eratorriz eta hizkunez. *Baratzea paratzeko* aratu egiten da, “aratz” hitza *baratz* gizatzen bai-da. Bestalde, *baratzeak* zaintzeko bertan *baratzea* “gelditzea” eskatzen du, *baratzea* jendea, heiztari edo artzain izatetik, bertan *baratu* zen aldikoa bai-da. Gaztelaniak *parar* dino eta latinak *pre-parare*⁽¹⁾. Eta herri jakinduriak: “*lurrak eman egiten bai-du, ematen bazaio*”, beraz, “*baratzetik asea, baratzetik gosea*”.

Beheatu/beato “beheratua/zoriontsu” aitortzen du antxinatiko jakinduriak, hau da, *zendua/sandua* dela aipatzen. Hagatik, asaben ustetan, “*inor ez da goraldia izaten bizitzan*”, beraz, “*hil hadi eta alaba haite*” dino herri jakinduriak ere, “il aurretik ez inor zoriondun hauteman, bere azagan ezagutzen bai-da soilik gizakaia” (Sir 11,28). Beste era batera esanda: “*gizakiak hil egin behar dau, ona izateko*”/“*hil eta gero guztiak onak*”/“*zerura juteko, hil egin ber*”/“*jaten duen sainduekin ez fieu*”, etab.

Beta/beza “aldi unea/vez=*txanda*” egiten da bakoitzaren auke-ran dagolarik eta orduan *beza>facie*⁽¹⁾>*faz* dator eta *betarte* “alimu” esan nahi du: “*nork leukaken bere beza*”, eta esakeretan “*betarte argi/faz risueña*”, ezaere “*betarte galdua/faz mudada*”, etab.

Betatu/vetar, hau da, *betatu* beharreko arauak *bedatu* egiten du, eta beraz, *vetar>vedar*. Hortik *bedate* “*beda aldia/tiempo de veda*” eta *bedate/bedatze* dator “udabarrian” izaten bai-dira *bedak*.

Bagatu/pagar, jakinik *baitu/pagatu* elkarren aurkako direna, *bagatu* zorretik “*aske, bako>vacuu*⁽¹⁾/*vago*” ustea da. Ka zordun deino, Bak *bagatzen* du, Ka *baga* “utsik” *vacío* dago, *bakean* datza, *vacat* “opor” dino latinak edo *pacatu*⁽¹⁾/*apagado* gaztelaniak (Ikus 125 or.) Hizkuneok aipatu-arketipoak dituzte analogizatzaile. Herriaren ahotan, berriz: *paga ona, akuilurik onena*”/“*pagatzaile txarrak asko agindu*”/“*pagatzeko azkena, hartzeko lenena*”/“*pagatzaile txarrari, epe laburra*”/“*nolako paga, halako lana*”, etab.

Berba/verbu⁽¹⁾, *berba/breve*⁽¹⁾ eta *berbia/previa*⁽¹⁾ euskaratik latinera doazen hizkuneak dira, hala *ber-bera>vera/veru*⁽¹⁾, *bera+pe>berba* dator, “benaren menpe bai-dago”. Esakeretan “*berbea emon=verba dare*⁽¹⁾”, “*berba egin=verbum facere*⁽¹⁾”, “*berba baten=uno verbu*⁽¹⁾”, “*txakurrenak esan=verba canina*⁽¹⁾”, “*ze berba da hori=quod verbum audio*⁽²⁾”, etab. Orobat *berba/breve* dator, jakinduriak dinonez: “*berbetan labor, ekintzan largu*” eta esakerok egizatzen dute: *berba baten esateko=breve faciam*⁽¹⁾, “*berba labor=brevis syllaba*”, etab. Hagatik herri jakinduriaren arauz, “*berbarik onena, laburrena*”/“*berba asko, errakuntza asko*”/“*berbie emon, sor*”, “*berba ona, baia eitera utsek*”, “*berbaz aittuten da*” eta nonbait latinak euskararekin *berba* egin zuan, gerkarren “*parabole*⁽³⁾>*palabra*” iguindu aurretik.

Bihotz/abots hizkune egiten dute organo bion elkertasunagatik. (ikus 22gn oharra) *Abo+ots>abots>vox*⁽¹⁾>*voz* dator. Gainerakoa herri jakinduria da: “*abotzean igarri bihotzean zer duen egari*”/“*bihotzaren giltza mihina*”/“*bihotzaren behargile, mihina*”/“*bihotzaren gaindia mihin puntara lerratzen*”, etab.

Borta>forzza⁽¹⁾, “*puerta/fuerza*” hizkide eta eratorri arruntak dira, hala *zeru-atari>adari>adar*, aberea eta haren indarra adierazten. Orobat *borta/bortxa* dator eta ate arrabortxatua, “*abrochada*” gaztelaniaz, antxina dorrez uritutako ateak bezala. *Uri* hitza *buri* gizatu zan, *Ibarruri>Ibarburü* bezala, eta *uritu>ortu>portu* legez, hala *Ortegal>Portugal*. *Borta>puerta* hizkuniketik *bortu>portu>puerto* analogizatzen da, itxasoko edo mendiko ate, hala *Bordele, Bordegaray*. *Borta/forte*⁽¹⁾ dator eta *botere>poder* ate “*arrabortxatuen>reforzados*” analogiatik eta esakeretan

aipatua “iburniko ateak ez dute gainartuko bera” (Mt 16-18).

Berru/ferru⁽¹⁾ “berogailu/burdina” hizkunean berogailua egin-dako gaiaz hartzen da metonimiaz. Hala ere, hitzak honela datoz *erro>berru>ferru>fierro>hierro* sortzetik eratorriraino.

Buro/foru “zin/fuero” zina eta zindutako auzia kidetu egiten dira hizkunean, zinduak foruak dira. Beraz *borutu/forutu>aforado*, gaztelaniaren arabera. *Boru* egin duten legelariak ere ofizioz *borutuak=aforados* dira, “zinegotziak”, alegia.

Buruz/puruz, hizkunez dator, *burutu* “jasan, lortu”, asmame-naren tokia *buruan* jartzen dela. Hagatik esan ohi da “ikasiaren *buruz>puruz*”, “ekinaren *buruz>puruz*”, “de puro listo”, “askatasun *puruz=pura* libetas⁽¹⁾”, “solo *puruan=in solo puro*⁽¹⁾”, erderek ere gogoan dutela. Bertatik dator *purikatu* “purificar”, *burukatu>borogatu>frogatu*, denetan *buru* dela analogiaren sorgu.

Burutu/frutu “burua atera/frutu” hizkune honek galburuaren irudia jarraitzen du, *burutzen* deneko, *frutua* dakar eta gainerako *frutakiez* analogizatzen da. Latinak haren pisutik *brutu*⁽¹⁾ “peso *bruto*” eta grekoak *brizu*⁽¹⁾ “pisutzu” egiten dute. Hala ere, latinak *fructu*⁽¹⁾ janzen du eta hortik *fruitu* kalkatzen da euskaraz ere. Analogia sorgu honek lehenago *garatu>grato* eratorriaz esana osatzen du, euskara amonak zenbait gauzatan erakutzi bai-zien klasikoei, nahiz euskarak *burutua* askotxok *brutotzat* eman.

Bezatu/bezi, *hesian* bezatzen da aberea, eta *hesitu>bezatu* giza-tzen arketipoz. Abereekin egin etxeko umeengana analogizatzen da eta *hesi/hezi* dator. Abereen *bezakuntza* aurretikoen lan eskerga izan-nik, *bezatu/avezar>facere*⁽¹⁾ “egin” izateraino, hatan ere, eta *facien-da*⁽¹⁾ “zeregin” gaztelanian. Hortik *azienda* “zaldi bezakuntzaz” dinoe Nafar euskaldunek ere. “Euskarak emana, euskarak hartua”.

Ipuindu/pinusso⁽¹⁾ “*ipuina* esan/*oponioa* eman” hizkuneak adimen eta esan aditzak kideko egiten ditu, maiz gerta ohi denez. (ikus 4°, 5°, 6° laburgoetan) Hala ere *ipuina* eta *oponioa* edukinez ezin bestean aldendu ditu arrazionalismoaren harrokeriak.

Vereta/verita⁽¹⁾ “*vereda/verdad*”, *bide/fide* bezala, egia eta bidea kidetzen ditu, egia norberak hautatu bizitza bidean egizatzen delako.

Vereda, nonbait abereek mendian beretu bidea da, *abere* lorratzen egia, bide estuan *apretado>prieto* gaztelaniak aitortzen duenez.

Barrendu/prender “*barneratu/oratu*” norbere *barrenean barrundatzen* duguna “*com-prender*” ulertzen bai-dugu”. Latinak preposizio azkoz ustiatu zuan *barrendu* psikologiazko ariketa hau, hala *apprendo*, *comprehendo*, *reprehendo*, *deprendo*, *disprendo* eta berarekin erromanikoek. *Barrundatu* formak ere *barruntar* eman du gaztelanian. Eta hara herri jakinduriak dinoskuna: “*nork bere barrena ezaguntzen gaitzena*” genetistentzat eta euskararen lekukotasuna aintzat hartzen ez dutenentzat ere aukerako oharra.

6.7. As analogien jakinduria

Azken aldiko jainkoak erritozko santutasun seinuz izendatzen dira, As arketipoa aurrizkitzen zaiela, hala *An/San*⁽¹⁾/*Sani*⁽¹⁾ “sanotasun jainkosa”, *Inu/Xein/Jein*, *Anu/Jaun*⁽²⁾, *Utu*⁽³⁾ ordezkari, *Shedu*⁽⁴⁾ “aingeru zaindari”, *Inko/Xeinko*, *Xekina*⁽⁵⁾, *Xainko>Jainko*, *Antu/Samsu*⁽⁶⁾ “sanotasun jainkosa”, *Adar*⁽⁶⁾/*Sadar*, *Erra/Sara*⁽⁶⁾ “arraba ta nasen zaindari jainkosa”, *Gar/Sagara*, *Anda/Sandao*, etab., euren santuegiak ere lekuko: *Senamendi/Montseni*, *Mandazen*, *Sandamendi/Monte Sandeu*, *Sansomendi*, *Sarramendi*, *Sadarmendi*, *Sagarmendi/Sacramenia*, *Sacromonte*, etab.

Izen/izan hizkuneak idea bereko egiten ditu izen biak, jainkoen sorkuntzan bezala, erritoaren arteziaz izena ahozkatzeak izan-tasuna ematen bai-zion aipatu gauzari. Hagatik dino herri jakinduriak: “*izena duen guztik ba du izana*”/“*izenik badu, bada*”. Ardurazkoa da *izena* ezartea, “zein izango da sein hau?” galde-tzen du hauzoak eta *izen/zein* eta *izen/sein* hizkune egiten elkar-rekin duten zerikusiatatik, “*izanaren itzala, izena*” bai-da herri jakindurian, “*izen txarra, izan txarra*”. Hala ere, “*ez dira asko izenaren jabe*”/“*izen ona galdu ezkerro, ezin bildu*, etab.

42 Akaden, XX a.K., *Yau/Yaum* titulua ematen zitzaizen jainkoei (“Yahvéh-IV” Dic B, o.c., p. 2054-2057) Cf: *en*⁽⁶⁾ “apaiz nagusi”, *ensi*⁽⁶⁾ “uri zain”, *ensi/xein>jein/jaun* arketipoak bihurrituz. Beraz *xein/zain* ere elkarren analogiak dira.

43 *Shedu*⁽¹⁾ “aingeru zaindari” (LIMET, H., “DEMONILOGÍA (religión sumeria y acadia”, DR, o.c., p. 416-417) Cf: *xede*, *txetu*, *xedatu*.

Zer/ser “gauza/izan”, zer bakoitzak izena behar du zertzeko “para ser”. Adizkeraz, zer>zertu>ser, eta ezer>ezertu/essere^(it).

Sein/sen/seny^(ca) hizkuneak hitzon arteko *senidegoa* aitortzen du, *etxean xeena/seina* bai-da hizkunez eta eratorriz eta etxekoen *sena* dakar *sentzuetatik zentzunera*, herri jakinduriaren arabera: *seinak dantzuana eskaratzean, esan daroa atartean* / “*umearen zentzuna, etxean entzuna*”, etab., gramatika barik, hori bai-da umeak besapean dakarren dizka: *eskolabideko sena* eta *zentzuna*.


Zendu/sandu hizkide egiten dira “*behatu/beato*” bezala, eta herri jakinduriak hala aitortzen du: “*hil da gero danak onak*” / “*beti santu gisan, harekin kontu izan*”, etab.

San/sano hizkunea *Shan^(w), Sani^(e)* jainkosa *saniatzaileagandik* dator, (ikus 137 or.) eta, beraz, *sanatu/sandu* hizkunea *gaiso/gaizto* hizkunearen aurkakoa da, *sanatzea* pekatuen barkamenari lotua bai-zegon⁴⁴ (Mc 2,5) eta gaixotasuna pekatuaren ondoretzat emana. Apaizek azaleko *santzuetatik* egiztatzen zuten gaixoaren *sanotzea* (Lc 17,14), hagatik *santzu>sancitu^(l)* dator latinez eta *sancitu/sanctu^(l)* “*ziurtatu/saindu*” kalkatuz. *Sanotuak santzo* egiten zuan, auzoak bere osakuntzaren berri jakin zezan. *Samsu^(w)/santso* ere hizkune dira. Herri jakinduriaz: “*sano denak ez du kutsurik uzten*”.

Saindu/zaindu hitzen kidetasuna hako beste *ekurte/gorde* abereen zaindaritzan mendi ermitetako gurun ordezkarari dator. Lehenago “*San Antoniok gordeta*” esaten zan, gero *San Antoniok zainduta*” eta herri jakinduriak: “*bakoitzak bere sainduari otoitz*” / “*milagrurik egiten ez duen santua laster da aztua*”, etab.

Senda/sendu “*bide/sendu*”, santutegira doan *senda* eta *sendotusuna* kidetzen dira, *sentier^(l)/senteria* “*sendabide/osasun*” bezala edo *sentu>sentorale* “*erromeria*”. Hala ere, herri jakinduria zorrotza da: “*gaiso txarrantzat sendagile onik ez*” / “*senda, senda, miriku, trapu zarra ziriku*” / “*sendoak ere makaluneren bai*”, etab.

Sentsu/zentzu hizkuneak ba du psikolinguistentzako argibiderik, *sentzunek sentituari zentzuna* ematean burutzen baida adimena eta ulerbidea. *Senti/senti^(cheso)* formak *sentire^(l)* > *sentir* baino zaharragoak



Ospetsua zan *Sahan* Feniziako urian *San^(w)edo Sani^(e)* sugeen jainkosaganako jaiera. (“*Bet-San*”, Dic. B, p. 233; “*Serpiente*”, 1832-1833) eta orobat *Galian* eta *Erroman* ospatua izan zen *Sirona*⁴⁵ jainkosa, maiz *ziraun* seinua zera-mana. Bere zeregina gaixoa *saniatzea*, “*zain txarra*” *sanie^(l)* garbitzea. *Zan* ona/*sana*. Ohartzekoa da *Sahan^(w)/nahas^(h)* arketipoen bihurketaz “*suge*” esan nahi duela. Euskaraz *nahas/nahasi* “*nas-tu, izutu, irabiatu, etab.*” esan nahi du eta halako eskarmendua du batek sugearen aurrean, narrastariaren ibilera ezbaikorragatik edo *pozoidunen eraso bildurrez*.

dira formaz, *sentiak* bai-dakar *sentitu* adizkera. Esakerak “*ama kamaran dau-ta, sentiduko gaitu*”, “*hilak ez du senditzen*”. Jakinduriazkoak: “*zentzū borogatū hobe, zentzū eskolatū beno*” etab.

Shedu^(w)/txetu “*aingeru zaindari/begiratu*” nor izenetik hartzen da bere zeregina, *Sheduk txetu* egiten du eta bide onetik *xedatu*. Gure asabek *Utu/so* iduzkiari egozten zioten laguntza bera. Ba dakigu “*begiratu*” “*begitik*” datorrela, baina *txen, txek, txezu* agintezko formak nondiko jo genitzaken, mitoaztertzearen puruz *Utu* sendiko *Shedu* pertsonaia ezagutu ezik? Hortik datorke *txetu/ezetu* “*begitu/antzeman*” hizkunea ere.

Etzekotu/ezegutu, etxakotu>ezagutu eta *etxakona/ezaguna* hizkide egiten dira, bada “*ez da jendea beila ezagutzen*”, horretan auzokide izateak laguntzen du, “*ezagutzen eztana ez da estimatzen*” edo “*ez ezagunak jasan ezala*”, baina, nolana ere, “*zuurtzia da norebera ezagutzia*”, etab.

Eskola/schola^(l) elkarren eratorri dira grafiaren gainetik. Hitza etxearen *esku* dagoen *olatik* dator. Abereak ekandu eta etxekotzeko

erabilten zan. Sinboloa egina zegoen etxeko umeen heziketa erakunde bertatik analogizatzeke, *eskola* maisuek ukatuko balute ere. Harrezkero *eskolaume* bai-dira, gero *eskoladun* eta herri jakinduriak dinonez, “*eskolati ihesik, laster zara oinutsik*”, etab.

Xabetu/sapere⁽¹⁾ “jaso/jakin”, *sabore/saboir*⁽²⁾ bezala, edo *kabitu/capere*⁽³⁾ > *cabere* ekintza fisikoak ulermen ekintzarako analogizatzen dira, zerbaitez *jabetzea* “ulertzea” ere bai-da eta erromanikoen *capere* > *captar* “oratu” ideak jasotzea ere esan nahi duenez, edo *jabetu* “me sabe”, “ez naiz jabetzen” esakerak. Herri jakinduria genetistei erakusteko ere bada: “*jabeak ba daki*”/“*buruaren jabe ez dana ez da ezeren jabe*”/“*hitzaren jabe izan behar da*”, etab.

Espe/spe⁽⁴⁾ “ansia/itxaropen” hitzak ere kidekoak dira edozeinen bizikizunean egizta daitekenez. Zerbaiten *espe* denenean, *espero* egiten da, gaztelaniak “se *espera*” dino eta geroko agintzarien *espea esperantza* dator. NORANTZA? *Espe.ra.ntza* begira, *esperan* bizi da “a la *espera*” gaztelaniak dinonez. Herri jakinduriak ere hala dino: “*esperantzak bizi arazten*”/“*esperantza, azkena da galtzen*”/“*esperantza, gozari ona eta apari txarra*”/“*esperantzarik barik ezin lei bizi*”, etab.

Eskui/esku “eskuma/ekubidea” gizarte eskubide berriak “man/manu” zen amatar eskubide zaharra ordezkatzan du, bata etxetiar gelditzen dela, bestea, plazaratzen. *Esku* giza arketipo biok gizarte berriko seinu egiten dira, herri *eskubide*. Herritarrak *esku* dira eta *eskuartzen* eta *eskua ematen* dute eta *eskubidea* zehazten, zer den *esku* eta zer uko. *Esku/eska* dator, latinarentzat *esca*⁽⁵⁾ “janaria” dena, *eskura/segura* > *segur* > *ziur* dator, *eskurantza/segurantza*, *eskuratu* > *asegurar* gaztelaniak ere oroit duenez, eta herri jakinduriak, berriz: “*eskuen euki arte ez konteu*”/“*eskutik ahora okelea galdu doa*”/“*eskuak garbi, kontzientzia zikin*”/“*eskubide bat eman eta bi hartu*”, etab.

Ezker/esker hizkunea *eskui/esku* gizarteko ez denaren txanda da, eskubidez barik, goitiko mesedez datorrena. Herri jakinduriak ondo dino: “*eskumak jakin ez beza, zer dagiken ezkerak*”, eta euskaldungoan *esku* alde biok bakoitza bere buruko antolatu dira.

Eskari/esker dator hizkunez eta herri jakinduriaz, “*eskatu ezker*”,

Jainkoak ezteu negetan”. *Eskar/gracia* dator arketipoak bihurrituz.

Esti/ezti “atzen/uzte” txertuaz *estitu* egiten da frutakiaren lorea, eta hagatik *eztiago* zoldutzen zaio frutua, *estituak* eguzki gehiago hartzen bai-du. Beraz ekintza eta ondorenaren hizkunea da.

Shekina^(arab) 46 / *xakin* “Jainko/jakin” hizkuneak Jainkoa eta jakinduria kideak ditu eta hala dino aramear jakinduriak: “gizakiak zerutik urgaziak izan dira, jakinduria zerutik datorrelako, eta jainkoentzako ere estimagarria da”⁴⁷. Eta herri jakinduria ados dator horrekin: “*Jainkoak daki*”/“*dakianak daki*”/“*batek ba daki*”/“*dakianik ez da jaiotzen*”/“*dakikanetik begira hadi, ez dakikanetik Jainkoak begiratuko hau*”, etab.

Eskondu/esconder “eskuratu/eskutau”, behin eskura ezkeror diruarekin-eta maiz jaso ohi denez. Horrela, “*itxadonik, txoria eskondu nei*”, baina eskutau nekez “ez dago hizkutukorik jakingo ez denik” (Mt 10,26) jakinduriaren arabera. Hareago, *eskondu/ezkondu* ere ba dator, *ezkonsariak* ongi *ondutzen* bai-du ezkonkideen *eskua* eta hala dino herri jakinduriak: “*ezkontza txarrik ez*”/“*ezkondu baino, etxaguntzea lenago*”, etab.

Eskura/segura, eskuratu/seguratu, gizarteko eskubidea *esku* dute analogia sorgu eta *es-/iz-* eta *se-/zi-* forma bietara ahozkatzen da, tokizenetan agertzen denez.

Asti/aste hizkune datoz eta *asti/dies*⁽⁶⁾ “egun” bihurritzen du latinak eta “*dies ferialis*”⁽⁷⁾ *astegun* eta “*dies festivus*” *jaiegun* bereizten ditugu. Herri jakintzaz: “*astea lanari eta igandea Jainkoari*”/“*aste bakoitzak bere ortzirala*”/“*jaia joan, saindua ahaztua*”, etab.

Asperatu/spiritu, arnasea hartzean, *asa birietan* sartzen dugu, *asperatu* > *aspirar* datorrela gaztelaniaz eta ekintza hori da jaioberriaren bizigarria eta materiatik hara doan *espíritu* bizi emalea, *as/hasi* hizkunez, arnasa bizitzaren hastapen den bezala. Analogiaz landare zumoak ere, ardoak adibidez, *espittu* bizigarria du.

46 *Shekina/xakin* hizkune jatorra da, lege jakintsuen eta lege ikasleen artean Xekina (haren irudia) egoten bai-zan txistari (“*Shekina*”, DR, o.c. p. 1638) CF. *Shekina/Xainko* da arketipoen itzuliaz.

47 *Los Proverbios de Ajicar*, 94-95, DB, nº 26.

ONDORENA

Euskaldunak, euskarari dagokionez, orrastuta dauka burua, euskarak arketipo ezagunetan oinarritu eta egoki taxutu daukalako hiztegia eta gramatika eta irakasbidea hizkuntetan eta esakeretan argi azaldu eta euskal jakinduriaren molde lortua izateraino hazia, euskara ideen ulerbiderako asmatua eta kordatua izan denez gero.

Euskararen batasuna bere arketipoetan datza eta euskararen iraupena arketipooi izan dien fedean oinarritzen da, horrek eman bai-dio, aldameneko hizkuntza ustez landuegoetan lerratu gabe, burua ateratzeko izan duen gida ziurra.

Hizkuntzaren mitoazterketan Sumer eta Egiptora zubia egitea ezinbestekoa da, mitografia gonbaratuak geure mitoa ulertarazten bai-digu. Historian eurak dira aurrelari eta euskarak kultura aurreratuokin du zerikusia, arketipoetatik hasi eta hizkuntzara, eurak izan bai-ziran hitza arketipoen sorguetatik analogizatu zuten maisuak. Sumererak, bestalde, milaka urtetan iraun zuan Sortaldean, liturgizun hizkuntza idatzia bezala, geroago latinak eleizkizunetan lez. Euren mitologia nausia izan da mediterranean inguruko hizkuntzen oinarria, hatitarrek ere euren eskolako egin bai-ziran, eta hango tokizenen otsa Atelandiko Europaraino zabaltzen da, euskara bera dela lekuko eta ulerbide.

Hizkuntzaren monosilabismo garaiak izadi jakinduriak du zerikusia eta jainkozko sinbolo eta arketipoetan oinarritzen da. Jainko arketipoen giza arketipoekiko ezkontzan nabaritzen da giza jakinduriaren ordua, gizarteak eta gizakiaren etorkizunak arduratzen bai-du. Exegeten azterbide hau euskararen sorkuntzan eta hazkundearen egiztatzen da pauzoz pauzo, aglutinatze garaitik zaulira.

Izadi jakinduria eta gizarte jakinduria, exegeten gardiz, teologiazko jakindurian osatzen dira, beste jakinduria bien azalpena bai-da, Sumer eta Egiptoko idazkietan ere ikusten den bezala. Gizatasunak jainkotasunaz ornitu nahi du baitako hutsunea, eurekandik santutasun zehatza lortu ahal izateko, *ekur* zaharreko kultoa *Zikurat* eta *Sakara* piramidearen inguru berritu zuanean.

ONDORENAK

Euskara gurasorik gabeko hizkuntzatzat eman zuten indoeuropeisma erratuan jausi ziren hizkuntzalariek, ots, euskaldunok, ama bako seme-alabak garela kulturaren eta, dakusagunez, euskarak bai du amarik izadian eta aitarik gizartean, Neolitostik harako kulturaren sinboloetan ezarri bai-zuan oinarria eta harako mitoetan inutu bere irudimena eta errito ospakizunetan bermatu hazierako ituna, Antxinako Sortalde Hurbilean, Sumerren eta Egipton bederen, gertatu zen bezala. Hagatik euskara bera da zenbait hizkuntzen ama.

Euskal jakinduria antxinakoen kosmologia da monosilaboetako bere hizkune soiletan eta antropologia eta psikologia da bere konplexuko ordezkari diren arketipoen bidez jainkoekiko ezkontza egitean, oroitzapen eta bizi eskarmendu da erritoetan eta teologia, bere nortasuneko arketipoen baloreak goi jakinduria mailara jasotzean.

Euskararen hermeneutika bere iruditeriaren oroitzatza ondo kordatuan datza, asabek halako asmoz egin bai-zuten, ondorengook halako jakitez akordatu ahal dezagun. *Innatismo* teoria, ots, hizkuntza gizakien berezko zerbait delakoa, bestalde, mito galduen errepikan lerratzen da, hizkuntza jainkoek asmatua izan bailitzan edo euskara Jainkoak gure lehen gurasoei Baradisuan erakutzia.

Robotikak makina hizlaria asmatu du, eta makinagandiko hotz errefindu eta ulergarriak entzutean harrigarritzen da eta gizakia izadiak sorturiko robot bizi hitzuna ete den galdetzean, erratzen du.

Euskara, oster, jaiotzatik hazkundera eta handik garapenera, gizakiak gizaldietan bizi eta barrendu duen eskarmenduen azterpena eta sakonean eguno kontadu ez den historiaren jabe den hizkuntza da eta kulturaren hasieratik ahoz-ahoz geuganaino heldu den berriona eta zuzia. Halako hizkuntzak dinona behenipehin sinistagarria da, sinisgarrietan hizkuntza izanik lekukoen, erlijio gonbartuen historigileen gardiz.

Euskara, beraz, ez da genetikaren ume, giza artearen ondorena baizik. Genetikak ehunetik 95 -gino xomorren lehengusu egiten gaitu eta euskarak, inolako morrontza barik, buruan "asmoz

eta jakitez" landurik duen oroitzapena jarraitzen du, eta beraren magalean garatu den kultura baten ume egiten gaitu eta jatorrizko askatasuna amets eta helburu dutenen herkide.

Garatu eta garapena aipatzean, buruko garaunaren aburuak aipatzen ditugu eta garautegi hori genetika baino askoz indartsuagoa da giza bizitza eta asmoetan. Genetika bidez, gizakiagan mirariak egin nahia utsal gelditzen da, herriaren kultura aletegiko ahaleginaren ondoan. Neolitostik hona ikusten denez, eskoladun herriak arduraz saiatu izan duten kulturgintza lana eta hori da behin ere baztertu barik, urgazi behar dena.

Euskararen jarraipen hori ezinbestekoa da euskaldunen heziketarako eta euskararen jarraipenak euskara baitaraino ezagutzea eskatzen du, asaben hasierako asmoa ezagutu ahal izan eta "euskara asmatu zutelako, euskara lantzen asmatzen dugu" esakunera geure kulturaren jarraipena hitzetik ortzera egiztatu ahal izateko.

Hizkuntza modernoak, asaben asmoen ezjakinean, hortik hemetiko harri pilatuez bezala, jaso zuten euren hizkuntzen deskribapena eta gramatika eta hainbeste hotsetan sailkatu zuten. Euskara idatzia hizkuntza modernoaren eskola jarraitu du bere hiztegia eta gramatika azaltzean, maiz eurekiko jarraipenagatik edo, aurrizkien kasoan, ustezko jarraibidea ihestearren, oztopoak izan ditugula.

Beraz, nortasun bezala, biokimikak barik, geure egiak egingo gaitu aske, eta euskarak ba du bere baitan taxutu eta ondo kordatu euskaldunok askapen akordua lortzeko beste egia eta jakinduria. Asabek asmoz eta jakitez egin zutenari esker, gara garena eta asmoz eta jakitez antolatzen duguna izango gara etorkizunean ere.

Itziarrek, hain gazterik, euskara tituloa dauka eta euskara irakatziz jadanik bizibidea ateraten du eta, amari kontuak ematean, bere benetako irakaslea ezagutzen du beragan, bada, idazleek esaldiak ondo taxutzen dituztenarren eta hizlariak araudiz mintzatzen, etxetik ate eguno lezinorik hartu ez duen amaren berbaroak ba du bere tzat maisuenak ez duen lilura eta musika apartekorik.

(Jarraian doan MONOSILABOEN HIZTEGIA arketipoz arketipo antolatua da, otsen soiltasunari baino, hareago hotsen sorguari jarraikiago).

MONOSILABOEN HIZTEGIA,
ARKETIPOEN ARABERA

AN

aen>ain "tan" (gonbaratzekoa)
ain>hain "tan" (gonbaratzekoa)
aina "beste, tal, tanto"
aine "auntz kume"
aino "laino, geriza"
ainü "balinba udokitzea (oihua)"
ainu "hitzal, eguzki sartze"
aihen "sarmiento, enredadera"
aiene "inzini, min abestia"
ama "madre"
amai "azkena, azaga"
an-, am- aditz aurrizki edo preposizio, hala anbildu, anpatu"
an>han "alli"
anae>anai "anaien artean"
ano "ardao, mokau, nekatu"
anoi "janari"
anu "janari"
aña "arriba nagusi"
añai "centeno"
añe "auntz kume"
añi-añi "ibili" (ume hitz)
año "akitze, nekatze"
aña "auntz kume"
auma "auntz kume"
aun "neke"
auna "jokera"
auno "neke"
auña "auntz kume"
emai "opari"
ein>hein "neuri, une, maila"
eina>heina "ia" (gonbaratzekoa)
eme "hembra"
emoi "emari, frutu"
en "ni"
en- hitz eta aditz aurrizkia, orokor eta nausia dena adierazten, hala enduritu, engreinuatu, endone"
-en kasu atzizkia; zioa, noentasun,

zeintasun eta gehiengoa adierazten du ena "egia, hizketa makulu, hala "ben, benetan, alegia"
ene "neure, ezustea adierazteko ohiu"
eñe "esne" (ume hitz)
eni "neri"
eun>ehun "cien, miesa"
ehün "ehundu, eule"
eune "harridurazko ohiu"
ime "ume"
imi "anega lauren"
imo "ondo eldu"
in "egin" (Jainko ekintza)
in- aditz aurrizkia, orokorra adierazten, hala inausi, intzigiu"
iña "mimen, ihi"
Ino "Inko, "zeru" Inkoren aurretiko"
ino "esan", iño "mindurikatu"
-ino muga eta zioa adierazteko atzizkia, hala horraino, etorri daino, ma "musu" (ume hitz)
mahai "mesa"
mao "isileko, krabelina"
me "argal"
mea "mineral"
mee "sotil"
mii "mihin"
mu "hitz"
-n NON/NOIN kasuko atzizkia
nai "naiz, izan laguntzaiale"
nahi "borondate, maite"
nahia "uin, maitea"
neu "nerau, ni hau"
ni "en" (izenorde)
no (emakumei deitzeko) eutsin, ono"
ñiu "huts, inor ez"
ño "umeño"
ñu "behi, idi" (ume hitz)
oin "pie"
oin>hoin "beste, aina" (gonbaratzeko)
on "bueno/a", hon "hau"
ona>hona "hona hemen"

oni>honi "NORI kaso, oso, labe"
 ono "eutsin, harzan"
 onua "aholku"
 ooin "lapur"
 uin>uhin "uretza, nahia, olatu"
 umao "heldu"
 ume "haur"
 umo "heldu"
 un "muin", hun "garaun>craneu"⁰⁾
 unai "behizain, artzain"
 une "toki, espazio, abagune, eite"

UTU

ada "adar"
 adei "dedu, errespeto"
 adi "adikera, adimen, adi>ai aditz
 laguntzaile intrans. agintekoan"
 adu "adur, sorte"
 ahi "papilla"
 aje, aie "min, mindurika"
 ai-ai "ostera, ibilketa" (ume hitz)
 aida>aia ganaduari eragiteko oihua
 aide "lehengusu, haize"
 aidda>aidsa>aisa "erraz"
 aisi "opor"
 aita "padre", haita "une, olde"
 aitoa "aitona"
 aitsa "aitona"
 aitu "ulertu"
 aitz<ate "atx"
 aitz "aurka"
 aiz "atzera" (itzaien oihu)
 aizo "auzo, urko"
 aizu>haizu "legezko dena"
 as-<ats- aditz aurrizki, eragina adie-
 razten, hala astindu, astoratu"
 aso "zahartzaro"
 asoi "pikortxoak"
 asoia "zirrara handia"
 asu "sasi"
 at "kanpora"

at- aditz aurrizkia eragina adieraz-
 ten, hala atoratu, ataskatu", uxa ohiu
 ata "ganso"
 ate "atari, kanpo, bortu, pasaleku",
 hate "bide, baliagarri"
 ato "artalde, janzki, pardel, asto"(u.h)
 atto "anaie nagusi"
 atoe "gardi osteko, remolque"
 ats "arnase, espiritu, hats "usain"
 atso "zahar"
 atx<ate "bortu, aitz, min oihu"
 atu "errediza, tresneri"
 atz>hatz "urratz, hatzamar, seinu"
 atze "oste, etorkin, zuhatze, aztu"
 axa>haxa "exe^(ga), eje"
 atzo "joan berri den eguna"
 aus- "aditz aurrizki eraginkor, hala
 ausartatu, ausberatu".
 ausa "aventura"
 auso "afrontu"
 auta>hauta "aukeratua"
 auts>hauts "ceniza, gabacho"
 autsi>hautsi "apurtu"
 autz "estarrri"
 autu "solas, hizketa"
 auzi "pleito"
 auzo "urko, auzotiar"
 auzu "auzuak erabakia, legezko"
 axi>haxi txakurra axaxatzeko ohiu"
 az- aditz aurrizki eraginkor, azoratu".
 aza "berza"
 azai "becada"
 azao "txola"
 azi>hazi "hezi, handitu, erein zaro"
 -da aditz partizipioa, hala eginda
 dei "deiar" "
 dia "multso, talde"
 -di "multsoa adierazteko atzizkia"
 doa "medese, don"
 doi "bete, zuzen"
 -du aditz partizipioa, hala ornidu
 dui "bi"

eda "erditu"
 ede "uhal"
 edo "o" lokarrigai ez dena
 edoi>hedoi "oinestu, nube"
 edu "beste, aina, eredu"
 ehitu "erraztu"
 eio>eiho "jo, irindu"
 eit "deitzeko oihu"
 eite "antz"
 eitz "utzi, itxi"
 eiza>ehiza "caza",
 eixa "are soila"
 eju "estul legor"
 et "esturasuneko oihu"
 eta "hitz arteko lokarri"
 eto/etoi "saldu, saltzaile"
 etsai "arerio"
 etsi "itxi, etsipendu"
 etx- aditz aurrizki indargarria, hala,
 adibidez, etxaron"
 etxi "itxi, utzi"
 etxu "domistikun"
 etzi "bihar barik bestea"
 eudi "euri"
 eutsi "oratu, hartu"
 eutxi "eman!"
 eutzi "laga"
 ez "uko"
 eza "uko, huts"
 eze>heze "busti"
 ezi>hezi "etxekotu, ekandu"
 ida "ira"
 ide "kide, berdin"
 idea "idea, mailako"
 idi "buey"
 idoi "potzu, istil"
 yi>hi "tu"
 iya "casi"
 iji "poz oihu"
 ijo "eijo, irindu"
 ize>ihize "caza"
 jo/yo "joan, zigortu, ereskindu"

isi "asmo", hisi "ansi"
 iso "aberea geldiazoteko oihu"
 ito/itto "uretan hil"
 ite>ide "antzeko, idea"
 itoi "atera, urten"
 its "kolorge", hits "zikin"
 itsu/itxu "ikusten ez duena"
 itu "hito, eduki"
 itxe "etxe"
 itxi "utzi"
 itz>hitz "berba"
 itze "untze"
 itzi "utzi"
 ixi "itxi, ertzi"
 ixo "isila agintzeko oihu".
 iza>ihiza "caza, jararritu"
 izai/izei "abeto"
 izi "sarrakio"
 izio "biztu"
 izoa "izeba, izeko"
 izu "bildur, uzu"
 odai>hodei "trumoi, orei"
 odi "ubide, kainu"
 oju>oihu "ots, zarata"
 os- aditz aurrizki eraginkor, hala,
 adibidez, osartu, oskarbitu.
 oso "oro, dusti"
 osu "materia, zorne"
 ota "goi, ote"
 ote "ausaz"
 ote- adizkeren dudazko aurrizki
 oti "salta matxino"
 oto "osaba"
 otoi "otoitz", otoi! "mesedez"
 ots>hots "zarata"
 otso "lobo"
 otu "bururatu"
 otx "min oihu"
 otz>hotz "frio"
 otzi "lurperatu"
 ozi/ozio "zaro, azi"
 so-/su- aditz aurrizki eragingarri,

hala sohatzi, subermatu”
 su “fuego”
 ta- aditz urrizki indargarria, hala talapastu, talaskatu,”
 -ta aditz partizipioa, hala etorrta
 -te aldia adierazteko atzizkia, hala, adibidez, Inote “Inuren aldia”
 -ti “uhaltasun atzizkia, hala mahasti”
 -tu aditz partizipioa, hala maitatu
 to>txo, gizonzekoi deitzeko “hi”, to “tori, eutso”,
 -tto>-txo “txikitasun atzizkia, umetto”
 txeia “emakumeei deitzeko”
 txo “gizonekoi deitzeko”
 txu “listu, txistu”
 uda “verano”
 udd>ux “ur, etxe, hala Udala/Uxala”
 udi “obo”
 udio “buztarriaren erdiko zuloa”
 udo “hurón”
 udu “kirten”
 udui “uste”
 uisa “handinahi”
 uita>huita “dei, eskari”
 uitxa “txorito”
 uixu “nahia, gura”
 ujui “ots, irrintzi”
 usa “herri lur, arrantza kako”
 usai “urrin”
 usi “baso trinko”
 usia “txiki”
 uso “uxu”
 üsü “lodi, ertzi, arin”
 usu “materia, zorne, gatzur”
 ut “ezeste oihu”
 uxia “gurari”
 uts>huts “vacío”
 -uts “peitua adierateko atzizkia”
 utx “min oihu”
 utxa “kutxa, kaxa”
 uxo “abere uzua geldiarazteko oihu”
 uxu “basati, ibiltari”

utsi “itxu”
 ütsü “itxu”
 utz “haize”
 utzi “laga”
 utzio “idiaren aska”
 utzu “laga”
 ux “oiloak uxatzeko oihu, iges egin”
 uxi “aserre”
 uxia “irrika”
 uxo “abere uzua geldiazoteko oihu”
 uzi “ansi, nahia”
 uzo “zakar”
 uzu “mendezin”
 xu “zu txikitua”
 za- aditz aurrizki eraginkor, hala, adibidez, zapaldu”
 zeu “zu hori”
 zio “arrazio”
 zoi “zotal”
 zu “hi”

ERRA

ar “gizonezko edo abere kuntze, ar-
 basta, aihergo”, har “hartu, hura”
 ara “tuku, sen, irri, harritze oihua,
 hara “NORA”
 arao “kalterako orho, otoi”
 arau “edu, eredu”
 are “ondar, golde soil, oraindino”
 arhi “gibel”
 ari “ihardun”, hari “firu, NORI”
 -ari gai eta ofizioa adierazteko atzi-
 kia, hala hortuari, pelotari”
 aria “arrazta, tratu”
 ario “jarrera”, hario “ardagai”
 aro>haro “denbora, haro”
 aroi “abagune”
 arra “zee, arrabete, zarata”
 arra- aditz aurrizki indargarri, hala,
 adibidez, arrabiztu”
 arrai “arrain, atsegin, argi”
 arraio “oldar egiteko oihu”

arrau “arraun”
 arre “nabar, zamariak kinatzeko oihu”
 arre- aditz aurrizki indargarria,
 hala, adibidez, arregotzi”
 arri>harri “piedra”
 arrio “arreo”, harrio “ardagai”
 arro>harro “putz, galania”
 arroa “arropa”
 arroi>harroi “harrobi”
 arru “barranka”
 aur>haur “ume”
 auri “alauri”
 aurio “urretxori”
 aurra “aiene kantu”
 aurre “bekoki, antze”
 auri “eraikintz oin, ahul”
 er- aditz aurrizki indargarri, hala,
 adibidez, erausi, erantzun”
 era “modu, edu, arau”
 ere “barruan hartzeko, baita ere”
 erei “andura, txorro”
 eri “gaiso, hatzamar”
 eria “peria”
 erio>herio “heriotz”
 ero/erho “zoro”
 eroiu “giza inzini”
 erra>herra “ira, ahier”
 errai “errain”
 erre “utuldu”
 err- aditz aurrizki indargarri, hala,
 adibidez, erresi”
 errei “ildo”
 erri “lur landu”, herri “nazio”
 erria “jatxi, jatxiazi”
 erro “sustrai, errainu”
 erroi “bela handi”
 erru “ogen, lokatz”
 ira “erra, samin handi”, hira “iratze”
 ira- aditz aurrizki eragile, hala, adi-
 bidez, iratxiki, iragarri”
 irau “irain”
 iri>hiri “uri, uriburur, hiri “NORI”

iro “hekatu, ardagai”, hiro “sorne
 iroi “agirika, irain”
 irra “ir, kurri, dantza”
 irri “parra, irain”
 iru>hiru “zenbaki, firu, hiruten ari”
 ore>ohore “ospe”
 or “txakur”, hor “NON”
 ora “masa”
 orei “laino”
 ori “laru”, hori “NOR bigarren”
 oro “dusti”, orho “dei, marru”
 -oro “denetan” adierazle den atzizkia”
 oro “gogortu, orue”
 orra “mea”, horra “NON”
 orre “ore, erpuru”
 orri “ostro, ehunaren zabalera”
 orho “orro, otoi”
 orro/orru “marru”
 orroe “marruma”
 oru “orube”
 uhuri “alauri”
 ur “ud, zumu”, hur “gertu”
 uri “euri”, huri “hiri”
 urra “urretx”
 urre “urregorri”, hurre “gertu”
 urri “eskas, bete, Urril”
 urru “usu, lodi, ugari, dohango”

iLu

al aditz ahaldunaren seinu
 al- aditz aurrizkia indargarri, hala,
 adibidez, alegin>ahalegin”
 ahal “botere, gaitasun”
 ala “belar, o (bat ala besteko)”
 hala “horrela”
 alai “pozik, alegere, bizkor”
 ale “garaun, norbait”
 ali “pareak jokuan”
 alo “iraka, olo”
 alu “eritasun, iguin hitz”
 aul>ahul “erbal, gaiso”
 auli “entzuik, entzun ezak”

aulia "alauri"
 el>hel "laguntza eskatzeko oihu, heldu"
 el- aditz aurrizki indargarri, hala, adibidez, elerran"
 ela "ipuina, alimoa hartzeko oihu"
 elae "enara"
 ele>elhe "hitz, artalde, abele"
 eli "aldra, artalde"
 ellu "euli"
 eula "ehunlari"
 eule/euli "mosca"
 il>hil "herio, zendu, hile"
 ile "ule, artule"
 ili "hiri, huri"
 iloa "iloba, biloi"
 la- aditz aurrizki indargarri, hala, adibidez, labaindu, labakitu"
 lai "laya"
 lei "izotz"
 lehia "grina"
 lo "dormir, sueño"
 loi "lokatz, gorputz, zikin"
 oihal "zapi"
 ohil "uzu, basati"
 ohila "galania"
 ohol "tabla"
 oilo "gallina"
 ola "txabola, bizitoki", hola "honela"
 ole "borondate, gogo"
 olhe "mantso"
 olio "aceite"
 olo "avena"
 oili "mailu"
 ul "uts, peitu"
 ula>hula "honela"
 ule "ile"
 uli "euli"
 ulu "alaru"

KA

aga>haga "palu, partika"

age>hage "habe"
 agi "begitantzino"
 ago "abo", hago "sutegi, ezusteko oihu"
 -ago gonbartzeko atzizkia
 agoe "goa, burdin ore"
 ak- aditz aurrizkia, ekintza fisikoaren adierazle, hala akitu"
 akai "oilagor, mingor"
 eg- aditz aurrizkia, ekintza fisikoaren adierazle, hala, adibidez, egortzi"
 ega>hega "hego, erlatz"
 egi>hegi "zeru ertz, mendi muga"
 egia "bena"
 ego "egal", hego "haize mota, Sur"
 egoi "buru handiko arrain"
 ek>hek "hoiek"
 ekai "lan, gai, alamen"
 eke "ke"
 ekei "hazkai ona agintzen duena"
 eki "eguzki"
 ekhi "benetan"
 eko "ez, gogor eman"
 euki "eduki"
 -ga/-ge ukapen seinua, hala, adibidez, zuhur/sorga
 gai/gau "gaba"
 gei, -gei "zer, materiala, asmo"
 geu "geurok"
 -go gonbartzeko atzizkia
 goho "itogarri"
 goe "goi, ota"
 goi "altu, ota"
 gu "Nor lehen ugaria"
 ig- aditz aurrizkia, ekintza fisikoaren adierazgarri, hala, adibidez, igurtu"
 iga>higa "maiztu, heldu"
 -iga "etxe" tokizenetako atzizkia.
 igo "igon"
 -ik hitzen eta aditzen partetasuna edo modua adierazteko atzizkia, hala arrainik, egin duenik, datorrelarik
 -iko zeintasun atzizkia, hala, adibi-

dez, eginiko lana.
 ika "aldatz", hika "maskur"
 ikai "aldapa"
 iko "higo, linozko mototx"
 ikui "ikutu"
 -k NOR atzizkia
 -ka uko seinua hizkUNETAN, ala, adibidez, gano/ganoka", ka/ga "etxe" toki-zen atzizkia: Andeka, Andiaga"
 kai "zerbaiterako gai, zertako, portu"
 ke "humo, etxe" (igit. h.)
 -ke uko seinua adizkUNETAN, hala, adibidez, egin/egiteke
 kia "ez"
 -ko NONGO, ZETARIKO, etab. atzizkia.
 koi "zale", -koi zaletasun adierazteko atzizkia
 kui "indi untxi, ikui jokuan deia"
 oga "txakur emekara"
 oge "etzangu"
 ogei>hoge/hogoi "20"
 ok "enpagu, huts"
 oka "enpagu, goragale"
 oki "egote egokia"
 oko "mordo"
 uka (egin) "uts, gaitzesteko oihua."
 ukai "ukondo"
 uki "ukimen"
 uko "eza", ukondo, ukamen"
 uku "indarkeria"

BA

ab- aditz atzizkia, baitako ekintza adierazten, abarrikatu"
 aba "baba, abaraska"
 -aba senidetan atzizkia, hala osaba"
 abai/abao "abaraska"
 abe>habe "zugaitz, zutabe"
 abi "mauli beltz", habi "kabia"
 abia>habia "kabia"
 abo "ago, motrailu"
 afa "poz oihua"

af- aditz aurrizkia baitako ekintzaren adierazle, hala, adibidez, afaitatu"
 aipa "aitatu, aipatu"
 ap- aditz aurrizkia baitako ekintzaren adierazle, hala apaldu, apaindu"
 apa "musu, exeri"
 apeo "zutabe"
 apeu "txori dei"
 apio "serpol"
 apo "apatx, sapo", apho "apo, apats"
 apoa "ezuste oihua"
 aup>haup "axut egiteko oihua"
 aupa "jaso"
 ba "mesfidantzako oihua"
 bae "artza"
 bai "si"
 -bai "gonbaratzeko baldintza"
 baia "ostera, hutsa"
 bao "huts"
 -be "azpi aldea adierazteko atzizkia"
 be- aditz aurrizkia baitako ekintzaren adierazle, hala beheman"
 bea "begira", beha "itxaroa"
 behe "lur gaina, solairu"
 bi "dui",
 bia "garun, ale"
 ebai "ebaki, moztu"
 ep>hep "axut egiteko oihua"
 epa>hepa "deitzeko oihua"
 epai "ebatzi, ebazpen"
 epe "beza, aldi berezia"
 epo "ñañu"
 ibai "erreka"
 ibei "ildo artea"
 ibi "ubide"
 ipo "aihurri"
 ipoi/ipui "kontugarri"
 oba/obe>hobe "hobeto, hobeki"
 obi>hobi "hilobi, harrobi"
 obo "aro, erastun"
 op- aditz aurrizkia baitako ekintza-

ren adierazle, hala opetsi”
 opa “eskeini, asmo”
 opai “eskuzabal”
 ope “opil mee, apiril”
 ope>hope “axut egiteko oihua”
 opo “orban, ñaũu, ardatz”
 pa “musu”
 peia “galga, traba, oinarri”
 pio “txori alamen”
 uba “leka”
 ube “landarearen gorengo horria”
 ubi “ubide”
 uf nekea adierazteko oihua
 ufa “huts, haize, putz, uf”
 üp>hüp “axut oihua”
 upa “kupa, jaso”

AS
 aize>haize “aire, viento”
 aisa/aise “erraz, egokitasun,”
 aisi “opor”
 aiza “erraz, lagun”
 aize>haize “aire, viento”
 as “arnase, putz”, has “biluz”
 as- aditz aurrizkia, norbere ekintza-
 ren adierazle, hala asperatu
 asa “arnase”, hasa “jantzi arinetan”
 asa “arnase, berriro”, zaldia ziztatze-
 ko oihu”
 asai “estul zakarra”
 asaia “bihozkera sarkorra”
 asaie “bularreri”
 ase “nahiko, nahikotu”
 asi>hasi “abiatu”
 axe/haxe “zama, gaitz”
 axi>haxi “txakurra axatzeko oihu”
 eiza “are soil, ehiza “caza”
 esa “esan”
 es- aditz aurrizkia, gogozko ekintza-
 ren adierazle, hala eskartu”
 ese “busti, berde”
 esi>hesi “esto=seto”

etx- aditz aurrizkia, norbere ekintza-
 ren adierazle, hala etxaron”
 etxe “baita, bizitoki”
 exa “are soila”
 exi “bere partez”
 etsai “arerio”
 etsi “itxaropena galdu, ez fidatu”,
 hetsi “itxi”
 etxi “utzi, laga”
 etze “etxe”
 etzi “bihar hurrrengo
 eze “busti, berde”
 ezi>hezi “mendetu, ekandu”
 -ezia “abstratoak sortzeko atzizkia”
 ezo “busti”
 ja “mu, huts”
 ja-/je- aditz aurrizkia, norbere ekin-
 tza adierazten, hala jardetsi, jesarri”
 jai “festa”
 jaie “xurgatu” (ume hitz)
 jau “artzain oihua”
 jei “festa”
 sa- aditz aurrizkia, gogozko ekintza-
 ren adierazle, hala samindu”
 sai “arrano, putre”
 saia “gona”
 saio “ekintza, saiakera”
 sei “sein, ume, VI zenbakia”
 txai “mutil”
 txe “ttiki”
 xa “bederen, batez ere”
 xai “soto, garbi”
 xe “ttiki, ardi, xeme”
 xehe “xume, diru xume”
 xei “jai, sei”
 zai “garaun azal, orein”
 zaia “gona”
 zaio “errekadu”
 ze “xume, zer, bada”
 zeia “merkatu”

BIBLIOGRAFIA

- AZKUE, R. M^a., *Diccionario Vasco-Español-Francés*, Bilbao, 1905-6.
 AZKUE, R.M^a., *Euskalerrriaren Yakintza*, Espasa-Calpe, Madrid, 1969.
 BERGMANN, E., NOBER, P., “SUMERI”, *Enciclopedia Cattolica*, p.1503-1518, Ed.del Vaticano, 1959.
 BERLANDINI, J., “AHK”, DR., o.c., p. 42.
 BERLANDINI, J., “EGIPTO (religión)”, *Ibidem*, p. 517.
 BERLANDINI, J., “KA”, DR., o. c., p. 948.
 BERLANDINI, J., “RA”, *Ibi.*, p. 1474.
 BERLANDINI, J., “COSMOGONÍA(en Egipto)”, *Ibidem*, p. 340-341.
Biblia de Jerusalén, Bilbao, 1998.
 BOURGET, P., “EGIPTO (religión) -Mística egipcia”, *Ibi.*, p. 971-972.
 BOURGET, P., “EGIPTO(religión). El sentimiento religioso.-La mo-ral”, DR., *Ibidem*, p. 523.
 “BET-SHAN”, Dic. B., o., c., p. 232-233
 BOURGET, P., “SEKHEMET”, *Ibidem*, p 1638.
 CATALAN, J. F., “LACAN, J. (1901-1981)”, DR., o.c., p.970-9971.
 “CORAZÓN”, Dic. B., o.c.p. 374-375.
 CORTEGGIANI, J. P., “MAÁT”, *Ibidem*, p.1047.
 CORTEGGIANI, J. P., “MONTU”, *Ibidem*, p. 1250.
 CORTEGGIANI, J. P. “MUERTE Y VIDA DE ULTRATUMBA EN EGIPTO, -Funerales”, *Ibidem*, p. 1257-1259.
 CORTEGGIANI, J.P., “PIRÁMIDE”, *Ibidem*, p. 1413.
 DEL OLMO LETE, G., *Mitos y Leyendas de Canaán*, Cristiandad, Madrid, 1981 (MLC).
Diálogo desesperado con su ba, DB.nº 26, p. 92-98.
Diccionario Retana de Autoridades del Euskera, Gran Enc. Vasca, Bilbabo (1976)
 DUBUISSON, M., “HERMETISMO”, DR, o. c., p. 736-737.
 DURAND,G., *De la mitocrítica al mitoanálisis*, B.Anthropos, 1979.
Dwa-Jeti, DB. nº 10, p. 32-37.
El aprendiz de escriba, DB.nº26, p.25-27.
El Diálogo acróstico, DB. nº 26, p. 78-84.
El Diluvio, ANET, 42-44.
El hombre y su dios, D.B. nº 26, p. 75-78.
El Poema de la Creación, ANET, 60, 66-69, 514.
El verbo “amar” (ra-mu) en los textos del Oriente Próximo Antiguo, DB.nº 23., p. 141-143.
Enki and Ninhursag: a paradís myth, ANET, 37-41.
Enuma Elish, en LARA PEINADO, F.L. y CORDERO, M.G., *Poema babilónico de la creación*, Madrid, 1981.
 EQUIPO “Cahiers Evangile”, *En las raíces de la Sabiduría, Cuadernos Bíblicos*, nº 28, Estella, 1980.

- Gilgamés, DB. nº 7.
 Gilgamešh (*Versión babilónica antigua*), ANET, 72-79, 83-90, 92-97, 514.
 GILLEMETTE, A., "APOPHIS", Ibidem, p. 112.
 HAAG, H., VAN DER BORN, A., AUSEJO, S. *Diccionario de la Biblia*, Herder, Barcelona, 1966.(Dic.B.)
Himno a Shamash, D B. nº 26, p. 108-114.
 HOUIS, M. "ANTROPOLOGÍA DEL LENGUAJE", DR., o.c.,p. 89-99
 JAMES, B. PRINCHARD (de.) *Ancient Near Eastern Texts Relating to the Old Testament*, New Jersey, 1969. (ANET)
 LABARRE, J., "BETILO", DR.,o. c., p. 184-185.
La Enseñanza de Amenemope, DB. nº 10, p. 53-69.
 LARA PEINADO, F.L. y CORDERO, M.G., *Poema babilónico de la creación*, Madrid, 1981.
La Enseñanza de Shuruppak, DB. nº 26, p. 42-51.
La Enseñanza de Shube-awilum, DB. nº 26, p. 55-59.
La Instrucción para el rey Mericarê, 50-60, DB. nº 26, p. 24-28.
La profecía de Neferty, DB, nº28
La teología menfita de la Creación, ANET, 4-5.
Las Instrucciones de Ank-sesonqy, DB. nº 10, p. 71-92.
Las Leyes de Ur-Nammu, 13, DB, nº 15)
Las Lamentaciones de Ipu-ur, DB. nº 26, p. 98-102.
 LAUER J., Ph., *Le mystère des pyramides*, Paris,1974
 LEBRUN, R., "KUMARBI", Ibidem, p. 967.
 LEBRUN, R., "URARTU (religión de)", Ibidem, p.1794
 LÉVÊQUE, J., *Sabidurías del Antiguo Egipto*, *Documentos en torno a la Biblia* nº10, Verbo Divino, Estella, 1984.(DB)
 LÉVÊQUE, J., *Sabidurías de Mesopotamia*, *Documentos en torno a la Biblia* nº26, Verbo Divino, Estella, 1996. (DB)
 LIMET, H., "ANUNNAKI(religiones mesopotámicas)", DR., o.c., p.101.
 LIMET, H., "AMURRU", DR, o.c., p. 63
 LIMET, H., "COSMOGONÍA(sumero-acadia)", Ibidem, p. 343-344.
 LIMET, H., "DAGÁN (religión babilónica)", DR. o.c., p.404.
 LIMET, H., "DEMONIOLOGÍA (rel. sumeria y acadia)", Ibi., p.416-7
 LIMET, H., "ENKI (religión sumero-babilónica)", Ibidem, p. 540-541.
 LIMET, H., "ERRA (religión babilónica)", Ibidem, p. 545.
 LIMET, H., "INANNA (religiones mesopotámicas)", DR. o.c., p. 825.
 LIMET, H., "NERGAL (religiones mesopotámicas)", Ib., p. 1272-1273.
 LIMET, H., "SUMER (religión)", Ibidem, p. 1689-1692.
 LIMET, H., "PANTEÓN (religiones mesopotámicas)", Ibi., p. 1357.
 LIMET, H., "SOL (religiones mesopotámicas)", Ibidem, p.1673.
 LIMET, H., "ZIGURAT (religión sumeria y acadia)", Ibi., p. 1856-1857.
Los Proverbios de Ajicar, 149, DB. nº 26, p. 121

- Lucha entre Baal y Mot*, MLC pp. 213-135.
Lucha entre Ba 'lu y Yammu, MLC., p. 157-212.
Ludlul bel nemequy, DB. nº 26, p. 60-73.
 MAISONNEUVE(de la)D., "SHEKINA", DR., o. c., p. 1638.
 MALAISE, M., "HORUS", Ibidem, 768-769.
 MALAISE, M., "MITOLOGÍA EGIPCIA", Ibidem, 1217-1219.
 MALAISE, M., "SETH", Ibidem, p. 1642.
 MESLIN, M., "LARES", Ibidem, 980
 MALBRAN-LABAT, F., *Gilgamés, Documentos en torno a la Biblia*, nº 7, Verbo Divino, Estella, 1983. (DB)
 "MONTE DE DIOS", Dic.B., o.c.p. 1299.
 MORLA, V., "La fascinación de las Sabiduría; armonías y conflictos", *Sal terrae*, 1955, dic., p. 843-957.
 MORLA, V., *Libros sapienciales y otros escritos*, EVD, Estella, 1994.
 MOTTE, A., "EROS (Grecia)", DR., o.c.,p. 544-545.
 NEUSCH, M., "RICOEUR, P.", o. c., p. 1525-1526.
 PFISTER, D., "HATHOR", DR., o., c., p. 722.
 PFISTER, D., "EGIPTO (religión) -Religión popular", Ibi., p. 520-522.
 POUPARD, P., *Diccionario de las Religiones*, Herder, Barcelona, 1987.(DR)
Prid of pedreege,1-6, ANET,637-638)
 PRITCHARD, J.B.(ed), *Ancient Near Eastern Texts Relating to the Old Testament*, Nueva Jersey, 1969.(ANET)
Proverbios de la Colección Sumeria, DB. nº 26, p. 36-41.
Rescate de la Humanidad de la Destrucción, ANET, 10-11.
 RIES, J., "SAGRADO (2. La expresión de lo sagrado en el mundo sumero-babilónico)", DR.,o.c., p. 1577-1578)
 RIES, J., "MÜLLER.M.F. (1823-1900)", Ibidem, p. 1261-1262.
 RIES, J., "EGIPTO (religión)-Las teologías", Ibidem, p. 515-519.
 SATRÚSTEGUI, J. M^a, *Mitos y creencias*, Txertoa, San Sebastián, 1980.
 SCHEFFER, P., "JOUSSE, M. (18886-1961)", DR, o. c.,p. 916-918.
 "SERPIENTE", Dic. B., o.c. p 1832-1833.
 SEVRIN, J.M., "VALENTINISMO", DR, o.c., p.1803
 "SHEKINA", Dic. B., o. c. ,p. 1812.
 SORAZU, E., *Antropología y Religión en el Pueblo Vasco*, C.H.G., San Sebastián, 1980.
 VIDAL, J., "BACHELARD, Gaston (1884-1962)", DR., o.c., p. 162-166
 VIDAL, J., "JUNG, C.G. (1875-1961)", DR., o. c., p. 936-941).
 VIDAL, J., "MITO", DR., o. c., p. 1205-1210.
 VIDAL, J., "SÍMBOLO", DR., o.c., p. 1654-1661.
 "YAHVÉH"-IV -*Antigüedad*", Dic. B., o. c., p. 2054-2058.

BLEIKER OTROS ESTUDIOS DEL MISMO AUTOR

Vascuence y mitoanálisis, 48290-Amorebieta, Orue (Vizcaya), 2000., Tel: 94 673 04 86.
edo/o felixzubiaga@padrespasionistas.e.telefonica.net

Euskararen ereduak,

Jainkoa eta gizakia euskararen oroitzan,

Euskal mito-erritoak eta euskara,

Apellidos y nobleza,

La onomástica, oído de la prehistoria (o el vascoeuropéismo)

La analogía, arte del lenguaje, según el vascuence,

Antiguo Testamento del vascuence,

Euskararen jakintza

Euskara mito bizia

Origen y desarrollo del lenguaje (según el vascuence)

Zuzentza, eskubideak euskararen oroitzan

EN PRENSA

Vascuence, inconsciente colectivo


Hirutasunaren ekintza giza arketipoen arabera

Vascuence, mito vivo

Euskara amagazko topaketa

Euskara, plazara orduko,
giza baitan jaio eta jantzi zan,
eta Iziartxok, kalera orduko,
ingurua begitu, aditu eta aztertu zuan
eta neskatildu zenean, euskaraz
entzun eta ikasi zituenak
etxeko atarian eta herriko plazan
esan zituan..

ISBN 84-9343232-6



9 788493 432324